

ANTONIO ZAVALA

MIXIOETAKO BERTSOAK — I

MIXIOETAKO BERTSOAK
I

AUSPOA LIBURUTEGIA
(164)

**Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82**

ANTONIO ZAVALA

**MIXIOETAKO
BERTSOAK**

I

**AUSPOA LIBURUTEGIA
1983**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipúzcoa)

Fotokonposatzale: Lente - Estella

Inprimatzale: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)

ISBN: 84 - 7158 - 107 - 8 (Tomo I)

ISBN: 84 - 7158 - 106 - x (Obra completa)

Depósito Legal: NA. 639 - 1983

Julio 1983

ARKIBIDEA

Itzaurrea.....	9
(1824) Misione bat Bidarten.....	13
(1832) Euskarazko kantak Franzisko de Zengoitita-bengoa'k misinoe ostean atariak, Berriz'en Maiatzaren 20'garrenean, 1832'garren urtean.....	21
Oraziozko itz neurtuak.....	33
(1852) Bertso Berriak: «Milla zortzireun eta berrogei ta amabian...».....	39
(1853) Misio Santuen ondorengo kantak zortzikoan Deba'rako ipiniak.....	49
(1854) Orra papera onetan ogei bertso berri misio santuen alabantzagarri.....	55
(1858) Kanta Berriak Irun'go Misiyoaki jarriak.....	63
(1867) Bertso Berriak: «Abenduaren amazazpian artu det pensamentua...».....	73
(1868) Misioneak Senperen.....	81
(1879) Bizi bedi Jesus, ill bedi pekatua.....	87
Bertso berriak Eibarren jarriak.....	97
Bertso Berriak Loiola'ko Mixio Santuari Abitañek jarriak.....	105
(1884) Bertso Berriak Matxinbenta'ko Misio ondoren jarriak.....	115
(1895) Bertso Berriak: «Milla zortzireun laro-gei eta amabostgarren urtia...».....	121
(1896) Bertso berriak Zizurkil'ko Misioen onran Ramona Sorazabal'ek jarriak.....	131
(1899) Bertso Berriak Aia'ko Misiyuari jarriak.....	143

ITZAURREA

Liburu onen izenburua azalean irakurtzearekin, barruan zer arkituko duan badaki, besterik gabe, berrogei bat urtetik gorako euskaldunak.

Euskaldun gazteak, berriz, erri aundieta-koak batez ere, argibideren bat beariko dute.

Mixio oiek ez dira, beren sorterritik urrutira joanda, kristau fedea zabaltzearren mixiolariak erabilli oi dituzten lanak eta zer egiñak.

Emen bertan izaten ziran. Erri batera erbestetik apaiz edo fraile pare bat etorri eta astebetean-edo egin oi zituzten sermoi sutsuai ere *mixio* esaten baitzitzaien.

Orain eun bat urteko sermoi eta elizkizun aiek zer izaten ziran, Pello Errotaren alaba Mikela zanak kontatzen digu *Auspoa*'ren 33'garrenean, 15-19 orri-aldeetan, iñork irakurri nai badu.

Bañan ori gabe ere, bertso auek irakurritakoan, mixio oien berri ederki ikasiko du irakurleak.

Orain baño len ere, gai ontako bertso-sail asko argitaratu izan ditu *Auspoa*'k. Bañan sail oiek egille ezaguna zuten, eta norbere aitaren edo jartzallearen bertso-liburuan atera genituan plazara.¹

Orain, berriz, sail-mordoa bildu eta dana batera eskeintzen diogu irakurleari. Bañan geienak egille ez-ezaguna dute. Eta besteak, berriz, zeñek egiñak diran badakigu, bañan oso bertso-jartzalle urriaren frutua dira.

Ala ere, gure artxiboan oraindik baditugu gai ontako beste bertso-sail batzuk. Bañan oiek egille ezaguna eta oparoa dute. Orregatik, bertsolari oien libururako gorde bearrak dirala pentsatu degu.

Sail auetan badira bertso bezela onak eta badira bertso bezela gutxi balio dutenak ere. Bañan gure erri-bizitzaren agergarri diran ezkerro, gure guraso edo aiton-amonen munduaren testiguantza jakingarria ematen diguten ezkerro, etzuten argitaratu gabe uzterik merezi.

Emen bildu ditugun sail auek, aurrena 1824 urtekoa da; eta azkena, 1965'koa. Urte-mordo aundia, beraz.

Bestetik, berriz, mixio oiek eman ziran erriak, Bidarte'tik asi ta Berriz'eraño baitijoaz, eta lau probintzitakoak baitira, Euskal-erriaren zati aundi-eder bat betetzen digute.

¹ Ikus: *Auspoa* 33'gna, 19 orri-aldean; 49-50, 165; 56, 88; 60, 44, 54, 64; 61, 97; 62, 19, 41, 48, 55, 82; 63-64, 47; 66, 127; 68-69-70, 80, 96; 73, 21; 74-75, 27, 35, 69; 79-80-81, 44, 132; 82, 55; 86-87, 27, 61, 93, 123; 92, 46; 93, 81; 94, 152; 95-96, 111; 112, 11; 115, 51, 63, 77; 130, 83.

Zer esanik ez da, guk eskuratu ez ditugun beste sail batzuk ere, jarri egingo zirala eta oraindik ere banaka batzuk ager ditezke.

Bildu ditugun auek *Auspoa*'ren ale edo zenbaki batean sartzen ez baitziran, bitan banatu ditugu.

Bertso auek, mixio aien oroigarri izan zitezkeen jarri oi ziran; oroigarri orduko jendearentzat eta *dokumentu* bat gaur egunean Euskalerraren kondairarentzat.

«1824»

MISIONE BAT BIDARTEN¹

1/ Mila zortzi ehun eta
hogoita laurian,
misione bat izan da
Bidarteko herrian,
beharra ere bazen
denbora berian.
Zerbeiten deklaritzen
orai naiz abian,
barkaturen derautet
guziek agian.

2/ Predikatu derauku
Jainkoaren legia,
disimularik gabe
erran du egia,
ereman dezagula
bizitze hobia,
utzirik sekulakotz
bekatu lohia,
nahi badugu ukan
zeruko loria.

¹ Musde Jauretxek predikatua. (*Gure Herria*'ren oarra).

3/ Zahar eta gazteak
gaitezen gonberti,
hemendikan aintzina
goberna hobeki.
Munduak erraiteko
izanen du beti,
ez egin kasurikan
jende gaixto heki,
guzientzat oren bat
izanen da naski.

4/ Hek ere hilen dire,
menturaz laburzki,
nahi duten artean
ez daitezke bizi.
Ez badituzte nahi
bekatuak utzi,
onetaryk behaute
gaixtoek berezi,
Jainkoak jakinen du
zer duten merezi.

5/ Orai itzuliko naiz
burasoen gana:
umeak ditutzuna,
behauzu engana;
haurren gidari zure
Jainkoak emana,
gaizki eitetik debeka,
ongi dena mana,
seme alaben faltaz
ez zaitezen damna.

6/ Umeen eginbidea
burasoak maita,
behar orduan lagun
ama eta aita,
zor dugun ohorea
ez dezagun falta;
ongi bada obedi,
gaizkitik aparta,
hek obeditu gabe
hainitz galtzen baita.

7/ Kofesio faltsutan
zenbat ez da ari,
bekatuak gorderik
mundu tronpagarri;
deus etzaio gordeko
juje justu harri,
azken jujamendua
ageriko sarri,
gaixtoak izanen du
ifernua sari.

8/ Zenbat bekatu mortal
elizan berian,
kontsideratu gabe
meza aldarian,
gurutzefikaturik
Jesus Galberian.
Hura penetan eta
gu gure aisian,
lo daude batzu eta
hainitz erasian.

- 9/ Inbidiarik gabe
behar dugu bizi,
medisentzia eta
kalomnia utzi,
gure salbamenduaz
ez dezagun etsi,
Eliza Ama Saindua
ezagutuz nausi,
bertzela zerurikan
ez daiteke kausi.
- 10/ Jaunaren minixtroak
errespeta beitez,
manatzen dauzkiguten
eginbideak betez,
nahi badugu izan
urus egun batez.
Jainkoak eman ditu
hemen bere partez,
gure argitzekotan
egin dira apez.
- 11/ Jauna, zure oinetan
hanbat bekatoros,
Zu ofentsaturikan
urrikitan dagoz.
Bekatu egin dugu
obraz eta gogoz,
barkamendu eske gaude
orai hetaz oroz,
ez baita probetxurik
ifernurat geroz.

12/ Zuri gomendatzen naiz,
Birjina Maria,
Zeruko Erregina
parerik gabia,
bekatoros guzien
kontsolagarria,
gure arartekotzat
zaitezen balia,
egin hurran baitugu
hemengo aldia.

Bertso auek *Gure Herria* aldizkarian arkitu ditugu, 1924 urtean argitaratuak.

Bertsoen azpitik, oar jakingarri au:

«Ithurry Sarako erretor zenaren paperetan atxemanak ditugu koplak eder hauk: ez daki-gu batere nork eginak diren. Aise ageri dena hau da: prediku guti huts egin zukeela 1824-eko misionean koplari hunek eta ongi gogoan hartzen zituela musde Jauretchen hitz sarkorrak. Oxala hura iduri balute oraikoek ere! G. H.»

* * *

Andik lau urtera, 1928'an, aldizkari ortan bertan, bertso auen egillearen izen-deiturak eta zenbait argibide eman zituan Martin Landerretxe apaiz eta euskal idazleak, *Orhoitzapen bat* izeneko idazlan batean. Ona beraren itzak:

«*Gure Herria* deitu hilabetekariak, duela denbora argitaratu zuen kantu bat, hitz buruko zuena «Españolak Frantzian».

Kantuaren moldatzailea deitu zen hitz ordez Muñagorri; izen goretsia, denaz geroz Misionetako apezpiku baten izena; bainan, mugaz alde huntarik etorkia dutenen artean, nihor ez dena garraiatzen ikusi.

Iduri luke bada guziakgatik, kantuari eman bazitzaion oraino argitaratua izatea, ez zaiogela gutiago eman moldatzailearen izenari, denarentzat erakutsia izatea.

Moldatzailea zen bada *Martin Fagondo*, Bidarte Abienetik zuena bere etorkia. Nere osaba ttiki zen, nere ama zenaz geroz Abieneko alaba, bere ama Martin horren arreba zuena.

Erran den kantu horren moldatzetik hamar bat urteren buruan, harek berak argitaratu zuen bertze kantu bat, herrian eman zen misione bati zohakonaz, huna zertarik haste zuena:

Mila zortzi ehunta hogoita laurian
Misione bat eman da Bidarte herrian.
Beharra ere bazen denbora berian.
Zerbeiten deklaritzen orai naiz abian;
barkaturen derautet guziek agian.

Dakidan kobla bakarra da. Bertzerik esku-
ra balakit, *Gure Herria*'ri hel-araz nezoke.

Herria barnarik ukitua izatu zen. Bortz neskatek botua egin zuten, atxiki zutena.

Lur langile zen Martin, bermakuntza handiz kanpoko lanetan. Liburuetan zuen maiz gogoia. Negu aroak iragaiten zituen, hauzotegiko haurrei irakutsiz, katiximarekin batean, irakurtzen, iskribatzen eta kondatzen.

Orduan ere, irakurtzen ikasteko, letreatzetik behar zen hasi. Nere ama zena, nausiaren illoba, ikasletarik zen. *Confiteor* letreatzean, Petro ateratzeko orde, ateratu zuen Potro, eta hartu mazelako bat bizi bizia. Bere gertakaria, ehunka aldiz kondatua, laurhogoi urtetan goiti ez zuen oraino ahanzten.

Lur lan axalekoetan, maite zuen Martiñek, Abieneko alorretan aurkitzea, illoba bere adintsukoekin eta, nola hel, hekien kideko bertze batzuekin. Behin batez han arto jorrak zituzten. Solas eta solas zenbeiten ondotik, Martiñek erran zioten:

- Denbora pasa, egiten bagindu Jaun Erretorearen igandeko predikua?

- Bai eta bai.

- Egizak hik -erran zioen Joxepa, iloba bere adintsukoak.

- Nahi badun bai, bainan gero hik egitekotan, bertze igandeko predikua.

- Nahi baduk bai, bainan has adi.

Jaun Erretora zuten Ainciburu, apez on eta kartsu, hirurgarrenik ez bazuen, bigarren

kokots ederrenetarik bazuena. Makaiarra zen, eta bere sor lekuko mintzaiari atxikia.

Martin hasi zen, prediku aintzineko solasetarik:

«Girixtione maitiak, erran behar dautziet, ez bihotzmin handi bat gabe: Herritik, hain maite nain herri huntarik joan behar niz. (Xukatzen ditu begiak.) Bai, joan behar niz, apezpiku egiten nute!»

Labur zen, bainan bazen aski. Izatu ziren hirri zaflak, bai eta oren laurden batez iraun zuten ateraldiak.

– Hik orai, Joxepa –egiten dio Martinek.

– Bai, mutikoa, bai; bazakiat zer erran:

«Girixtione maitiak, erran nauzien egun zortzi, herri maite huntarik joan behar nuila, apezpiku egiten nindutela. Bainan enute egiten; ez dut herri maite hau utziko.»

Martin ongi pagatua zen. Izatu ziren berritz ere hirri zaflak, bai eta ateraldi oren laurden bat iraun zutenak.

Azken hitz batez errateko, Martin Fagondo ezkondu zen, Parlamente deitu bere hazotegian. Adin haundi bateraino, etxejoaun pollit bizi izatu zen.

Jainkoak bere lorian duela!

Martin Landerretxe apeza.

Agorrillaren lehenean 1928an.»

«1832»

EUSKARAZKO KANTAK
FRANZISKO DE ZENGOTITA-
BENGOA'K
MISINOE OSTEAN ATARIAK

BERRIZ'EN MAIA TZAREN
20'GARRENEAN
1832'GARREN URTEAN

- 1/ Misionistak dirade
aurkitu Berriz'en,
premiña bere bazan
eta biar izen;
leenago bere izen dire
sei urterik baten,
orain lako mudanzarik
ez da ikusten izen.

- 2/ Orain klaru nai neuke
nik adierazo,
Berriz'ko erri noblien
aurten zer dan jazo;
memoria gitxi det
onenbesterako,
Maria Santisima
nai dot laguntzeko.

3/ Zarauz'ko San Franzisko'ko
fraile erlejioso bi
Berriz'ko errira aurten
dirade etorri;
predikatu deuskube
pulpituti sarri:
arren itxi deijogula
usu gaiztuari.

4/ Aurtengo Martijaren
ogeta amargarrenian,
eldu ziran misinuek
Izaakirrenian;
asko estimatu zituben
bere konpañian,
gu ifi'gendijezen¹
ejenplu onian.

5/ Frai Juan de Obieta
bijetati zarrena,
berak predikatu dau
benipein aurrerena;
Frai Franzisko de Estarta'k
egi'dau bigarrena,
batak letxe bestiak
egin dabe alegiña.

¹ ifi = ifin

- 6/ Frai Franzisko de Estarta
neure izenekue,
ak ondo ametan dau
nire ustien Jangoikue;
sarriten ifinten dau
gorputz nekatuba,
guri kendu gurarik
geure pekatuba.
- 7/ Sarriten deuskube eurak
klaru esplikatu:
arren bada eztaigula
bekaturik ukatu;
andijek da asko izen arren
zietz konfesatu,
ori egin ezkeror
danak eurak parkatu.
- 8/ Onetan bere emon dabe
enkargurik asko,
dantza nastubetati
arren apartetako;
prest daguela diabruba
sariek an botetako,
arima ederrik asko
gero kondenetako.

- 9/ Esan deuskube sarri
eurak pulpituti,
ez datorrela gauza onik
tanbolin-soñuti;
arren aparta gaitian
gaziok onetati,
nai badogu gero jua
zerura bideti.
- 10/ Ia, neure jentia,
sarri dogu aditu:
arren bada fanderuak
daiguzela apurtu;
entzun dabeenien eurek
batzuk dirala austu,
eurakgaiti bertati
bijek dabe erregutu.
- 11/ Entzuten dabenien eurek
gure onerakuek,
ordubantxe artuten dabe
gutzizko kontentube;
ia bada, jentia,
atera kontube:
eurentzat baño guretzat
askoz obeto due.

12/ Itxi deuskube eurek
enkarguba ugari:
betiko galdu daigula
usu gaiztu ori;
eta partikularmente
Justiziako jaunari,
artarako esa'eben
laguntzeko berari.

13/ Ondo dozu lagundu
erriko bezinuek,
aurten galdu ditezen
Berriz'ko funziñuek;
ez eban seguru gure
tanbolinterubek,
irebazten zitubelako
ordubantxe dirubek.

14/ Bagilleko illaren
ogeta bederatzijen,
San Pedro zelebrau oi da
Berriz'ko errijen,
batzubentzat mesede,
askoren kaltegarrijen;
bakie izengo da aurten
neure eritxijen.

15/ Frai Juanen akabuko
sermoiaren ondoren,
entero junte ona
Berriz'en egi'eben;
pozarren ziran geienak
alkarren ondoren,
galduteko funziñuak
arren len baño len.

16/ Egi'eben seguru
bertan dekretue,
obeto serbidu zedin
aurrera Jangoikue;
geijenena bai, baie
ez zan danen gustue
ifintie fiestak
galduteko usube.

17/ Jangoikuek jo gaitu
orain biotzien,
obeto amadu daigun
aurrera-antzien;
alkar ondo amau daigun
bizi garien artien.
sartu gura badogu
zeruko atien.

18/ Sarriten dogu, jentiak,
guztiok aditu
zelan egingo garian
ondo konfesatu:
noberen konzienzia
ondo errejistatu,
gero konfesetako
danak buruban artu.

19/ Pekatuben gañeti
biar da konfesatu,
damuba ta propositube
ia dituben artu;
ia bada, jentiak,
euki daigun kontu
askok egiten dogula
onetan erratu.

20/ Artu dogu, jentiak,
enkargurik asko:
arren geure pekatubak
zietz konfesetako;
andijek izanagaiti
danak esateko,
aztuko dirialakuen
ez itxi geroko.

21/ Guk isilik euki arren
batzuk geure aldien,
agertuko dira gero
mundu guztien aurrien;
mundu guztien aurrien ta
Kristoren tribunalien,
asentauta egongo dire
liburu galantien.

22/ Diabrubak liburuti
danak esango ditu,
geuk egiñak izan ezkeru
guk ezin ukatu.
Eurek esango deuskube:
«Zeuk egiñak gara gu».
Jesu Kristok esango dau:
«Neu nago testigu».

23/ Ai ze ordu estuba
bekatariendako,
ezetara erremediorik
ez dau an eukiko.
Munduko banidadiak
zer dau an serbiduko?
Arren ez al da inor
onelan aurkituko.

24/ Ia bada, guztiok,
gabizen kontuben,
sartu ez gaitezen
gero infernuben;
orain an daozenak bere
bizi ziran munduben,
orra zer parajie
dauken akabuben.

25/ An ez dago sekula
bein bere kontenturik,
alde guztietati
beti dago suturik;
au ondo pensau ezkeru
ez da egingo pekaturik,
ango penak eztauke
sekule akaburik.

26/ Bidien dator, jentiak,
gaba edo eguna,
erremedio bagarik
il biarko doguna;
au ziertuba da baia
noz eztakiguna,
arren ondo topau gaizuz
ordubentxe, Jauna.

27/ Orra misionistak
enkargatu jentie
zelan amadu biar dan
Jangoiko maitie;
arren egin daigun bada
esan daben guztie,
galdu ez daigun bada
zeruko sillie.

28/ Mille ta zortzireun urte
ta ogeta amabijen,
predikatu dabe, bai,
Berriz'ko errijen;
aurkitu giñaden, bai,
premiña andijen,
genbizelako beti
gaizki pikardijen.

29/ Ia luzetu bagarik
gura dot despeditu,
asko esaten dabenak
egiten dau erratu;
oker esan dodan edo ez
oraintxe erreparatu,
gaizki atera badot,
jentia, parkatu.

30/ Ogeta amar bertsoekin
despeditu gura dot,
misino bik egin ditube
Berriz'en eginatok;
eurak esan doskubena
egingo al dogu danok,
axe desietan dau
Bengo'ko Franziskok. *Amen.*

*Bizi bedi Jesus,
bizi bedi Maria Santisima,
bizi bedi Jaunaren grazia,
il bedi pekatuba,
alan irabazi daigun
sekulako gloria. Amen.*

Bertso auek Bilbo'n arkitu ditugu, moldiz-
tegi-izenik gabeko kanta-paper batean, *Az-
kue Biblioteka'n.*

ORAZIOZKO ITZ NEURTUAK

1/ Kanta berri bat daukat
oraziozkoa,
iñork aditzen badu
deboziazkoa;
orain klaratuko det
itz egiazkoa:
ez da Paraisoa
interesazkoa,
guziok salbatzeko
karidadezkoa.

2/ Beti alabatzen det
Jainkoaren otsa,
bekatu egiteaz
eskusa ta lotsa;
pobrezaz izandu zan
Jesusen jaiotza,
batetik elurra ta
bestetik izotza,
gero guregantikan
pasa eriotza.

3/ Ogei ta amairu urte
munduan pasarik,
gurutzean ill baitzan
emen asperturik;
zer etorri bear zan
berak pensaturik,
etzaku gogoratzen
alako konturik,
gauden bada arenaz
eskarmentaturik.

4/ Lan ura egin zuan
Arek guregaitik,
bada pensa dezagun
Bera danagaitik:
Ama tristeak negar
begi bietatik,
Aita Eternoari
eskatzen bertatik,
arren eratsitzeko
gurutze artatik.

5/ Aitak borondatea
an kunplitu zuan,
amak magaletara
bertan artu zuan;
itz batez gogotikan
Ark galdetu zuan:
ea aren Semeak
zeren kulpa zuan;
gu salbatzeagatik
ura egin zuan.

6/ Orra, nere jendeak,
atera kontuak
nola etorri diran
Misio Santuak:
manifesta ditzagun
geren bekatuak,
fedean faltatuta
guri gertatuak,
konfesio on batez
daude barkatuak.

7/ Agoztua sartuta
lenengo astean,
errira eldu ziran
illaren bostean;
esplikatzan digute
sermoian jarlean,
eztirala etorri
guretzat kaltean,
zerura juateko
berekin batean.

8/ Relijioso biak
dira alkarrekin,
diote: Zeñek nai du
zerura aiekin?
Ongi esplikatuz
sustanziarekin,
aizken errematea
Santo Kristorekin,
gure salbazioa
duela Berekin.

- 9/ Baldin nai baditugu
animak salbatu,
dotriñan bear degu
kontu ongi artu.
Zertako para ziran
amar mandamentu,
Eliz Ama Santaren
zazpi sakramentu?
Kredo-artikuluak,
orietan kontu.
- 10/ Eutsi nai dionak
kristandadeari,
gogotik erregutu
Aita gureari;
Birjiñak esan dio
itz au jendeari:
seguru eusteko
santidadeari,
penarik eman gabe
aren Semeari.
- 11/ Orren ondorengoa
da Abe Maria,
artzaz konsolatzen da
Birjiña Maria;
seme bat egiñ eta
donzella garbia,
orain Berak daduka
gure guardia,
arren izan dezala
miserikordia.

Bertso-papera, *Tolosan, Mendizabalen alargunaren moldeteguian*, Loiola'n, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman.

Beste bertso-paper bat, moldiztegi-izenik gabea, Paris'en, Liburutegi Nazionalean. Argitaraldi ontaz gero itzegingo degu.

Eta, irugarren, Zaldibia'ko Jose Garmendia apaiz jaunak eskuz idatzita bialdu zizkigun bertso auek, Bilbo'n Iztueta'ren paperetan azalduak zirala-ta, moldiztegi-izena onela zuan bertso-paper batean: *Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguian*.

Aurrekoan, *moldeteguian*; onako ontan, *moldizteguian*. Etxe berekoak izanagatik, bi argitaraldi, beraz. Alkarren artean aldaketarik ez dute, moldiztegiaren edo kopiatzallearen utsegite bat edo beste izan ezik.

Iztueta'ren paperetan azaldutako bertso-paper onek izenburua onela du: *Fernando Amezquetarrac ifinitaco itz neurtuac*.

Arenak ote dira, beraz? Bertsolari famatu arek paperean jarritako bertsorik ez da orain artean iñun azaldu. Orregatik, puntu au al degun añean argitzea on litzake noski.

Fernando Amezketarra 1823 urtean il zan. Bertso-paper ori, berriz, noizkoa? Ez dute bertsoak urterik esaten. Bañan moldiztegi ori, Isaak Lopez-Mendizabal zanaren aurrekoena izan zan. Mendizabal alargunaren izenarekin, 1840'tik 1877'era ezagutu zan. Fernando il da geroagoko papera, beraz.

Bañan Iztueta 1845 urtean il baitzan, eta kanta-paper au beraren paperetan agertu bai-

ta, urte ori baño lenagoko argitaraldia degu; Iztueta il da gero norbaitek aren paperen artean sartua ez bada beintzat, ez da Fernando il da askoz geroago imprentatua izango. Ogei ta bi urtera geienaz ere. Ura ondo ezagutu zuanik, bat baño geiago bizi ziran artean; Iztueta bera, oietako bat.

Bertso aukerak Fernandorenak izateak, badu, beraz itxura pixka bat.

* * *

Len esan bezela, Paris'ko Liburutegi Nazionalean ere arkitu ditugu bertso aukerak, moldiztegi izenik gabeko bertso-paper batean.

Eskuz idatzita, onako eraskin au dauka: 1870, Arana. Loiola'ko Aita Jose Inazio Arana'k urte ortan bialdua dala esan naiko du.

Argitaradi au prestatu zuana, euskera bizkaieratzen alegindu zan, aldaketak garbi asko agertzen dutenez:

1/3: iñok aditzen baduc; 1/7: esta paradisoa; 2/2: Jaungoicoaren otza; 2/3: pecatu eguitea; 2/5: pobrezan izandu zan; 2/7: batetic edurra; 2/8: bestetic isurtza; 2/7: guero guregaitcan; 3/2: munduan pasaurik; 3/3: crutzian ilbasan; 4/1: Lanira eguinceban; 4/2: arec guregaiti; 4/4: bera danagaitik; 4/10: crutze artaric; 5/1: Aita en borondatia; 5/3: Amak magaletan; 5/5: Ist baten gogotisan; 5/6: angueltlitusuan; 5/7: Ia aren semea; 5/9: gu salbatzea gaitik; 5/10: aura eguinsuan; 6/1: Ya nere genteac; 6/4: misioni santuac; 6/6: gure pekatuac; 6/9: konfesio onbatequin; 6/10: daude parcatuac; 7/1: Abustuan sartuta; 7/3: errira eldu ciran; 7/6: sermoijaren partian; 7/7: estdala etorri; 7/9: cerura emateco; 7/10: eurequin batian; 8/1: Religioso bioc; 8/2: dirade alcarreguin; 8/3: biotzac ceifnegana naidu; 8/4: cerura arequin; 8/5: ongui esplicatuac; 8/7: asquenengo errematia; 8/10: doyalala beraquin; 9/1: Baldin naibadetugu; 9/3: dotrinan biardogu; 9/4: ongui contu artu; 9/7: Elesama santa arenac; 10/2: santidadeari; 10/7: seguro eutzitzeco; 10/9: penaric emongabe; 10/10: bere semearri; 11/1: Onen ondorrengo; 11/3: agas consela-tzenda; 11/7: orain berac darisca; 11/8: bay gure garbiya; 11/9: aren izan dizala.

«1852»

BERTSO BERRIAK

1/ Milla zortzireun eta
berrogei ta amabian,
Berastegi'n giñan gu
misio-premian;
ezagaturik Jaunak
nola arkitzen giñan,
bisita egin digu
gu salbatu naian.

2/ Etorri zan bezela
Jerusalen'era,
Jesusen dizipulu
guztien gañera,
Espiritu Santua
gugana etorri da,
eta erri onetan
bertako egin da.

- 3/ Pazkoa Maiatzeko
irugarrenean,
asi zaizkigu emen
guretzat lanean,
Jaunaren ordenaz ta
bere izenean,
aingeru bi zerutik
jetxiak lurrean.
- 4/ Aita Etxezarraga
Linaza Aitarekin,
saiatu dira ziñez
oiek Berastegi'n;
beren neke, lan eta
sermoi ederrakin
jende asko dituzte
zerurako egin.
- 5/ Eskerrak zor diztegu
lenbizi Jaunari,
gero Etxezarraga
eta Linaza'ri;
zeren mudaturikan
oiek Berastegi,
len infernu bat zanak
zeru bat dirudi.

6/ Ez da emen gelditu
ez zar eta ez gazterik,
komunio santua
artu gabetanik;
inguruko erriak
au berau eginik,
konfesoreari lana
franko degu emanik.

7/ Aiuntamentu jaunak
bere asistentzian
ejenploa eman du
misio guztian;
inguruko apaizak
nere iritzian
ortxen izan ditugu
lana egin nayian.¹

8/ Dozena bat erriak²
misio onekin
santifikatu dira
oiek Berastegi'n;
ona ejemplo ederra
beste ainbeste dedin,
probintzia guztian
nai badute egin.

¹ Bertso-paperak: *nayean*.

² Bertso-paperak: *Dozena erriak*.

9/ Aurrena Berastegi'k
ustez gai onetan
ejenploa eman du
probintzia onetan;
nai duanak bada izan
zeru ederretan,
segi bizaio oni
bere pausoetan.

10/ Ainbeste erri dira
etorri diranak,
esango ditut asko
nik dakizkidanak;
gai onetan argitu-
ko banindu Jaunak,
pozik lirake emen
zituak danak.

11/ Tolosa'tik asita
Ibarra, Berrobi,
oietatikan asko
jende da etorri;
Eldu Elduaiñ'ek
marka dute utzi,
ederki kantatuaz
emen ziran beti.

12/ Leaburu, Belauntza,
Lizartza puntuak,
batez ere Oreja
ta Gaztelu'koak;
oietatikan asko
oso nekatuak,
mendiz etorri dira
prozesio osoak.

13/ Leitza, Areso eta
Gorriti, Uizi,
oietako jendea
franko da ikusi;
beste erri batzuetako
askok du ikasi
zerura joateko
nola bear dan bizi.

14/ Ainbeste erritako
jendea elizan,
ez dakit beste batean
non bilduko ote zan;
Orendain'dikan ere
personak baziran,
Amasa Goizueta'tik
banakak an ziran.

15/ Elizak ezin kabi,
zimitorioan,
eunka dira personak
egon misioan,
isiltxorikan edo
bai silenzioan,
aditutzen sermoiak
txit debozioan.

16/ Berastegi'ko eliza
egin zanetikan,
ez da orrenbeste jende
sekulan ere izan,
misioko motiboz
beintzat gure elizan,
zar askok diotenez
ondo jakiñikan.

17/ Zerurako bidean
asko dira sartu,
milla asko persona
ondo konfesatu,
animako zauriak
ederki sendatu,
komunio santuan
graziaz indartu.

18/ Zeruko bide onetan
ez da asko sartzea,
txit bearra da oni
beti segitzea;
ala egin dezagun,
bai, nere jendea,
gertatu ez dakigun
kondenatutzea.

19/ Or aditutakoak
asko da egitea:
bakoitzari berea
laster ematea,
projimo guztiakin
oso paketzea,
gabetan ere goiztxo
erretiratzea.

20/ Esan ere digute
gure misioak,
uzteko pekatuzko
bide eta okasioak,
naspillazko billera
eta funzioak,
engañatu ez gaitzan
oso demonioak.

- 21/ Ortxen aditu degu
maiz konfesatzeko,
Birjiña Andre Maria
Amatzat artzeko,
debozio on bat oni
beti izateko,
orrela egin ezker
ez gera galduko.
- 22/ Beste gauz asko dira
ortikan esanak,
konseju ona franko
guretzat emanak;
orrela egiñikan
animako lanak,
seguratzten ditugu
zeruko ondasunak.
- 23/ Bertso oiek jarri ditu
deseo duanak
zerurako zuzendu
biotz guztionak;
faltak izanagatik
bertso oietan, jaunak,
disimulatu bitza
leitzen dituanak.

24/ Onenbesterekin bada
saia, jaunak, emen,
zerurako bidetik
gabiltzen gu zuzen;
alkarrekin lagunak
gero izan gaitzen
zeruko glorietan
beti-betiko, amen.

Bertso-papera, Chicago'tik, Bonaparte'ren bildumatik.

Beeko barrenean, papera nun inprentatu zan ez-ezik, salgai nun dagoan ere esaten zai-gu:

«Se hallarán en Tolosa en la imprenta de la Viuda de Mendizábal».

«1853»

MISSIO SANTUEN
ONDORENGO KANTAK
ZORTZIKOAN DEBA'RAKO IPINIAK

1/ Jesusek biraldurik
iru gizon aundi,
Deba'ra etorri dira
ez dakigu nondi,
jakinduriz beteak
iñork ezin neurri,
Gerriko, Legarra ta
beste lagun ori.

2/ Amabost egunian
misio santuak,
ondo jakin dituzte
Deba'ko kontuak;
legez izango dira
aurrera tratuak,
ainbeste konfesio
balira justuak.

3/ Sinisturik jun dira
Jesusen lagunak
aztuko ez dirala
aien sermoi onak;
ala biar litzake
nere ustez, jaunak,
ondo pagatutzeko
egindako lanak.

4/ Jesuita jaun oriek
esan due garbi
nolako amorioa
zor degun alkarri;
aberatsak, pobriak,
doatz eta argi, (*sic*)
danok gera anaiak
eskerrak Kristori.

5/ Gorputzeko jantzi ta
jantasunko oste, (*sic*)
animaz berdin gera
bata bezin beste;
sermoi eder askotan
gauz au esan dute,
egia aundia dala
askok eztu uste.

6/ Mundu labur onetan
gerade desberdin,
Jesusek besterako
igual gaitu egin;
ez bada iñor justu
emengo gauzakin,
betikoari kontu,
ark ematen du min.

7/ Onak balio badu
beste mundurako,
emen ona danari
gauza asko zor zaio,
bidea erakusten
ari zaigulako,
salbatzeko anima
beti sekulako.

8/ Ondasun ta diruak
dauzkate galdurik,
pobre onik ez dala
iñon sinisturik;
danetatik igesi
etxean sarturik,
alako kristaumentzat
ez dago zerurik.

9/ Jesusek esaten du
alkar amatzeko,
pobre ta aberatsak
beñere ez azteko;
danok jaio giñala
emendik juateko,
beste mundu luzera
beti bizitzeko.

10/ Orain jakin biar da
ta ondo ikusi,
gorroto zitalikan
iñork duen utzi,
guziok lagun geran
erozein nagusi,
aurrera naiko degun
alkarrekin bizi.

11/ Ebanjelio santu
Eskriturakoak
esaten digu ongi
zer dan gorrotua;
sube-mistorra bezin
puzoniosoa,¹
gaitz onek betetzen du
beti infernua.

¹ Bertso-paperak: *Jamzoniosoa*.

12/ Gorrotoz bizi dana
dago pekatuan,
parterik ez du izango
iltzean zeruan;
misioak esan du
euskera klaroan,
ez gaitezela egon
iñor gorrotoan.

13/ Zerua nai badegu
Jaunaren grazian,
misioko esanak
gorde biotzian;
Jaunaren abisoak
sentidu guzian
dira misiokoak
nere iritzian.

14/ Misio jaunak Deba'n
egon diran arte,
kristau askok grazian
izan dute parte;
eriotzaraño ongi
gordetzen badute,
aingeruak zeruan
sartuko dituzte.

Bertso-papera, *Vergara imprenta de J. Undiano* moldiztegian argitaratua, Chicago'tik, Bonaparte'ren bildumatik.

«1854»

ORRA PAPERA ONETAN
OGEI BERTSO BERRI
MISIO SANTUEN
ALABANTZAGARRI

- 1/ Milla zortzireun da
berrogei ta amalabian,
misioak izan ditugu
Orio'ko errian;
asko arkitzen giñan
jaun oien premian,
erakutsi digute
euskera garbian,
nola sartuko geran
zeruko glorian.

- 2/ Ogei eta lau urte
aundiren buruban,
orra misionistak
leneko lekuban;
galduko ezpagiñan
premiya zeguan,
alegiña egin due
beren enpleuan,
animak infernura
ez ditezen juan.
- 3/ Emen agertu dira
bi relijioso,
jendia artu dute
bigun eta gozo;
pulpitutik digue
au adierazo:
arren geren animai
egiteko kaso,
sartu baño lenago
Luziferrek preso.
- 4/ Misio santu oiek
dirade azaldu,
mesederikan asko
jendiak izan du;
asistitu gabe're
ez gera egondu,
lan onek urteero
segituko balu,
anima bat bakarra
ez liteke galdu.

- 5/ Aita Etxezarraga,
Frai Jose Uriarte,
gure animerako
trabajatu dute;
oiek maiz etortzea
ez genduke kalte,
erremediatu da
makiña bat jende,
mesede izugarria
oiek egin due.
- 6/ Aundia izandu da
oien alegiña,
egiñ dezagula arren
ondo esamiña
zenbat modutan degun
pekatu egiña,
artu guzietara
dolore berdiña,
eta irugarrena
propositu fiña.
- 7/ Bost kondizio biaitu
konfesio onak,
oriek formatziak
ematen ditu lanak;
egiñagatik ere
bat utzi ta labak,
anima galduko du
ala juaten danak,
guztiak oso biar
salbatuko zanak.

- 8/ Modu onetan egin zagon
geren konfesioa,
ortarako artzen dala
ondo espazioa;
ez du asko balio
gaizki badijoa;
izango baldin bada
obra egiazkoa,
oraiñ eman bear du
satisfazioa.
- 9/ Misio santu oiek
due predikatu,
obra onak eragiten
dirade nekatu;
izanagatik ere
ugari pekatu,
damuz dijuanari
guztiak barkatu,
geiago ez egiteko
proposituba artu.
- 10/ Ildako instantian
daukagun tranzia,
gauza biarra degu
konsideratzia;
presente jarriko da
guztion Jabia,
sentenzia artuko du
bakoitzak beria,
non pasa biar duen
eternidadia.

11/ Azkeneko egun triste
juiziokua,
ikusi biaguna
gauza fedekua;
señalatua dago
orduko lekua,
aserre etorriko da
gure Jaungoikua,
baldin pekataria
gaizki badijua.

12/ Konsidera ditzagun
infernuko penak,
sekulan ta beñere
aituko ez diranak;
ondo aspertuak dira
lenago juanak;
bere eskuan dauka
munduan dagoanak:
egĩñ itzagun misio
santuen esanak.

13/ Gizon oiek etorri
dirade gugatik,
sermoi ederra franko
egĩñ due ortik;
libratu nai gaitue
etsaien artetik,
lenbailen gloriara
juatiagatik,
garbituta abiatu
obe da mundutik.

- 14/ Damutasun gogorrak
biaitugu artu,
zergatikan gendukan
ainbeste pekatu;
aurrera biar degu
ondo prokuratu,
etsai orrek ez gaitzan
len bezela lotu,
illdakuan zeruan
nai badegu sartu.
- 15/ Ondo enkargatuak
daude gurasuak,
kontuan artutzeko
umien pausoak;
ortik ez dira etortzen
ondoren gozoak,
esan ezin litezkian
pekatu gaiztoak,
erreparatuko du
Jaungoiko justuak.
- 16/ Aurrena gurasuak,
urrena umiak,
orietako zenbait
ez asko obiak;
erteten diralako
desobedientiak,
pesadunbria franko
badauka jendiak;
ez dira orrela gordetzen
Jaunaren legiak.

17/ Jaun oiei eman bear
diztegu graziak,
deritzat dituela
ondo mereziak;
beren obligazioa
daude ikasiak,
amaika aldiz gaude
adieraziak
zer deskansuba daukan
anima garbiak.

18/ Bertsuak paratzeko
artu det asmua,
obra txarra egitera
al bada ez nua;
baldin bada persona
juiziozkua,
papera onetan dago
adierazua
nola egiñ bear degun
aurrera pausua.

19/ Orra Usurbil'dikan
ogei bertso berri,
Orio'ko misio
oien onragarri;
enkargatu gaitue
pulpitutik ongi,
ofensak barkatzeko
munduan elkarri,
kastigu gogorren bat
ez dedin etorri.

20/ Ejenplo onik asko
aditu da emen,
ez dakit noiz artian
balioko duen;
konsidera dezagun
zer modutan gauden,
adiskide izateko
Aita Eternoaren;
guziok Beretzako
gorde gaitzala, arren.

Bertso-papera, *Donostian - Pio Baroja-ren moldizteguian*, Chicago'tik, Bonaparte'ren bildumatik.

1854'eko bertsoak, eta Orio'ko mixiorako Usurbil'en jarriak, lenengo eta emeretzigarren bertsoak diotenez. Zein bertsolari ote zan Usurbil'en garai artan? Udarregik (1829-1895), ogei ta bost urte zituan orduan. Arenak izatea baditeke, beraz. Bañan aren aita ere bertsolaria zan; eta beste bertsojartzallerik ere izango zan garai artan Usurbil'en. Ezin, bada, alderdi ortatik gauza segururik jakin.

Bañan argibide gogoangarri bat, bertso biltzen asi berriak giñan artan jaso genduan, orain ogei ta amar bat urte, beraz, nundik eta norengandik apuntatu ez bagenduan ere. Norbaitek zazpigarren bertsoa eman zigun, aurretik oar au egiñez:

«Udarregi zarrak jarri omen zizkion bertsoak Orio'ko mixioari. Ala zion nere aitonak».

Udarregi zarra, Juan Joxe Udarregiren aita esan naiko zuan.

«1858»

KANTA BERRIAK
IRUN'GO MISIYOAKI JARRIAK

1/ Bertso berri batzuben
al banetza jarri,
misiyo santubaren
etorrera oni;
Espiritu Santuba,
egidazu argi,
zure doai oriyez
baliya banendi.

2/ O amoriyo garbi
neurri gabekoa!
Argi zadazu nere
entendimentuba,
ezagutu dezagun
nor dan Jaungoikoa,
dala guziyen jabe
Aita Zerukoa.

3/ Ume esker gabiak
ez gaitezen galdu,
misiyoak dizkigu
Iruna bidaldu,
gure animen trabak
naizikanen kendu,
zergatik aspaldiyan
etziran izandu.

4/ San Remijio degu
Urriyaren lena,
prodijiyo andiyak
egin zitubena;
larunbatakin zuben
aurten asipena,
berriz sei urte arte
izango eztena.

5/ Bizi danak iduki
onen memoriya:
noiz agertu zitzaigun
zerutik argiya;
Jaunak biraldu digun
enbajara aundiya,
guri erakusteko
dotriña garbiya.

6/ Egun onetan zuten
lenengo sarrera,
arratsaldeko lautan
gitxi gora-bera;
garbiro esan zigun,
akordatzen gera,
zer moduz bear zuten
segitu aurrera.

7/ Txit modu egokian
zigun deklaratu
nola biar genduben
danak allegatu,
Jaunaren serbitzuban
nola aurreratu;
trabaju ok bere gain
nai zituben artu.

8/ Goizian egun-alban
lendabizikoa,
eguartian berriz
instruziyokoa;
misiyo prinzipala
arratsaldekoa,
bi lagunen artian
konpondutakoa.

9/ Neurri gabeak dira .
oriyen nekiak,
beti lana seguru
langille merkiak;
sarri deitzen gaituzte
bat eta bestiak:
Misiyo Santu ontan
etorri jentiak.

10/ Desterraturikanen
biziyo guziyak,
paratu nai gaituzte
birtutez jantziyak;
graziazko arropak
biar dute zuriyak,
iñoiz zikindu gabe
iduki garbiyak.

11/ Eliasen pareko
zelo aundiyakin,
erakusten digute
zer biar degun jakin;
konbidatzen gaituzte
biotz onarekin,
gloriara joateko
denak elkarrekin.

12/ Jaungoikuen amorez
bere onragatik,
trabajatzen dirade
gure onagatik,
alegiña egiñaz
zein bere aldetik,
gu libratu nairikan
diabruben mendetik.

13/ Jauna ofenditubaz
damu andiyakin,
arrepentimentuzko
konfesiyoakin,
anima garbitzen da
penitenziyakin,
berriz ez erortzeko
propositubakin.

14/ Onela mintzo dira
sermoi guzietan,
uts egin ez dezagun
konfesiyoetan:
esamen ariñ edo
dolorien faltan,
propositu firmiak
oi direla bakan.

15/ Nere kristau maitiak,
iduki kontuban
zer ikasten dezuben
Misiyo Santuban;
nork bere gurutziak
eraman munduban,
etzaigu damutuko
iltzeko orduban.

16/ Or ekusi ditugu,
biotzak lerturik,
nola aritu diran
ezin asperturik;
oroitu ez degula
denbora ziertorik,
ez du iñork seguru
geroko betarik.

17/ Persebera dezagun
emandako itzan,
azkeneko sermoian
esan digun gisan;
txit kuidado aundi bat
biar degu izan,
ez da zer konfiatu
geroko peskizan.

18/ Artutako asmoan
ez da zer bildurto,
asi degun bidetik
ez arren biurto;
traba guziengatik
aurrera segitu,
zeruko Erregiñak
lagunduko gaitu.

19/ Gure persegitzeko
badatoz zakurrak,
beti pronto iduki
alforjan ezurrak;
aldiyan bat botzeko
ez egon beldurrak,
kobardiak dirade
animen lapurrak.

20/ Guk zenbat zor diogun¹
akordatu ongi
Aita Gerriko eta
Fausto Legarra'ri;
fedeko begiyakin
egin diye argi,
illunbetan zaudezen
pekatariyari.

¹ Bertso-paperak: *diogu*.

21/ Jaungoikuen ministro
predikadoriak,
etzan erraz topatzen
beste bi obiak;
biotzak bigundurik
oien ferboriak,
deskubritu dituzte
pekatu gordiak.

22/ Iduritzen zait ondo
konbertitu dala,
oriyen oñetara
allegatu dana;
beti gau eta egun
bazaukaten lana,
askok sentitu dute
lenegi juana.²

23/ Elkar estimatzeko
askotan esanik,
despeditu gaituzte
graziyak emanik;
barkaziyoa eskatzen
ziguten oraindik,
falta egin bazuten
gu ofenditurik.

² Bertso-paperak: *lenagi*.

24/ Au gure biotzean
etzan gutxi sartu,
erresponditu nai ta
mingañak faltatu;
etzitzaion gutxiri
negarra saltatu,
gure partez Jaun onak
detzala pagatu.

Bertso-papera, *Tolosan: Mendizabalen alargunaren Moldizteguien* argitara emana.

Bertso-paper ori bi tokitan arkitu degu, eta bietan argitaraldi bera: Chicago'ko New Library'n, Bonaparte'ren bilduman, eta Paris'en, Liburutegi Nazionalean.

Bigarrengo onek, paperaren barrenean eskuz idatzita, onela dio:

«Fait par José Martin Mikael Jaureguy, d'Irun, agé de 95 ans en 1858 et qui vient d'envoyer une pièce de vers au concours d'Urrugne».

Alegia, bertso auen egillea Jose Martin Mikael Jauregi zala, larogei ta amabost urtekoa bera 1858'an, Irun'goa; eta beste bertso-sail bat bialdua zala Urruñia'ko sariketara.

Nun izango da orain bigarren sail ori? Eta Jauregi bertsolari orrezaz argibiderik eman lezakenik bai ote da?

Bertsoetan ez da urterik esaten. Bañan eskuz idatzitako itz oietan 1858'garrena ageri da. Bearbada, orduan egingo zan Irun'go misio ori, eta bai bertso-sail au ere.

«1867»

BERTSO BERRIAK

- 1/ Abenduaren amazpiyan
artu det pensamentua,
Euskalerrian publikatzeko
gure misio santua;
Jesus maitia, argi zadazu
nere entendimentua,
esplikatzia desiatzen det
zure errukimentua.

- 2/ Misericordiaz betia dago
gure Jaun Zeruko Aita,
Loiola'tikan biraldu digu
gugana bi jesuita;
Garagarza ta Etxeberria'k
egin diguten bisita,
kristau danori manifestatzen
misorako gonbita.

3/ Maiatzen biyan arratsaldian
Oñati'ko erri noblian,
Aita oriyek jarri gaituzte
zeruetako bidian,
ditxa bat ona izan dezagun
gero eternidadian,
konserbatutzen baldin bagera
Jaungoikuaren legian.

4/ Modu onetan misio ari
asiera emanikan,
mandamentuak esplikatutzen
egin du alegiñikan,
gure animak ateratzeko
infernuko bidetikan;
ez genduke nai izaterikan
Luzifer gure kapitan.

5/ Saiatu zera alegiñian
zu, Aita Etxeberria,
predikatzeko etzuan falta
bear zan jakinduria;
itz apaindurik ezarri bage
dana fedeko egia,
erakutsi du nola serbitu
guzion Salbadoria.

6/ Apostoluen antzekua da
oriyen ofiziyua,
erakutsitzen zer moduz egin
bear dan konfesiya;
gogo onakin egin dezagun
oien informaziya,
desterratua gelditu dedin
etsaien tentaziya.

7/ Predikatzeko intenziyuan
pulpituan oi zan sartu,
bide onean anima jartzen
beñere etzan aspertu;
pekatuaren sustrai gaiztoak
ongi zituan aztertu,
ez dakit nola gure amorez¹
pulpituan etzan lertu.

8/ Jaungoikoaren ministro aiek
gugatik dira kansatu,
anima asko gaixo zeudenak
oso ditue sendatu;
osasunean iraun dezaten
gauza on bat due pensatu:
orregatikan kongregazio
santua due fundatu.

¹ Bertso-paperetan: *ez daki*.

- 9/ Agregatzia nai izan zuen
Oñati'n dauden jendeak,
dudarik gabe erdiak baño
geiago kongreganteak:
Marian alabak, San Luisen sen
ta Jesusen amanteak,
San Estanislao orrenak berriz
gaztetxo inozenteak.
- 10/ Gauza onela zuzendu eta
egin zuten bereala
solemnidade guziarekin
komunio jenerala;
millaka ziran rezibitutzen
gure Jaun Jesus leiala,
San Inazion seme ariek
egin due egiñala.
- 11/ Guziz andia izanagatik
San Migelgo parrokia,
egun bietan izan ere da
nork okupatu tokia;²
erbestekuaeren asistenzia
ez da izandu txikia,
zenbat animak artu ote du
deskansua ta pakia?

² Bertso-paperetan: *nor*.

12/ Egun oietan zenbat anima
erori dira kontuan,
begi bietaraño geienak
zebiltzan iya galduan;
beste batzuek projimoagan
zeudenak gorrotatuan,
orlako asko gonbertitu da
orain misio santuan.

13/ Gogo onakin bisitatutzen
oyian zeuden gaixoak,
gustagarriyak izandu dira
eman dituzten pausoak;
guziyegandikan aienatzeko
etsai gaiztuen lazuak,
modu onetan saiatu dira
gure animen maisuak.

14/ Zori oneko Etxeberria
eta Aita Garagarza,
anima askori kendu diote
pekatuaren arantza;
kristau guziyoi eman ere bai
salbatzeko esperantza,
nork esplikatu Oñati oni
eman dioten mudantza?

15/ Gazte jendeari eman dizkigu
ikasbide guziz onak,
leial ta umil egin ditzagun
gurasoaren esanak;
meza egunero entzun dezala
komenenzia duanak,
oriek dira aldi onetan
ipiñi dizkigun lanak.

16/ Denbora aurrera zizuan eta
arratsaldeko seiretan,
negarra franko orduan bazan
jendearen begietan;
agur egiten asi zitzaigun
esanaz modu onetan:
Egunen batian izan gaitiala
alkarrekin zeruetan.

17/ Nere jendiak, egun oietan
guziok degu aditu,
modu onetan Jaungoiko ona
nola bear dan serbitu;
gure animak salbatutzeko
bide onetan segitu,
txanpon batian papera saltzen
orregati naiz mugitu.

18/ Oraingo onekin despatxatzen da
nere asunto berriya,
disimulatu zergatik naizen
ofizioz errotariya;
beste askoren antzekoa naiz
ni ere pekatariya,
Jaungoiko onak izan dezala
guzaz miserikordiya.

Bertso-papera, *San Sebastian 1867*: – *Imp. de Santiago Ugarte, Plaza Mayor* moldizte-
gian argitara emana, Paris'ko liburutegi na-
zionaletik mikrofilmez bialdua.

Paper onek, eskuz idatzita, itz auek ditu:
*1866-67. Oñati-co misioa – Aita Garagarza
ta Echeverria.*

Bertso-papera, *Vergaran: Francisco Maria
Machain-en moldiztegian, Chicago'n, Bona-
parte'ren bilduman.*

Azken bertsoak, bertsoen egillea errotaria
dala esaten digu.

Ori irakurtzearekin, Asteasu'ko Pello Erro-
taren izena gogoratuko zaio irakurleari.

Ain zuzen, bertso auen jartzalleak gaztetzat
jotzen du bere burua amabostgarren bertsoan:

Gazte jendeari eman dizkigu
ikasbide guziz onak...

Eta ala izaki Pello Errota 1867 urtean;
1840'an jaioa izanik, ogei ta zazpi urte baitzi-
tuan.

Pello Errotak etzuan bere begiz Oñati'ko mixio ori ikusiko. Bañan garai artan oitura zanez, batenbat etorriko zitzaion bertso-eske, eta esatekoak arengandik jasoko zituan.

«1868»

MISIONEAK SENPEREN¹

- 1/ Bikario jenerala
Monsieur Haranburu,²
zortzi egunez predikatzen
Senperen izan dugu;
harek eman kontseiluak
guk segitzen baitugu,
sekulako zoriona
ardietsiren dugu.

¹ Misione aipatuak izan ziren hoik, Senperen. Egungo egunean oraino, ostatueta, maiz aski entzuten dire hemen emanak diren koplak. Oraiko misioniak ordukoen betekoak direla, gauza ageria. Bainan, misionest guziek, zorigaitzez, ez baitute Laurentz... kantari! (*Gure Herria*'ren oharra. Bai beste guziak ere).

² Haramboure, bikario jenerala, Senpereko erretor ordukoaren, Larreguy jaunaren osaba, Senperera maiz etortzen ohi zena, bere ilobaren gana. Zortzi egunez pedikatzen zioten Senpertarri.

- 2/ Gizon kartsu bertutosa,
fede bortitzekoa,
arimen gonbertitzeko
Jainkoak kreatua;
orok imita dezagun
jaun horren etsenplua,
bihotzetik kasaturik,
betikotz, bekatua.
- 3/ Hirur hoita zonbait urte
duke bere adina;
lehenbiziko autora
bere ordenean fina;
gonbertitu ahal baitu
zonbeit mila arima!
Zer fortuna, guretako,
heietarik bagina!
- 4/ Fagore bat in daukuzu
Senpereko herrian,
ongi gu eskolaturik
Jainkoaren legian;
zure moralari beira
egon gare lorian,
gure hutsez oroitu eta,
oi nigarra begian!

- 5/ Misione predikari
Monsieur Eyheralde,
fermu eta fidel dena
fede onaren alde;
ongi enseiatzen baita
bekatorosen fagore,
nihon ez du deskantsurik
hek gonbertitu gabe.
- 6/ Monsieur Curutchet, bigarrena,
esplikatzaile ona,
argitu nahi baitu
iñorant den presuna;
kontseilu onen emaiten
hartua du kostuma,
irabazteko esperantzan...
sekulako fortuna.
- 7/ Monsieur Lardapide³ hirugarrena,
minixtro talentosa;
egia salbagarriak
erran dauzkigu ontsa;
kolera saindu batekin
etsai gaixtoaren kontra:
urrun atxik dezagula
haren ganik bihotza!

³ Lardapide, pedeikari sarkorra, hasarre maiz agertzen ere zena.

8/ Monsieur Cotiart,⁴ laugarrena;
zorionezko mihia!
Gogoan atxik dezagun ongi
horrek erran egia!
Gauza guzien gainetik
kontserbatuz fedia,
hartarikan egiteko
zerurako bidia.

9/ Oro autor onak dira,
prestu aprobatuak,
obra onak dela medio
munduan maitatuak,
konfonditu baitituzte
hoik gure bekatuak;
errekompentsa detzala
zeruetako Jainkoak!

10/ Obligazione diogu
gure Jaun Erretorari,⁵
kontu egiten baitio
bere populuari;
ikusirik baginela
hainitz arima eri,
miriku onak ekarri tu
gaitzaren sendagari.

⁴ Cotiart, misionesta: pedeikari bipila; haurrek bezala, mihi mutturra beti ateraia omen zuen. Ez dakigu Laurentzen persuak sarrarazi ote zioen behin betikotz.

⁵ Larreguy jauna, Haramboure jaunaren iloba, erretor

11/ Zuk in duzun fagoreaz
arras kontent gare;
gure bizi guzian
oroituko ahal gare!
Hasia dugun obra huntan
trabailatzen bagare,
elgarrekin sekulakotz
urus izanen gare.

12/ Kantu hauien emailea
da Laurentz⁶ Senpereko;
Senpereko bai, bainan
ontasuna xumexko;
ofizio huntarik
ez dut handituko...
Present igortzen ditut hauk,
nitaz orroitzeko.

aipatua, gizon pullita osoki. Senpereko elizan asko obra eginik, eta zor puska bat eliza horri utzirik ere, San Andreseko eta Kaputxinetako elizan erretor eman zuten, eta gero San Luisen, eskola hortako lehen buru, Baionan. Han hil zen.

⁶ Laurentz Paparro, pertsularia. Haren alaba bat bizi da oraino, pixkorrik, Senperen, Amotz Xoanaenean, bere haur eta haurren haurrez inguraturik eta ongi maitaturik.

Ez dakit zertako, bainan *Krik* erraiten omen zioten Laurentzi. Konttin zaharrarekin, oihanean, zur-lantzen arizana zen, denboran, eta kondatzen ere dute haren ateraldi pullit hau.

Astelehen goiz batez, bezperan sobra... pertsu emanik ostatuan, edo batre holakorik ere gabe, Senpertar egiazko batek hola egin behar duelakotz, maltso maltsoa etorri zen oihanera (oihanak baziren orduan oraino Senperen).

Konttin, zail eta mehe eta goixtiar, harat hunat zabilan, kexu kexurik. Pertsulari bati mintzo eta, hari hola egitea ongi dohan bezala, oiuhu batean erran zion, ditzoka:

– Hots, alo, Krik,
hi beti lehenik.

Bai eta zaluxko (mihi mutturra zangoak baino erneago zuelakotz Laurentxek), zaluxko ihardetsi baitzion langileak nausiari, ditzoka harek ere:

– Ez dakik
hik
nausiak behar duela jin *lehenik*,
nahi badu langiletarik
gauza onik?

Bai eta Konttin hartan ixildu. Ateraldi pullita osoki eman zuen hoi Laurentxek, eta segur egia dela: *Xemartinek* kontatua daut, aldi batez bazkal ondoan...

J. BARBIER

«1879»

BIZI BEDI JESUS,
ILL BEDI PEKATUA.
1879'GARREN URTEAN

- 1/ Jainkoari eskerrak,
aurtengo urtian
mixiyoa izan da
Elgoibar'ko errian;
asko edo geienak
bageunden premian,
konseju on batzuek
entzun bearrian,
ibillitzeko zuzen
zeruko bidian.

- 2/ Inaziyo aundiyaren
seme umilde bik,
predikatu digute
gure onagatik;
makiñatxo bat egi
entzun da aiengandik,
biyak deitu digute
biyotz-biyotzetik,
gu guziyen animak
salbatzeagatik.

3/ Ala Aita Legarra'k
nola Etxeberria'k,
azaldu dizkigute
argiro egiyak;
idiki diyezkatte
askori begiyak,
bai eta eman ere
klaro notiziyak,
nola irtengo geran
gaitzetik guziyak.

4/ Esamiñaturikan
kuidaduairekiñ
zer aginteren kontra
dan pekatu egiñ,
akusatuko gera
konfesoreakiñ,
baliatzen gerala
gu jaun oriyekiñ,
beren konseju eta
abiso onakiñ.

5/ Damuzko konfesiyo
orren ondorian,
penitenziyak egiñ,
al degun gayian,
umillatu gaitezen
Jaunaren aurrian,
komuniyo santura
joaten geranian,
edukiyaz begiyak
modesti onian.

- 6/ Aita Etxeberria'k
digu esplikatu
emendikan aurrera
nola gobernatu;
zeruko gloriyara
nai badegu sartu,
al danik sarriyena
ongi konfesatu,
eta asmo firmeak
biyotzean artu.
- 7/ Aita Etxeberria
ta Aita Legarra,
Elgoibarren izan da
jaun oien bearra,
alde batez uzteko
gure bide txarra;
ekusi ez dezagun
infernuko garra,
danok beagu egiñ
barrendik negarra.
- 8/ Legarra mintzatu da
euskera klaruan,
zer tormentubak dauden
beti infernuan;
dei amoriyozkoak
eduki goguan,
penitenziya egiñ
obe da munduan,
ez ill ta bereala
su-garretara jua.

- 9/ Milla eta milloika
urteak pasarik,
an ez ditekeala
izan deskansurik,
askotan entzun degu
Legarra'ren aotik;
suba izango dala
alde danetatik,
apartatze'ezpagera
laster pekatutik.
- 10/ Legarra'k deitu digu
ill ta ondorian
arkitu beagula
Jaunaren aurrian,
kontubak ematera
bakar-bakarrian;
an juzgatuko gaitu
zuzentasunian,
bakoitza bere obren
konformidadian.
- 11/ Bitatik bat izango
da sentenzi ori:
zerura igo edo
infernura jatxi;
dudarikan onetan
ez dezagun jarri,
sari entzun diyogu
Legarra jaunari,
begiratu denboraz
animen onari.

- 12/ Ematera biyai
biyotzez graziak,
gaude obligaturik
zar eta gaztiak;
artu du ejenploa
erriyan jendiak,
zeren egiñ dituzten
mesede aundiak,
fundaturikan emen
funziyo berriak.
- 13/ Kongregaziyo ederra
Elgoibar'ko errian
orain jarri digute
gaztien artian;
berreun ta ogeiz goitik
guztiyak batian,
antxen agindu zuten
Jaunaren aurrian
Maria onratzea
txit gogo onian.
- 14/ Izazute atsegiñ,
guraso zintzoak,
ikusirikan zuen
alaben pausoak;
kunplituko dituzte,
bai, beren asmoak,
indarturik Birjiña
Piedadezkoak,
badira esateko
diña motiboak.

- 15/ Maestra zeratenak
kongregantietan,
eduki kuidadoa
zeren ardiyetan;
batez ere jai-egun
señalatuetan,
giyatu elizara
goiz-arratsaldetan,
eta erretiratu
Abe-Mariyetan.
- 16/ Mandamentu santubak
zintzoro goardatu,
biyotzez eta obraz
Jainkoa amatu,
bai eta gurasoak
gogotik onratu,
justiziyako jaunak
ere errespetatu;
Aita Etxeberria'k
onela esan du.
- 17/ Jaunaren Ministroak
gero apartian
reberentziatzeko
ardura aundian;
naiz dala elizan ta
orobat kalian,
umillak izateko
aien prezenzian,
ibilli nai badegu
ejemplo onian.

18/ Sermoi azkenekuan
ziguten eskatu,
Jesusi egiteko
guziyok erregu,
Konpañikoak ditzan
Loiola'ra bildu;
berak ere ordañez
digute agiñdu,
gogoan, aztu gabe,
edukitzea gu.

19/ Agur, Aita maiteak,
beste bat artian,
ongi bizi zaitezte
Jaunaren grazian;
etortzen baziñate
askorik sarrian,
artuko zinduzkegu
borondate onian,
zerura joateko
guziyok batian.

20/ Oraingo onekiñtxe
nai nuke bukatu,
nere indar eskasak
dirade nekatu;
obeto eziñ nuan
gauza esplikatu;
erdizka deseoa
det bada logratu,
Kaietano Etxaniz'en
okerrak barkatu.

Bertso-papera, *Tolosan: Eusebio Lopez'en moldizteguian* argitaratua, bertako Baleriano Mokoroa zanaren paperetan azaldua eta beraren seme-alaben eskutik jaso.

Azken bertsoak, egillearen izen-deiturak ematen dizkigu: Kaietano Etxaniz. Elgoibar'ko abizena, ain zuzen. Emezortzigarren bertsoak dionez, eskaera berezia eragin zioten misiolari jesuitak jendeari azken sermoiean:

Jesusi egiteko
guziyok erregu,
Konpañikoak ditzan
Loiola'ra bildu.

Izan ere, 1868 urtean, Isabel II bota eta gobernu berria jarri zan España'n. Agintari oiek erbestera bialdu zituzten jesuitak.

Loiola'n bi bakarrik gelditu ziran: Aita Jose Maria Garziarena eta Aita Martin Goi-koetxea, ango kapellautza egin zezaten Gipuzkoa'ko diputazioak izendatuta. Zenbait Anai ere bai aiekin batera.

Bañan denbora asko gabe, Azpeiti'ra pasa izan bear zuten, Ibero'tarren etxera.

1870'an, karlistak lenengo altxa-aldia egin zutenean, liberalak Loiola'ko giltzak kendu egin zizkieten jesuitai, eta Aita Garziarena Donosti'ra eraman eta kartzelan sartu; eta, ezeren kulparik billatu ez bazioten ere, bi illabetez preso eduki.

Ondoren, Azkoitia'n jarri zan bizi izaten jesuita-mordoxka ura.

1873'an, karlistak ia probintzi osoa beren mende baitzuten, Lizarraga jeneralak Loiola'ko giltzak ostera Aita Garziarena'ri ematea agindu zuan.

Karlisten ospilata biurtu zan Loiola'ko etxea gerra-denboran, eta an ziran jesuita bakan oiek erituen kapellau izan ziran.

Gerra bukatutakoan, 1876'an, Loiola ustuegin bear izan zuten jesuitak ostera ere.

Urrengo urtean, ango kapellautza egin zezaten obispoak izendatuta, bi Aita etorri ziran, bi Anairekin.

Bertso auek, izenburuak dionez, 1878'an jarriak dira. Orduantxe zebiltzan jesuitak gobernuarekin artu-emanetan, Loiola'rako baimena lortuko ote zuten.

Urrengo urtean, 1880-eko Garagarrillaren 19'eko aginte batez, zabaldu zitzaizkien ango atek.

Loiola'ko etxea artean bukatu gabe zegoan. Andik bost urtera asi ziran langintza ortan. Orduko bertsoak eta kankak badira.

Argibide auen iturria: *A. Lesmes Frías: La provincia de Castilla de la Compañía de Jesús, Bilbao, 1915.*

BERTSO BERRIAK
EIBARREN JARRIAK

1/ Eibarren misiyuak
eduki onduan,
bertso bi paratzia
artu det goguan;
Jesus, lagun zaidazu
biar dan moduan:
zuen naitasuna zein ¹
aundiya dagan.

2/ Zure laguntzarekin
au da asiera,
anparatzalle baten
biarrian gera;
anima biur dedin
zeruko bidera,
esan digute nola
kontuak atera.

¹ Bertso-paperak: *naitasunak*.

3/ Iru ministro aurten
Eibarren gurekiñ,
sermoi ta konfesiyo
ibilli dira fiñ;
anima garbitzeko
ainbeste alegiñ,
korputza etsaiagandik
apartatu dediñ.

4/ Orra Aita Jauregik
zer borondatia,
urratu dezagula
Judasen katia;
zer egin biar degun
on da esatia,
animak izan dezan
betiko pakia.

5/ Bi lagun bazituen
bere modukuak,
Jaungoikuak mundura
bialdutakuak;
birtute aundiya du
oien talentuak,
esan digute nola
atera kontuak.

6/ Bat bizkaitarra ta bi
gipuzkoanuak,
irurak ere dira
gizon umanuak,
biotz umillak eta
memori sanuak;
erakutsi digute
dolore damuak.

7/ Orra artzai umillak
ardiyen guardiyan,
anima jarri dedin
estadu garbiyan;
asko arkitzen giñan
oriyen premiyan,
predikatu digute
Eibar'ko erriyan.

8/ Gau ta egun predikatzen
alako nekian,
erbestetik jendia
bidiak betian,
oien deiak entzuten
umill ta pakian;
fabore izandu da
askoren artian.

9/ Apostoluen gisa
dute ofiziyua,
esan digute nola
dan konfesiya;
damu egiazkua
da kontriziyua,
obra onekin gero
satisfazyua.

10/ Lenengo komuniyo
santuan ziraden
iru milla persona
konfesatzen emen;
predikatu digute
umiltzeko arren,
anima infernura
bialdu baño len.

11/ Beste bi lagunekin
zan Aita Jauregi,
gure zori onian
azaldu zan ori;
umildade guzian
segitzeko ari,
orra zenbat nai zion
pekatariari.

12/ Obra onetan geunden
bastante oztuak,
oraiñ gelditu gera
oiekin poztuak;
utzi alde batera
munduko gustuak,
gloria gozatzeko
anima justuak.

13/ Asko engañatuak
geunden pikardian,
predikatu digute
Eibarko erriyan;
kongregaziyua oraiñ
guziyen erdiyan,
jendiak iraun dezan
bizitza garbiyan.

14/ Jende asko sartu da
kongregaziyuan,
ez segitziagatik
lengo biziyan;
pekatuko bidia
da okasiyan,
onik eziñ billatu
gaizto preziyan.

- 15/ Mariaren alabak
juntatu dirade,
semiak bildu digu
San Luisek ere;
medallak eta zintak
dituzte señaile,
pakian bizitzeko
fediaren alde.
- 16/ Bandera onekin ondo
nai badezute juan,
ibilli errespetoz
ta erretiruan;
zer kondiziyo diran
eduki goguan,
anima sartu dedin
betiko zeruan.
- 17/ Lenengo kabilduak,
gero justiziya,
oien burutik zuten
lan ori asiya;
borondatez jartzeko
nai duen guziya,
animak izan dezan
betiko graziya.

18/ Ezta aski artzia
medalla lepuan,
gorputza elizan da
biotza kanpuan;
guazen umildadian
gabiltzan lekuan,
ori desiatzen det
oraindañokuan.

19/ Guazen, nere gaztiak,
umil ta pakian,
deskuidatzen bagera
gerentzat kaltian;
anima sartu dedin
zeruko atian,
guk ere nai genduke
zuekin batian.

20/ Iru misiyoko dira
Eibarren azaldu,
obra onak dituzte
guretzat zabaldu;
esan digute nola
etsaiak bialdu,
anima kulpa gabe
eztediyen galdu.

21/ Umildadia degu
gauza prezisua,
au da Jaunak bialtzen
digun abisua:
Jesus ezaguturik
guztiyen maisua,
ofenditzia dala
pekatu pisua.

22/ Orra bertso berriyak
pena ta alegriya,
iruki dezagula
anima garbiya;
Jaunaren bitarteko
jartzen det Mariya,
izan dezaten guzaz²
miserikordiya.

Bertso-papera, *Vergaran: Francisco Maria Machai-en moldiztegiuan*, Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldua.

Urterik ez da ageri; bañan Xenpelarren zenbait bertso-sail moldiztegi ortan argitaratu ziran, eta bertso auek ere garai berekoak izango dira.

Ez da emen Eibar'ko euskerarik agertzen. Erbestera joango ziran bertso eske.

² Bertso-paperak: *guzan*.

BERTSO BERRIAK
LOIOLA'KO MIXIO SANTUARI
ABITAÑEK JARRIAK

- 1/ Loiola'n izan dira
mixiolariyak,
Inazioren seme
ondragarriyak;
animen onerako
dira etorriyak,
ez dira suertatu
talentuz urriyak:
iru ministruak
langille egokiyak,
ze gizon argiyak,
izketan garbiyak,
konbertitu gaitezen
pekatariyak.

2/ Guri erakusteko
zerura bidia,
mixonistak artu
dute idia;
lotan zeuden animak
ai zer mesedia,
oraiñ iritxi degu
deskansu obia;
jaun oien fedia
neurrik gabia,
biguntzen jendia
saiatubak dia,
zer gauza ederra dan
karidadia!

3/ Ain dira itxusiak
gure pekatuak,
zeru-lurren erregek
debekatuak;
oraiñ da denbora ta
atera kontuak,
gero izan ez gaitezen
madarikatuak;
birtutez goituak
ditu medituak,
ondo adituak
gera geldituak,
kunpli ditzagun amar
mandamentuak.

4/ Saiatu egitera
jaun oien ordenak,
itxumen triste ontan
bizi geranak;
prezisokuak dira
animaren lanak,
arrapatu ez gaitzan
Luziferren trenak;
munduan geienak
gaude antzemanak
ez dirala onak
infernuko penak;
gero ez du damuko
portatzen danak.

5/ Fedeko kontubetan
gaude txit oztubak,
lujo ta soberbiyaz
aberastubak;
Jesusek esaten du
altxarik eskubak:
ez egoteko bide
onetan aztubak;
aiñ dira estubak
azken apustubak,
ez egon poztubak,
esan sinistubak:
Danok neurtuko gaitu
juez justubak.

6/ Eginkizun aundiyak
ditu gurasuak,
igualmente aien
ume gaixuak;
biyak dirala gauza
txit peligrosuak,
ala esan digute
relijiosuak;
badatoz plazuak,
ez oso gozuak,
mudatu pausuak,
egiñ errezuak,
guziyok nai genduke
suertosuak.

7/ Lujuriyaren kontra
gogor itz egin du,
gaur zenbat inozentek
uts egiten du;
len okerrak geranak
al bada zuzendu,
oraiñdikan eztala
uste det berandu;
biotza bigundu,
bizi-uak kendu,
ordena eman du,
nai badegu ondu,
ojala au egingo
baldiñ bagendu.

8/ Bost gauza prezisoak
ditu esamiñak,
satisfaziyua lan
ondo egiñak;
zuzen akusatzeko
lengo utsegiñak,
pulpitotikan ala
dira otsegiñak,
dolore samiñak,
propositu piñak,
utzirikan mañak,
gaitzerako griñak;
ori erakusten du
gure dotriñak.

9/ Egun biko gustuak
dirala meriyo,
anima ondatziak
ez du baliyo;
etsaiak serbitzeko
ezkiñaden jayo,
Jaungoikoa ez dezagun
ofenditu geyo;
ortan egon fiyo,
Jesusek au diyo,
berari zor zayo,
birtutian iyo,
izan obra onetan
boluntariyo.

10/ Kontsideratu zenbat
padezitu zuan
guregatik Jesusek
Kalbariuan;
kristau fiel guztiyak
eduki goguan
kurutz-iltzaturikan
zer moduz dagan;
bestela munduan
gaitz txarra zeguan,
zerua orduan
iritxi genduan;
ia ainbeste zeñek
egiten duan.

11/ Zerua da gloriya
aundiyak dauzkana,
bestia infernuba
gastatzen ez dana;
justuarentzat ditxa
beti zoriona,
gaiztuarentzat berriz
sekulako pena;
bigundu al dana,
ala da ordena,
damutu aurrena,
ori da onena,
gero azalduko da
saiatzen dana.

12/ Mundu triste onetan
daudela egun gutxi,
ederki asko dute
adierazi;
plazua kunplitzen dan
arteraño bizi,
akaso ilko gera
biyar edo etzi;
griña txarrak utzi,
konbertitzen asi,
fedeari eutsi,
erregu Jesusi,
nai badegu premiyo
ona iritxi.

13/ Oiartzun da Iburguren,
Aizpuru bestia,
predikadore txarrak
izan ezti;¹
egin dute obra onak
adieraztia,
jendia alegratu da
oiek iristia;
aben albistia
ez degu tristia,
izan da kostia
birtutez jaztia;
au da eskolan ederki
erakustia.

¹ Bertso-paperak: *ez dira*.

14/ Munduaren azkena
ero despedida,
guziyak juzgatzeko
eguna òri da;
Jesusek egiño du
gure eskojida:
gaiztoak eskerrera,
onak eskubira;
ai, ango partira:
txarraren perdida,
justu danak gora,
zeruko glorira;
bakoitzak irabazten
degun tokira.

15/ Loiola'n mixiyuak
diralako aurten,
Jaunari milla esker
diyot ematen;
erbestetikan askok
asistitu zuten,
ia zenbat persona
konbertitu duten;
itz onak esaten
graziya bazuten,
azkarrak izaten,
berenakiñ erten;
etzate damutuko
egunen baten.

16/ Despeditzen aстера
nua funziyua,
alkarri eskatubaz
barkaziyua;
utzi gorroto edo
murmuraziyua,
kunplitu estaduko
obligaziyua,
egĩñ leziyua,
laga sesiyua,
ausi biziya
eta okasiyua,
indartu deiñ Jesusen
bendiziyua.

Bertso-papera, Oxford'ko *Bodleyan Library*'tik, *Imp. P.M.* moldiztegian argitaratua; alegia, gure iritzirako beintzat: Azpeiti'ko Pablo Martinez'enean.

«1884»

BERTSO BERRIAK
MATXINBENTA'KO MISIO
ONDOREN JARRIAK

1/ Milla zortzireun larogei eta
au laugarrengo urtia,
pensatu degu Matxinbenta'ra
misiuak ekartia;
alegiñ asko egin izan da
obetu dedin jentia,
ikusi degu nolakua dan
orien borondatia.

2/ Loiola'ko bi ekarritzeko
artu giñuzen asmuak,
pekatariak gonbertitzeko
zabal zizkaten besuak;
artarakoxe jarri zituan
gure Jaun amorosua,
emen guziori erakusteko
zerurañoko pausuak.

3/ Gaitz asko dakar kristauarentzat
bekatuetan egonak,
aitortu damuz kendu ditzagun
barruko kezka geronak;
guk ontzat artu bear ditugu
esan dituzten itz onak,
pekatariak obetutzeko
oriek dira gizonak.

4/ Konpesatuta komulgaturik
penitenzia kunplitu,
projimuaren argaltasunak
pazienzia sufritu;
sermoi aietan esan dutena
ez egin gabe gelditu,
gero zerura jua nai duanak
bide oieri segitu.

5/ Saiatu dira erakutsitzen
Jesukristoren dotriña,
agindu dute gorde deigula
fedea bizia ta piña;
bitartekotzat jarri dezagun
aingeruen Erregiña,
gizon guztiei lagundutzeko
dauka erruki berdiña.

6/ Mundu onetan egin ditzagun
Jainkoarekin pakiak,
kolpe batian urraturikan
pekatuaren katiak;
erabaki au ematen digu
Jesusen borondatiak,
justuentzako zabalik daude
zeruetako atiak.

7/ Bi bide daude animarentzat:
zerukua da estua,
su-leizekua guztiz zabala,
badator juez justua;
gure munduko lasaikeriak
izan bear du juzgua,
Jesusek ontzat eman duana
betiko aberastua.

8/ Mixiolari Etxeberria'k
eman digun sententzia:
gure neke ta naigabietan
artzeko pazientzia;
gero ez degu damu izango
pekatuari utzia,
gure animak salbatutzeko
egin alegin guzia.

- 9/ Oien esanak, nere kristauak,
zuzen anima jartzen du,
biotza penaz baldin badauka
damutasuna artzen du;
esan digute Jainkoagana
bear gerala zuzendu,
gure pekatu itxusi tzarrak
gizona alperrik galtzen du.
- 10/ Eizagirre ta Etxeberria'k
askotan dute otsegin:
Kuidado gero mandamenturik
granorik ere utsegin;
obra onetan saiatu beti,
pekatutikan aldegin,
gure anima kondenatua
betiko izan ez dedin.
- 11/ Etxeberria ta Eizagirre
ziran predikadoriak,
gure Parroko Segurola ta
gañera konfesoriak;
pekatariak obetutzeko
iñun parerik gabiak,
erakutsitzen saiatu dira
salbatutzeko bidiak.

12/ Jaungoikuaren justizia da
zorrotza eta estua,
zuzendutzero saia gaitezen
geron bizitza-modua;
utzi dezagun alde batera
pekatuaren gustua,
gero Jesusi entregatzeko
gure anima justua.

13/ Inpernua da kartzela gogor
eta ikaragarria,
kondenatuak an izateko
beti-betiko jarria;
mundu onetan artzen ezpadu
bakoitzak bere neurria,
aren animak ikusiko du
tormentu izugarria.

14/ Mixiolari biotzekuak
zueri milla grazia,
onduta oso para dezute
len gaiztua zan guzia;
saiako gera obra onakin
gordetzen fede bizia,
au egiñikan irabazten da
etsaiakiko auzia.

15/ Jesus maitia gurutze baten
guregatian zan illa,
bere antzera gizon bakoitza
izandu bedi umilla;
bada ainbeste eraman zuan
gure animaren billa,
pekataria au adituta
artzaz akorda dedilla.

16/ Barrio ontan ez dira egon
oso denbora luzian,
bañan ipintzen saiatu dira
danok Jaunaren grazian;
esan genzake jarri gerala
betiko fede bizian,
Jesus maitia alabatzeko
betikotasun guzian.

Bertso-papera, *Azpeitian Pablo Martinez-en moldetegian* argitaratua, Loiola'n, Aita Jose Inazio Arana'ren bilduman arkitua.

«1895»
BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta
amabostgarren urtia,
misiyo santuk denbora onetan
Zarautz'en izandu dia;¹
Frai Daniel predikatzen zan bat,
Frai Juan Jose zan bestia,
pulpitutikan gau eta egun
saiatu gabe ez dia.
- 2/ Parrokiyan ziran bosteterditan
bost egunetan asitzen,
jende pobriak lanik galdu'be
eleizan ekusi nai zen;
beste lauretan arratsaldian
klase guzitikan bazen,
erdaldunentzat San Franziskuban
iru egunetan goizen.

¹ Bertso-paperak: *izandu dira*.

3/ Zenbait gizonen buruban ezta
entero gutxi kabitzen,
eleizan pozak egoten giñan
oriyen itzak aritzen;
nik ere berriz saiatu nai det
egiya zuzen jarritzen,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
espirituba argitzen.

4/ Pulpitutikan saio batzuek,
bestiak konpesiyuan,
pekatariyak nondik gabiltzan
gañera atenziyuan;
mudatu eta Jesusengana
jartzeko intenziyuan,
oiek gurekiñ portatu dira
justuen perfeziyuan.

5/ Lendabiziko itzezin zuten
esamiñaren gañian,
oso egoki eta ederki
errespeto bikañian;
konpesiyua eiteko asmua
batek artutzen dunian,
preparatuta jua dedilla
eta propositu onian.

6/ «Konpesatzera biyar jun biat»
personak badu pensatzen,
gautikan asi konsideratzen
edo burua nekatzen,
Jaungoikuaren mandamentubak
kuidadoz errepasatzen;
andikan dira pekatu egiñak
memoriyara etortzen.

7/ Mortal benial zenbat diraden
lenbizitik esamiña,
konpesatzera juaterako artu
damutasun bat e piña;
geio pekatuan ez erortzeko
intentziyon alegiña.
orduan Jainkuak barkatuko'iy²
lenago gaizki egiña.

8/ Txiki ta aundi itzez ta obraz,
pensamentuz ta dudako,
danak aparte akusatuta
diye erreglan jartzeko;
argitasun bat ona bear dala
konpesiyua egiteko,
aiek asmatu-zai egon gabe
daramana esateko.

² Bertso-paperak: *barkatuiyo*.

- 9/ Pekatubari etzaio utzi ber
beñe luzaro bizitzen,
etsai gaiztuak ibiltzen dira³
persona lotsa-azitzen;
konpesoriari esango ta're
aurrera juanda isiltzen,
eternidade guziko gero
berentzako izan dezen.
- 10/ Diabrubakiñ parte degula
emen bizitzen bagera,
tormentu txarrak guretzat daude,
a zer animen galera!
Infernu ortan iñolaz ere
berua dago kaldera,
guk ere ara juan biarko
pekatuan iltzen bagera.
- 11/ Anima baldin badaukagu're
diabrubaren mendian,
libratutzeko erakutsi dute
enpeño onak non dian;
mudatu eta abiyatzeko
Jaungoikuana birian,
pekaturikan konpesatu'be
ez eukitzeko gordian.

³ Bertso-paperak: *gaiztuak*.

12/ Personak badu pekatuen bat
lenago lotsaz utziya,
dudarik gabe ura izango da
etsaiak geldi-aziya;
Franziskoren semeak juteko diye
damutasunez jantziya,
asolbituko dutela aiek,
ez egoteko etsiya.

13/ Penitenziya artutzen dana
al dan lenena kunplitu,
konpesorien itzak gustora
muda gaitezen aritu;
gure Jesusek erakusten dun
modun aurrera segitu,
glori ederrak zuretzat daude
oiek egiten baditu.

14/ Josepetian bi bire dira
ezker da eskubi daudenak,
ezkerrekora gaizto aurkiyak,
eskuikora onenak.
Ezkerrekora agintzen zaionak
an izango ditun penak!
Emen kontubak atera biar,
artu ditugu ordenak.

15/ Zeruko atian len eta orain
San Pedro dago portero,
anima garbi dijuanantzat
ura ona da entero;
atia laister irikiko du
Jainkuak agindu ezkerro,
mantxa duanikan sartuko dala
ez izan iñork espero.

16/ Aritzalliak tamañan gera
kontuak ateratzeko,
pekatu aundiyan iltzen bagera
kondenatuak betiko;
benialakin dijuanik ere
ezta zuzenen sartuko,
purgatoriyora ark ere jun biar
ura sendatu arteko.

17/ Mundu ontara jaiotakuak
eriyotza du berekin,
azken orduan anima neurtzen
Jainkuak egingo du ekin;
diabrua zai egongo da
txinparta eta garrakin,
mantxarik badu elduko diyo
bere atzaparrakin.

18/ Aingeru guardakua eskuitikan,
ezkerrekotik etsaia,
anima zikiñ dijuanari
azkar artzeko usaia;
paltak topatzen asten bazaizka
aien algara lasaia,
orduan eztu eskaporikan
lenago zala sasoia.

19/ Anima garbi juaten danak
izango ditu graziyak,
ari birera irtengo diye
Jesus eta aingeru guztiyak;
eta San Pedrori Jainkuak berriz
atiak iriki-aziyak,
pena dutela erretiratu
biarko dute etsayak.

20/ Ikara danak juango zaizka
Josepetian sartzian,
gure Jainkuak ipiñiko du
paraje polit batian;
a zer animen edertasuna
aingeru askoren tartian,
mundu ontako bizitza piña
ezta geroko kaltian.

- 21/ Illun zeguan anima asko
egin da Zarautz'en argitu,
tortika aundiya edukiyagatik
saiatu eta garbitu;
konpesiyo on bat jeneralakiñ
erremeryuak ark ditu,
orretan ondo enpeñatuba
orain sano da gelditu.
- 22/ Frai Daniel Baertel Olite'n
guardian dagoana,
Fraia Juan Jose Maiz Arantzazuban,
orain etorri gugana;
erri ontatik abisatuta
oien premiya zeguana,
San Franziskoren semiak biyak
firme egin dute lana.
- 23/ Don Juan Migel Orkolaga eta
bere parrokiyako jaunak,
San Franziskoren seme oiekin
zuzen egin dituzte lanak;
gure anima garbitzeagatik
oriyek jardun diranak,
bederatziurrenien ejemplo txarrak
ez dira oso emanak.

24/ Don Juan Jose Gereka eta
bere justiziyakuak,
eleizakoiak entero dira,
errespeto onekukak;
alkate eta errejidore
biar luke orrelakuak,
gure Jainkuak apropos oiek
ortako egindakuak.

25/ Azaruaren ogei ta lauban
ziran misiyok asiyak,
orduan aña karga eztauka
gaur gure konzienziyak;
argitasun bat ematen digu
Jaungoikuaren graziyak,
gure Jesusek orrela nai du,
biba erritar guztiyak!

26/ Kalte aundirik ez digu egiñ
gizon oiek etorriyak,⁴
len lotan zeuden anima askori
zabaldu zaizka begiyak;
gusto duanak ikasitzeko
euskeraz bertso berriyak,
Segundo Mari Zubizarreta'k
misiyuari jarriyak.

⁴ Bertso-paperak: *Etorriya*.

Bertso-papera, *Impr. Baroja San Sebastian* moldiztegian argitara emana; eta etxe ortan bertan, Joakin Muñoz-Baroja jauna zanaren eskutik jaso.

Ogeitabigarren bertsoan aitatzen dan Aita Daniel Baertel ori (1850-1922), izlari trebea zan. Durango'ko euskal festetan, 1886'an, eta Zumarraga'koetan, 1900'an, berak egin zuan sermoia.

Ogeitairugarren bertsoan aitatzen dan Juan Migel Orkolaga apaiz jauna, Zarautz'ko bikarioa esaten ziotena, egualdiaren aldaketak aurretik igertzen oso iaioa izan zan. Igeldo'ko *observatorioa* berak jarria da. Aren bizitzaren berri eta bertsolariren batek jarri zizkion bertsoak, *Auspoa*'ren 133'garren zenbakian arkituko ditu irakurleak. Fermin Imaz bertsolariak ere egiten ditu aren aitamenak; ikus *Auspoa*, 24.

Bertsolariaren izena azken bertsoak ematen digu: Segundo Mari Zubizarreta. Bañan aren berririk ez degu iñun ere jaso al izan.

«1896»

BERTSO BERRIAK
ZIZURKIL'KO MISIOEN ONRAN
RAMONA SORAZABAL'EK JARRIAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta
amaseigarren urtian,
disponitzen det oraiñ astia
korritu gabeko lan batian;
bañan nere oraiño pensamentubak
Jauna alabatzeko nola baitian,
Beraren laguntza esperatzen det
kantak jarri bitartian.

- 2/ Mesede paregabia izan deu
Zizurkil'ko erriyan:
misionistak asi zaizkigu
predikatutzen Urriyan;
jende guziya arkitzen giñan
jaun aundi oien premiyan,
iduritzen zait danok gaudela
oraiñ estadu berriyan.

3/ Jesusen laguntzak iraun dezala
arren nere memoriyan,
kantak jartzeko arkitzen naiz ni
nezesidade aundiyan;
misiyuen sarrera ona izandu
degu illaren ogeyan,
andik azkeneraño saiatu dira
gu zerura eman nayan.

4/ Bikario jauna, bedorri aurrena
emango dizkat graziyak,
lagunakin batean iduritutzen
dauzkala ondo mereziyak;
baita ere alkate ta gañerako
ortan saiatu diran guziyak,
mesede aundiya egin digute
jaun oiek ekarri-aziyak.

5/ San Franziskoren seme leial bi
asi zaizkigu predikatzen,
atenziyuaz egondu gera
sermoi eder oik aditzen;
oien esanak akordatzian
bat egon leike arritzen,
beragatikan aстера nua
batzubek bâ're berritzen.

- 6/ Esan digute konzienziya
ondo esamiñatzeko,
egite aundina degun bezela
buruba ortan kansatzeko;
atenziyua berari aplikatubaz
beti ortan pentsatzeko,
pekatu diranak bururatuta
guztiyak konfesatzeko.
- 7/ Guk izan degun ditxarik gabe
badira asko mundun jaiuak,
pekatu orijinalaren mantxa
kendu zigun bataiuak;
geroztik egiñ baditugu ere
pekatu aundiyaguak,
oraiñ erremeditzeagatik itxoin digu
Jesusen amoriyuak.
- 8/ Pekatariyak jarri gaitian
Jaungoikuagana biurturik,
bera ofenditutako sentimentubak
biyotzetik agerturik;
geiago pekatuak ez egiteko
asmo oso bat arturik,
peligruak ebitatu ditzagun
Jesusekin indarturik.

9/ Ez arren geiago iñork luzatu
oraiñ pekatu mortalian,
desgrazi oiek lenbailen erremediatzia
obia da igualian;
egun banak'oik igaro ditzagun
etsaiakiko pelian,
bizitza kontuzkuak eriyotz ona
dakarki jeneralian.

10/ Erakutsi due lotsarik gabe
pekatubak akusatzeko,
aundiyak eta asko badira ere
batere ez eskusatzeko;
biyotzetikan barkaziyua
Jaungoikuari eskatzeko,
oiek guztiyak egin biar ditugu
guk ondo konfesatzeko.

11/ Prezisamente kunplitu biagu
ematen diguen penitenziya,
borondatezko obra onak egiten ere
saiatu al dan guztiya;
zeren gañera ekartzen dezula
Jaungoikuaren graziya,
bera serbitzen igaro zagun
mundu ontako biziya.

- 12/ Jaungoikua aĩn ona ezagututa
pekatuba egitiak,
gerentzat ortatik datoizkigu bada
ikaragarrizko kaltiak;
ofensa ori eztu merezi
guztiyon Jabe maitiak,
kariño obia agertu zigun
Jesusen borondatiak.
- 13/ Gero konbertitzekotan, pekatariya,
zu zaude errukarriya,
burla aundigua egiñaz artzen diyozu
Jaungoiko bati neurriya;
zure laguntzalle beti izango da
infernuko etsai galgarriya,
modu orretan egingo dezu¹
eriyotz bildurgarriya.
- 14/ Eskandaloko pekatuba da
ikaragarri astuna,
zergatik gauden okerrerako
oso jende ikastuna;
kontura bedi Jaungoikuagandik
anima asko ostuna,
aurrera beti izandu dedin
obra onan erakustuna.

¹ Bertso-paperak: *egin*.

15/ Konsejatzalle danak enkargatze'itue
orain kontuz ibiltzeko,
Jaunak emate'izkigun egun banak'oik
geroko baliatzeko;
obra onak egiten saia gaitian
eriyotzan alaitzeko,
preparatuta egon biagu
Jaunak nai dunian iltzeko.

16/ Jaio guztiyon animak daude
Jesusi igual kostiak,
il biar ori ala daukagu
batak bezela bestiak;
pekatariya bildurtuko du
eriyotza ikustiak,
pena emango diyo bizitza galduba
juezari erakustiak.

17/ Ikaratu biagu pekatubak Jaunari
egite'ion ofensagatikan,
obra onak egin ditzagun orain
iñoren esamesagatikan,
eternidaderako poz-konsueloa
gero ikustiagatikan,
juiziyoko egunian gerta gaitian
gu're alde eskuitikan.

18/ An ezkerrian daudenak artuko due
negargarrizko amenazua,
Jaungoiko juezak artuko diye
gorrotozko kolerazua;
bere destinuan aginduko diye
infernuko kalabozua,
sekulan geiago andik ateratzeko
kunplituko eztan plazua.

19/ Aita Zerukuak arrazoi-bide
egokiya zigun jarri:
guk geren zordunai barkatzen diyeun
bezela eskatzen diyon bedorri;²
beraz preziso barkatu biaiote
gorroto duenak alkarri,
baldin egiya salbaziyua
nai baldin badute ekarri.

20/ Beste askoren artian esan digute
gorrotatzeko maldeziyua:
Sobra dadukak Jaungoiko ona
madarikatzeke kondiziyua.
Berak kriatu ta ondorian
ori al da aziyua?
Gauza ori ala agiten dubenak
falta du juiziyua.

² Bertso-paperak: *diyon*.

21/ Jai-egunian agintzen zaigu
lanikan ez egitia,
meza ondo entzun da prokura zagon
bezperetara juatia;
obra onakin agertu diyogun
Jaunari borondatia,
ortan saiatzen danantzat gero
esperantza aundiyak baitia.

22/ Seme-alabai agintzen zaigu
gurasuak ondratzia,
ejenplua emanaz obeko degu
oraiñ ondo portatzia;
gu gerok ere gerta gintezke
oraindik ortaratzia,
gaizki dabillenak bildurtzeko du
gero bestek ordaintzia.

23/ Gurasuak ere bildurtu bitza
umiak noranai biraltziak,³
guk ere berriz gorrota'itzagun
deserretiro ta baltsiak;
geroko tranze estubak dakazki
oraiñ lasai ibiltziak,
lagun maitiak, ikara gaitzan
geren animak galtziak.

³ Bertso-paperak: *biraltzia*.

- 24/ Tunante asko dabilta orain
besteren gauzak ostutzen,
egun oik ondo igaro ezkerro
gerokuaz ez dira estutzen;
bañan ni ez nau besterenetik
ondo izatiak poztutzen,
zergatik ez daukan barkaziyorik
ezpadu bueltatutzen.
- 25/ Kostumbre txar oik ez arren artu,
nere aditzalle gaztiak,
iltzeko pena aundiyagua dakar
emen interesa uztiak;
lan ori asko ez due pensatzen
oraingo komerziantiak,
bestek eztigu ezer poztutzen
interesa izatiak.
- 26/ Gure Jainkuak merezi aña
kastigu ez digu biraltzen,
beste batzubek saiatzen dira
iñoren kredituba galtzen;
lagun projimua baju egin da
beren burubak altatzen,
gaurko egunian lan ortan gutxik
eztegu bada faltatzen.

27/ Etzaigu basta doctriña ona
aditu ta ikastia,
Jesusek nai du ejenplua emanaz
obra onak erakustia;
zergatik daukan gure anima
penatu eta kostia,
desiatzen du gloriya artzen
gu zeruban ikustia.

28/ Jesus maitiak guretzako du
amoriyo propiyua,
aren graziyan iltzen bagera
zeruba degu premiyua;
an sartu ezkeru konsuelua an izateko
arkitzen naiz ni piyua,
esperantza ortan aurrera ere
saia liteke jayua.

29/ Fraile Pedro ori izangu degu
jakinduriz betia,
suertatu zaigu orren autikan
gauza on asko jakitia;
oiek diran mediante disponitzen degu
zerua bidia egitia,
aurrera ere dotriña oik erakutsiyaz
urte askuan bizi beitia.

30/ Bere lagunari deitzen ziyoten
Frai Ugarte gaztia,
zartu ta ere orrek aña dakiyenak
munduban asko ezta;⁴
pena artzen deu jaun leial oiek
partida eginda uztia,
desiatze'iyeu urte askuan
osasuna izatia.

31/ Konformatubak utzi gaituzte
Jaunaren borondatera,
berangatikan nua oieri
milla esker ematera;
oien esanak ez aztutziagatik
nik dizkatet kantak atera,
Jesusen eta Ama Birjiñaren
laguntzarekin batera.

32/ Zeruko Aita, eskatzen dizut
grazi au errematian:
zure borondatia egin dezagun
bizi geraden artian,
iltzian zuzen zure konpañira
zerura juan gaitian,
Ramonak ori desiatzen du
beste guzikin batian.

⁴ Bertso-paperak: *ez tira*.

Bertso-papera, *Tolosa*: - *Imp. de E. López* moldiztegian argitaratua; eta Bizkai'tik, Ea erritik, Zezilio Aguirre apaiz jaunaren esku-tik jaso.

Emakumezko bat degu sail onen egillea, izenburuak eta azken bertsoak esaten digute-nez: Ramona Sorazabal bera. Baña neurriagatik ardura gutxi zuana, irakurleak ikusi duanez, Zizurkil'ko misio ori Otaño'tarren denboran gertatu bazan ere.

«1899»

BERTSO BERRIYAK
AIA'KO MISIYUARI JARRIYAK

- 1/ Kunpliturik milla ta
zortzireun urte,
larogei ta emeretzi
ez dira aparte;
Aia'n misiyu eder bat
orain eman dute,
ez dala izan uste det
askorentzat kalte,
mesede izugarriya
guri egin digute.

- 2/ Kabildoko jaun prestu
eta justiziya,
bertso bi paratzeko
artu det antziya;
badakit ez nagona
talentuz jantziya,
bañan esperatzen det
beon lizenziya,
jaun oiek onratzeko
al dedan guziya.

3/ Bederatzi egunean
borondate aundiyan
misiyua izandu da
Aia'ko erriyan;
asko egongo giñan
benturaz premiyan,
predikatu digute
euskerá garbiyan
nola sartuko geran
zeruko gloriyan.

4/ Jaun oriyek ez dira
gutxi enpeñatzen
pekatariyen billa,
galdu ez gaitezen;
eritutako anima
gaxuak kuratzen
alegiña egin dute,
au ez det dudatzen,
zerurako bidian
gu jartzeko zuzen.

5/ Don Inazio Barrena
parroko maitia,
gureganako badu
ark borondatia;
jakiñik pekatubak
dakarren kaltia,
orrek itxitzen digu
zeruko atia,
desio du guziyok
zerura juatia.

- 6/ Pekatari gaxuak
txit erruki gaitu,
argatik misiyuak
alkantzatu gaitu;
Otsaillaren amaikan
dira abiyatu,
esan digute ondo
zer moduz giyatu,
orain obraz egiten
biagu saiatu.
- 7/ Aita Guardian Gantxegi
da erakustia,
Aita Jose Ugarte
laguna bestia;
desio genduen oiek
emen ekustia,
predikadore txarrak
agertu ez dia,
nola da posible nik
alabatutzia?
- 8/ San Franziskoren seme
gizon amabliak,
erakutsi digute
zeruko bidiak;
iztun ederrak eta
memoriz trebiak,
arritu gaitu oien
abillidadiak,
ez daude nolanaiko
predikadoriak.

- 9/ Jaun oriyeu premiya
emen bazeguan,
guztiyok geunden obra
onen desiuan;
esplikatu digute
euskera klaruan,
galtzeko peligrua
nondikan dagan,
animak infernura
ez ditezen jua.
- 10/ Oien bitartez deitu
digu Jesus onak,
egin ditzagun gogoz
Beraren esanak;
osasuna dan arte
ondutzen ez danak,
arrisku aundiya dauka
ala daganak,
betiko infernuba
deskuidatzen danak.
- 11/ Erakutsi digute
beren alegiña,
zer moduz eta nola
egiñ esamiña;
baldin gordetzen bada
len gaizki egiña,
aurrera juango da
animako miña,
gero beti-betiko
infernu samiña.

12/ Nola formatu biar
degun doloria,
erakutsitzen asko
nekatubak dia;
ofenditzen dalako
guztion Jabia,
damutasuna artu
ona ta noblia,
obra au izan ez dedin
probetxu gabia.

13/ Bederatzi egun oietan
aditubak gaude
nolakua biar dan
proposituba're;
lenago zabartubak
egon bagera ere,
gelditu ez gaitezen
konprenditu gabe,
oiek ederki asko
esplikatu dire.

14/ Konfesonariyuan ez
esan gezurrikan,
engañatzeko ustian
bere bururikan;
konfesorari au
egiñakgatikan,
ar ori beti jaten
ari barrundikan,
alakuak ez dauka
deskantsu onikan.

- 15/ Egiyaz eta zuzen
egin konfesiya,
logratu nai badegu
geren barkaziya;
gezurraz kendu arren
absoluziua,
ontan segitzen bada
kondenaziua,
obrakin eman biar
satisfaziua.
- 16/ Misiyo ontan dute
ederki erakutsi,
zenbat ofentsa egiten
diyogun Jesusi;
nai ez degulako ez
badegu ikasi,
bere odolaren kostuz
ginduban erosi,
serbitu ta amatzia
ez al du merezi?
- 17/ Mundura egin ginduban
Bera serbitzeko,
bidia erakutsi
andik ibiltzeko;
pronto jarri gerade
orain segitzeko,
biaje oberikan
ez degu asiko,
ondo pagatu gabe
ez digu utziko.

18/ Enkargatu dituzte
gurasuak fuerte:
umiak ondo ezi
gazte diran arte,
peligro txarretatik
eduki aparte,
gero izan ez dedin
danontzako kalte,
nork bere obligaziyuak
zuzen-zuzen bete.

19/ Bentzitu biar ditugu
geren biziyuak,
gaitzerako dauzkagun
griña pasiyuak;
eman dituzte oiek
beren leziyuak,
egin ere bai ondo
esplikaziyuak,
zer modutan kunplitu
obligaziyuak.

20/ Konseju ederra franko
gaude gu artubak,
izan ezkerro beintzat
erreparatubak;
bestela gaude oso
biyotz-gogortubak,
Jesusek eskatuko
dizkigu kontubak,
ez pentsatu egongo
dirala aztubak.

21/ Duda gabeko gauza:
iltzen geranian,
presentatu biarra
Jesusen aurrian;
an agertuko dira
nolako obrak dian,
sentenziya emango du
bear dan legian,
non egon biar duban
eternidadian.

22/ Asko egongo giñan
animatik gaxo,
baña orain sendatuta
jarri gera oso;
etsaiak parako du
makiña bat lazo,
arren geren animan
egin zagun kaso,
berriz artu ez gaitzan
Luziferrek preso.

23/ Milla esker bada orain,
misioneruak,
ain dira gizon argi
eta umanuak;
aundiyak izan dira
beon enpeñuak,
sendatu nairik gure
animen dañuak,
zeruban sar ditzala
Jesus dibinuak.

24/ Barkatu kabildo ta
aiuntamentuban,
indar geiago ez da
gaur nere buruban;
urterik ez det pasa
nik estudiyuan,
milagrúa ez da ta
utsegingo nuan,
baña ez nuke bizi nai
fedetik kanpuan.

25/ Animo on batekin
beti gau ta egun,
asmo santu oietan
biar degu iraun;
ez dakigu noiz billa
etorriko zaigun,
misionista oiek
ditugula lagun,
amen betiko gloriya
alkantza dezagun.

Bertso-papera, *San Sebastian - Imp. de Pozo; Fuenterrabia, 14* moldiztegian argitara emana, Usurbil'ko Egiluze-txiki baseritik, Feliziano Aizpurua'ren bitartez eskuratua.

Baserri ortan bertan, beste bertso-paper bat, moldiztegi-izenik gabea, *Bertso Berriyak Getaria'ko Misiyuari jarriyak* izenburuarekin, eta bertso auek berak dituana.

Kopiatzalleak getariarrak izan ziran, lenengo bertsoan ageri danez. Aia'ko paperak 1899'garrena aparte ez dala esaten baitu; Getari'koak, berriz, 1906'garrena.

Getaria'ko paperak aldaketa auek ditu: 1/2: bederatzireun urte; 1/3: gañera seigarrena; 1/4: ez degu aparte; 1/5: Getariyan mixiyo; 1/6: eder bat eman dute; 3/4: Getariko erriyan; 5/1:Errukiturik dago; 5/2: gure Jesus maitia; 6/5: Urriko illaren ogei ta; 6/6: bation abiyatu; 7/1: Goizetikan asi eta; 7/2: oien lan egitia; 7/3: Aita Iburguren da bat; 7/4: Aizpurua bestia; 7/9: ori da gure dotriña; 7/10: zuzen erakustia; 8/1: Aita San Inaziyon; 8/2: seme amabliak; 8/3: erakutsi dizkigute.



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).


27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gerjatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Erreterria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).

76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitia*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).

132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).



AUSPOA
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

MIXIOETAKO BERTSOAK – II

MIXIOETAKO BERTSOAK

II

AUSPOA LIBURUTEGIA

(165)

**Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82**

ANTONIO ZAVALA

**MIXIOETAKO
BERTSOAK
II**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1983

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipúzcoa)

Fotokonposatzalle: Lente - Estella

Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)

ISBN: 84 - 7158 - 108 - 6 (Tomo II)

ISBN: 84 - 7458 - 106 - x (Obra completa)

Depósito Legal: NA. 639 - 1983

Julio 1983

ARKIBIDEA

(1899) Bertso Berriak bear dan baimenarekin Franzisko Arregi'k jarriyak.....	9
(1901) Bertso Berriak Tomas Olano'k ja- rriak.....	13
(1907) Bertso Berriak: «Milla bederatzi eun gañera zazpiya...».....	23
(1908) Bertso Berriak Zumaia'ko Misiyuari ja- rriyak.....	29
(1908) Bertso Berriak Mutiloa'ko Misio San- tuari 1908'garren urtean jarriak.....	37
(1909) Bertso Berriak Errezill'ko Misio San- tuari jarriak.....	43
(1909) Bertso Berriak Arsubaga zarrak ja- rriak.....	53
(1912) Bertso Berriyak Orio'ko Misiyuari ja- rriyak.....	63
(1912) Jesusen Konpañiako Aita Aizpuru eta Basabe misioneruei jarriak.....	71
(1916) Bertso Berriak Zumaia'ko misiyuari ja- rriak.....	77
(1920) Bertso Berriyak Oriyo'ko Misiyo San- tuari jarriyak.....	85
Belguntzaren oroigarri: «Aita Jaun Goikoaren Seme Jesusekin...».....	97
Bertso Berriyak Usurbil'ko Mixiyuan omenez Aizarna'k jarriyak.....	103
(1935) Bertso Berriyak Marzial Urtxegiak ja- rriyak.....	111
(1950) Mixio Santuaren oroimenean Nekaza- bal'ek Zarautz'en, 1950'garren urtean.....	117
(1956) Bertso Berriak: «Bertso berri batzuek jartzera nijua...».....	127
(1965) Bertso Berri-berriak gure Mixiyoari ja- rriak Donamaria'n.....	131
Zenbait bertso ta doñu.....	139

«1899»

BERTSO BERRIAK
BEAR DAN BAIMENAKIÑ
FRANZISKO ARREGI'K JARRIYAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta
emeretzigarren urtian,
mixiyo on bat izandu degu
Ernani'ko parrokian;
jendia franko konbertitu du
beatziurren batian,
pena aundirik ez du izango
beste mundura joatian.

- 2/ Mixiyu orrek egoki egiñ
dizkigu esplikaziyuak:
ametitu ezkeru gaztetandikan
artze'irala biziyuak;
zertako diran juramentubak,
itz lasai ta okasiyuak,
orrelakorik ez egiteko
diyo orren konfesiyuak.

- 3/ Mixiyo ori nere ustian
etzaigu gaizki mintzatu,
zabartu eta gauden guziyak
orrek nai ditu zintzozu;
nun edo nola utsegiñ degun
asitzerako pentsatu,
pekatu danak konfesatzia
ez gaitezela lotsatu.
- 4/ Lotsaz utzita dauden pekatu
danak esan bear dia,
kristau katolikuak orrengana
izan dezagun fedia;
pekatariyai ipiñitzeko
txuxen zerura bidia,
Jaungoikoaren ministro oiek
ala daukate idia.
- 5/ Errezatu ezkeroz Ama Birjiñak
gu gaitu anparatuko,
etsai gaiztuai geren animak
eztiyen entregatuko;
zeruban dauden santu tartian
giñakiela sartuko,
tokatzen eztan liburu txarrik
ezpagenduke letuko.

6/ Ojala orren sermoiak ezpa-
liake izango alperrik,
ontaz aurrera elitzake egingo
lenago bezela okerrik;
eztaguela dantz itsusiyak
eta balsio biarrik,
modu orretan dabilzanentzat
esana dago ederrik.

7/ Lapurreriyen ibiltzen gera
amaika kristau munduko,
zenbait personi jeniyo txarrik
beñere etzaio kenduko;
modu orretan projimoari
eztiyogu lagunduko,
orren sermoiak orla adituta
ez ote gera onduko?

8/ Mixiyu ori gaizki mintzatu
danikan eztereizkiyot,
orren kontrako itz gaitztorikan
ez dizagun esan iñork;
pekatu egiten erraza dala
erozeñi aitortzen diyot,
ontaz aurrera ontze'ote geran
saia gaitezen guziyok.

9/ Mixiyu orrek pekatariyai
artzeko borondatia,
arkitzen zaio bere biyotza
kariño piñez betia;
desiatzen du dana guziyok
zerura eramatia,
beatzi bertso orra ipiñi,
onekiñ erramatia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Oxford'ko *Bodleyan Library*'n.

Bertso-jartzallea, Franzisko Arregi ori alegia,
ez dakigu nor izan zan.

«1901»

BERTSO BERRIAK
TOMAS OLANO'K JARRIAK

1/ Bertso bi paratzeko
ditut abisuak,
enkargu au eman dit
gizon jakintsuak;
izan dira Jesusen
eskola-maisuak,
bi predikadore
sustanziosuak.

2/ Billafranka'ko erriko
parroko guriak,
ekarri ditu gizon
iztun dotoriak,
Jesusek jarritako
enperadoriak,
izan dira guzizko
predikadoriak.

3/ Laister artu genduen
oien aditzera:
bi gizon zetozela
gu bisitatzera,
anima triste asko
konsolatutzera;
jende asko joan zan
errezibitzera.

4/ Aita Aizpuru da bat,
bestia Ibarguren,
ai zer predikadore
ederrak diraden!
Barrak sortu dira,
premian giñaden,
ikaratu gaituzte
bi sermoi baño len.

5/ Predikatu digute
Jesusen legian,
gizonak ezin esan
itxura obian;
errespetoz ta umill
formalidadian,
oiek jarri gaituzte
zerura bidian.

6/ Munduan nola bizi
dute erakutsi
oien ejemploari
biar zaie eutsi;
relijio eder au
galtzera ez utzi,
Jesusen konpañira
nai bada iritxi.

7/ Bildur gabe otsegin
digute juateko,
satisfazio on bat
Jaunari emateko;
ez damutasun artu
ez egun bateko,
beraren eskura
iritxi arteko.

8/ Ondo konfesatuta
komulgatu gero,
penitenzia berriz
kunplitu aguro;
dudako pekatuan
ez egon luzaro,
uste izanagatik
ez gaude seguro.

- 9/ Ondo konfesatuta
gero ondorian
konsidera dezagun
gere barrenian;
Jauna errezibitu
istante berian,
alabanzak emanaz
beraren aurrian.
- 10/ Aurrerako ere artu
propositu fiña,
damutasunarekin
pekatu egiña;
erakutsi digute
ejenplo bikaña,
ondo konsideratzen
jarriko bagiña.
- 11/ Oiekin konfesatuak
bagera bastante,
emakume ta gizon
nola zar da gazte;
orien predikuak
izutu gaituzte,
orren estu giñanik
nik ez nuen uste.

12/ Gogorra izan da oien
predikazioa,
esan dute nundikan
dan salbazioa;
utzi gorrotua ta
murmurazioa,
Jesusengana artu
aplikazioa.

13/ Gu salbatzeagatik
oien deseoak,
predikatu digute
zuzen pasiyoak;
relejidadez bizi, (*sic*)
utzi biziyoak,
enkargu ori eman
dute misioak.

14/ Oien sermoietara
allegatu danak,
orain utziko ditu
orrelako lanak;
erakutsi digute
Jesusen ordenak,
premia bagenduen,
ez genden zuzenak.

15/ Lotuta badaukagu
len konzienzia,
aurten libratutzeko
da komenenzia;
anima badaukagu
pekatuz jantzia,
danak konfesatzeko
dago lizenzia.

16/ Billafranka'ko errian
eta inguruban,
asko bizi giñaden
oso peligroan;
firmatzen degu, Jesus,
zure liburuan,
bide txarrak utzita
sartzeko zeruban.

17/ Zuzen ibillitzeko
dira notiziak,
juez gogorak eman
ditu sentenziak;
ai oien talentuak
eta sustanziak,
konbertitu dituzte
dudako guziak.

18/ Desio ori zuben
bikario jaunak,
ekarri ditu bere
gustoko lagunak;
aprobetxatu dituzte
bederatzi egunak,
ain gaizki portatuta
ez dira juanak.

19/ Saia gaitzen bada
esan dedan gisan,
orren biotz gogorak
ez gaitzen izan;
presente or daukagu
begira elizan,
gu salbatzeagatik
gurutzean ill zan.

20/ Gu salbatzeagatik
bizia eman du,
zenbat tormentu eta
neke eramán du;
begiratu berari,
klaro ezagun du,
orain akordatzia
merezi ez al du?

21/ Batek senti lezake
esaten asita,
munduaren Jabia
ola ikusita:
zertako jarri degu
guk iltzez josita,
gugandik orrelakorik
ez du merezi-ta?

22/ Jesusen bi ministro
dira etorriak,
San Inazioren seme
estimagarriak;
artzeko esan dute
mudantza berriak,
ikusi ez ditzagun
istillu gorriak.

23/ Izan gaitezen bada
krsitandadekoak,
danak barkatu ditu
oraiñdañokoak;
konsiderazio au
badu Jangoikuak,
agur, Billafranka ta
Billafranka'kuak.

24/ Orra, kristau maiteak,
gero zer datorren,
erremeditu azkar
pekatu egin arren;
Jesusengana goazen
emendik lenbaitlen,
ala gerta dedilla,
biba Jesus, amen.

(1901)

Bertso-papera, *Tolosan: E. Lopez-en Moldizteguian* argitaratua, Lasarte'ko Basoaundi'n, Isabel Zuaznabar'en eskutik jaso.

Bertso-papera, *Guernica.- Imp. de Angel de Goitia* moldiztegian argitaratua. Paper au bi tokitan arkitu degu: Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman eta Donosti'ko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Aldaketa bakarra dute beren artean bi bertso-paper auek: 7/7 lerroa *beraren eskura* du lenengoak, neurrian motx gelditzen dalarik; eta bigarrenak onela zuzendu du: *beraren eskutara*.

Egillea, Tomas Olano ori alegia, ez dakigu nor izan zan.

Eskuz idatzita, berriz, Aretxabaleta'ko Tomas Etxabe'ren eskutik jaso genituan bertso aukeratuak, Usurbil'ko Feliziano Aizpurua'k bi-tartekotza eginda.

Bañan ogei ta bi bertso; 14 eta 17'garrena falta.

Aldaketak: 1/1: Bi bertso paratzeko; 6/4: bear zaio eutsi; 6/7: Jesusen konpañia; 7/7: beraren eskutara; 9/4: gure barrenian; 10/3: ondo konsideratzen; 10/4: jarriko bagiña (eta 10/7 eta 10/8 lerroetan ere berdin); 11/6: itxutu gaituzte; 11/8: enuen nik uste; 13/3: esplikatu digute; 18/1: Billafranka'ko erriko; 18/8: eztirade juanak; 21/4: ola ikusita.

«1907»

BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla bederatzi eun
gañera zazpiya,
misiyuak entzuteko
izan degu graziya;
bakoitzak bere aldetik
biar degu saia,
ea benzitzen ote degun
deabru edo etsaia,
aditu nai badegu
zeruko usaia.

- 2/ Baserriya izan da
nere konbentuba,
argatik nago onela
estudiatuba;
Zeruko Aita, eskatzen
diyot talentuba,
argi dezala nere
entendimentuba,
adoratziagatikan
misio santuba.

- 3/ Biba Kabildo Jauna,
Aiuntamentuba,
zazpi urtetikan beñ
an juntamentuba;
jendia egongo giñan
zerbait banatuba,
gure anima gaixua
sobra erituba,
oiek ekarri dute
zeñek sendatuba.
- 4/ Martxuaren laubian
orra bi misiyo,
Usurbillen egin dute
makiña bat sayo;
gauza konsideratzen
artu espaziyo,
oiek jarri digute
amaika seziyo,
jendiari denboraz
aztuzen ez bayo (*sic*).
- 5/ Aita Lapeira eta
Aita Aizpurua,
asko estimatzen det
beon anparua;
juan nai ez genduke
iñork infernua,
betiko garretara
edo tormentua,
ez degu erori biar
berriz pekatua.

- 6/ Adan eta Eba ziran
pekatura erori,
fruta jan ziyuelako
debekatuari;
enbidiya egiñ zitzaion
emakumiari,
ark esan ziyon Adani:
«Gozua da, tori»;
oraindik ere badute
kostunbria ori.
- 7/ Paraisoko atiak
ordun itxi zian,
istilluba izan zan
irikiko bazian;
negarrez urtu liteke
ori gogoratzian,
konsidera dezagun
geren biotzian,
argatik illa da
Jesus gurutzian.
- 8/ Beatziurrenian egiñ dute
taria ederra,
Usurbillen bazeguan
zerbaiten biarra;
gure anima gaixuak
zedukan negarra,
oiek egiñ diyote
etsaiari gerra,
orain mudatu ez dana
da buru gogorra.

- 9/ Erakutsi dute esamiña
oiek nola egiñ,
pekatuz damutzeko
doloriarekiñ;
propositu sendo bat
artzeko gerekiñ,
konzienziya ez bada
utzitzeko zikiñ,
anima gaixua zerura
zuzen sartu dediñ.
- 10/ Egiñ esamiña ta
artu damutasuna,
gero konfesiya
txit albait zuzena;
gero errezibitu
Sakramentu Jauna,
sartu nai baldiñ badeu
zeruban barrena,
ori da misteriyorik
dan prinzipalena.
- 11/ Ederrik aditu degu,
jaunak, sermoitikan:
onik ez datorrela
beñere gaiztotikan;
zeruban sartuko ez dala
mantxa dubenikan,
San Pedro dago portero
bakar-bakarrikan,
ala ere etzaio pasako
kontrabandorikan.

- 12/ Gaiztorako bero gaude,
onerako fresko,
fedia oztutzen ere
ari zitzagun asko;
danak mudatu eta
jartzen gera oso,
zerura juateko
oraiñ daude listo,
gu errezibitzeko
dago Jesukristo.
- 13/ Alegiña egiñ dute
bederatziurrenien,
gu ipintziagatikan
bide zuzenian;
errenditu biegu
oien esanian,
nola gabian eta
ala egunian,
gloriya gozatzeko
eternidadian.
- 14/ Asi Oriyotikan
Igeldo aldera,
Ibaeta aldian barrena
ortik Lasartera,
danetatikan dator
sermoia entzutera,
partikularra beti¹
oiena izate'da,
Usurbilko eliza
bapo betetze'da.

¹ Bertso-papera: *bati*.

15/ Jendia ibilli da
oso deboziyoz,
nola sermoira eta
ala konfesiyo;
gustora gelditzen da
Usurbil misiyoz,
berak ere dijuaz
izugarri gusto,
denbora gutxi barru
berriz omen datoz.

16/ Orra oien izketa ederra
guztiyok aditu,
esan dute gaztiak
nola dibertitu;
zarrak ere bere
ordenak baditu,
orra amasei bertso
onran eskribitu,
Antonio Esnal'ek
ipiñiyak ditu.

Bertso-papera: *Imp. y Litografía de V. Iraola* moldiztegian argitaratua, eta Usurbil'ko Feliziano Aizpurua'ren bitartez bertako Egiluze-txiki baserritik jaso.

Azken bertsoak, bertso-jartzallearen izendeiturak ematen dizkigu: Antonio Esnal.

«1908»

BERTSO BERRIAK

ZUMAIA'KO MISIYUARI JARRIYAK

1/ Milla ta bederatzi eunekin,
zortzigarrenko urtian,
misionistak izan ditugu
pekatariyen artian;
asko anima egongo giñan
deabrubaren katian,
libratu eta bide onian
betiko jarri gaitian.

2/ Zenbait gizonen buruban ezta
entero gutxi kabitzen,
eleizan pozak egoten giñan
oriyen itzak aritzen;
nik ere berriz saiatu nai det
egiya zuzen jarritzen,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
espirituba argitzen.

3/ Goizetik asita arratsalde
jaun oien erakustia,
Aita Aizpurua bat genduben da
Aita Laskibar bestia;
zumaia tarra desio genduen¹
oiek emen ikustia,
alegiña egin gabe
emendik juanak ezta.

4/ Agertu digu nolakua dan
bere desio ta griña:
nai lukiala lotan gaudenak
esnatuko bagiña;
destierrua eztaguala
guztiyontzako berdiña,
enpeñatu da erakutsitzen
nola egiñ esamiña.

5/ Atera digu ejenplotxo bat
izugarri egokiya,
itz oriyekin ia oroitzen
ote dan pekatariya:
badakigula nolakua dan
jorratzen eztan arbiya,²
alakuaren konzientziya
eztaguala garbiya.

¹ Bertso-paperak: *zumaia tarra*.

² Bertso-paperak: *ezta*.

6/ Estimatzeko diyote alkar
projimo edo laguna,
gorrotua ta bengantza txarra
eztaukagula lan ona;
batzuentzako argitasuna,
askorentzako illuna,
negargarriya izango dala
juiziyoko eguna.

7/ Daduzkagula diyo peligro
aundiak eta larriyak,
endemas ere komerziante,
baitare tratalariyak;³
lapurreta ta tabernetako
jan da eran geiegiyak,
ia nola izan al litezkian
aien animak garbiyak.

8/ Arritu gaitu predikatutzen
oien abilidadiak,
esan digute zer diran gure
munduko banidadiak;
apariantzi asko dutenak
ez diradela obiak,
konfesatzera juaten dirala
damutasunik gabiak.

³ Bertso-paperak: *tratalariya*.

- 9/ Ote liteke mundu onetan
obra oberik arkitu?
Esamiñatu ta ondorian
konzientziya garbitu;
pekatu asko izanagatik
eztedilla iñor arritu,
barkatzen zaizka damutu eta
konfesatutzen baditu.
- 10/ Esan digute ez aztutzeko
aik emandako ordenak,
ez eta ere bost kondiziyo
konfesiyo onarenak;
esamiñatu ditzagun ondo
bakoitzak geren barrenak,
denbora geigo bear dubala
pekatu asko duenak.
- 11/ Lenbizikua esamiña da,
bigarrena doloria,
irugarrena proposituba
sendua eta fuertia;
laugarrenian pekatu danak
konfesatu biar dia,
bostgarrenian gelditu dedin
satisfaziyo obia.

12/ Guraso zarrak nola ginduzen
neke aundiyan ipiñi,
au adirazten itz gutxirekin
ezta errez edozeñi.
Jangoiko onak nola biar zan
agindu ziyon Adani:
arbola ura ikututzia
etzitzaiola konbeni.

13/ Adan da Eba Paradisuan
nola ziraden gertatu,
beren ausardiz ta arrokeriz
egiñ baizuten pekatu,
gureztat zenbat oker datorren
eziñ gentzake pentsatu,
aik berak eta ondorengiak
ortikan giñan mantxatu.

14/ Berriz gaitz ori erremediatzen
Jangoiko ona asi zan,
agindu eta zeruetatik
Jesus maitea jetxi zan;
baita esan zuben nola biar zan
mundu ontako bizitzan,
eta gañera guregatican
gurutze batian il zan.

15/ Nola diraden amar justubak
beraren mandamentubak,
guardatzeko oriyek eta
aren agindu santubak;
deskuido gabe egizagula
biairan fuldamentubak,
eta atzenian nora biagun
ateratzeko kontubak.

16/ Jaungoikoa ama dezagun
gauza guziyen gañian,
juramentubak oso utzi ta
lanik ez egiñ jayian;
gurasoari onrak emanik
iñor ill lage onian, (*sic*)
lujuri, lapurreia, gezurrik
kontu zortzigarrenian.

17/ Ikusirikan asistimentu
eta gure nobleziyak,
nere aditzalle biyotzekuak,
eskerrak eta graziyak;
barkaziyua nai lukiala
eman ditu notiziyak,
baietz erantzun giñion...⁴
elizan geunden guziyak.

⁴ Papera puskatuta dago eta lerro ontako azken itza ezin irakurri.

18/ Kalte aundirik ez digu egiñ
gizon oiek etorriyak,
len lotan zeuden anima askori
zabaldtu zaizka begiyak;
gusto duanak ikasitzeko
euskeraz bertso berriyak,
oien izkun..... tzunda⁵
gazte artako batek jarriyak.

Bertso-papera, *Imp. Vda. Lerchundi.*— *Zarauz* moldiztegia argitaratua eta Oiartzun'go Larraburu baserrian jaso.

⁵ Emen ere papera puskatua eta ezin irakurri.

«1908»

BERTSO BERRIAK
MUTILOA'KO MISIO SANTUARI
1908'GARREN URTEAN JARRIAK

1/ Zeruko Aita, lagun zadazu
amabost bertso kantatzen,
Aita Ladislao San Sebastian
bear bezela ondrazten;
sei egunean aitu zaigu
bere mingaña urratzen,
gure animen salbazioa
Jainkoagandik logratzen.

2/ Mutiloa'ko erri polit bat
Gipuzkoa'n dagoana,
Ondarrabi'ko kaputxino bat
etorri zaigu gugana;
pekatariok gonbertitzea
Jesus maitearengana,
konsideratzen jarri liteke
sentimenturik duana.

- 3/ Apirillaren bederatzian
jaun au etorri zitzaigun,
amalauean berriz bukatu,
orra nun diran sei egun;
erri onetan misio santurik
lenago izan eztegun,
oraingo txanda aztu gabe
gogoan artu dezagun.
- 4/ Misio Santua izandu degu
bikario jaunak esanda,
graziak milla ematen diogu
onen premia izanda;
onen esanai segi zaiogun
okerrak jarri zuzen-da,
obra onetan saiatuakin
zerua irabazten da.
- 5/ Egun oietan saiatu gera
geren animak garbitzen,
arratsaldean berriz jakiña
sermoi ederra aditzen;
mundu onetan bear bezela
ez bagerade saiatzen,
gure Aitaren borondaterik
bestela ezta kunplitzen.

6/ Eguna baño lenagotikan
konfesioan asten zan,
arratsaldean predikatutzen
zenbateraño nork esan;
Santo Kristo bat eskun artuta
fede bizian jartzen zan,
pensatu ere bazitekean
Jesus maitea ote zan.

7/ Adan ta Ebak egin bazuten
paradisoan pekatu,
geroztik ezta mundu onetan
tentaziorik faltatu;
Jesus maiteak ezpalu gero
guzion zorrik pagatu,
zeru ederrik ezin gentzake
iñundik ere logratu.

8/ Aita Eternoak eman ziteken
amar mandamentu legeko,
Seme Jainkoa bildurrez dago
ez ote diran gordeko;
Misio santuak biraltzen digu
Jesusek bere ordeko,
pekatu guzien damutasunak
artu ditzagun obeto.

- 9/ Salbatzalleak pasatu zuan
gugatik zenbait miseri,
gurutze baten nai izan zuan
odol guzia ixuri;
juez justua juzgatutzeko
ezkerrera ta eskubi,
batzuentzako konsueloa,
sentimentua askori.
- 10/ Jesus maitea etorriya zan
gu erremeditzera,
Aita Eternoak erabakia
zeukan nunbait iltzea;
irugarren egunean
piztu zan berriz ostera,
linbuan zeuden anima justuk
andikan libratutzera.
- 11/ Pensa dezagun zenbateraño
sufritu zuan gugatik,
esku-oñak iltzez josita,
arantza gogorak burutik;
pekatarion argaltasuna
kosta zitzaion gogotik,
zeruko ateak idiki ziran
Kristo piztu zan ordutik.

12/ Piztu ta gero jua zitzagun
zeruetara emendik,
gure pausuak ikusten ditu
iñolaz ere bai andik;
buelaren ba egiteko
asmoa badu oraindik
gure lanak juzgatutzera,
Bera dago guri esanik.

13/ Mundu onetan diruarekin
emen gabiltza nagusi,
salbaziorik ezin liteke
iñundik ere erosi;
juiziyoa datorrenian
ezin jua igesi,
sentenzi onen bat bearko degu
orduan noski ikusi.

14/ Misio santu oni diogu
dotriña onak aditu,
jakin-paltaz erri onetan
iñor ezta gelditu;
bide oni aurrera ere
biar diyogu jarraitu,
zabartasunez utzi ezkeru
gero lanak baditu.

15/ Eskerrak milla mutiloarrak
gure Aita San Sebastian,
gure fedeak iraun dezala
eguzki onen azpian;
kontuz bizi ta iltzen bagera
Jaungoikoaren grazian,
zeru ederra gozatutzeko
eternidade guzian.

Bertso-papera, *Tolosan: E, Lopez-en Mol-*
diztegian argitaratua, eta Zegama'n, Inaxio
Mari Atxukarro'ren eskutik jaso.

«1909»

BERTSO BERRIAK
ERREZILL'KO MISIO SANTUARI
JARRIAK

- 1/ Milla bederatzireun eta gañera
bederatzigarren urtian,
errezilltarrak gertatu gera
sekulako suertian:
misioneruak izan ditugu
bederatzi egunian,
nerau aurrena naizelarikan
asko geunden premian.

- 2/ Loiola'kuak bi ekartzeko
asmuak ziraden artu,
gure Parroko leial maitiak
ortikan ditu logratu;
zein diran ere izentatuaz
nai det bada publikatu:
Aita Aizpuru eta Aita Lapeira,
oek biyak izan ditugu.

3/ Bertso batzuek publikatzeko
idian nago asiya,
Jaun Zerukua, eskatzen dizut
laguntza edo graziya;
konbeni bada eman zaiazu
deseo dedan guziya,
jaun oiek emen zer egiñ duten
esplikatzeko graziya.

4/ Agor-illaren emezortziyan
ziran lenbizi asiyak,
berrizko pozez gelditu giñan
aditutako guziyak;
geroztik ere segitu degu
Jaungoikuari graziyak,
biotz gogorak bageunden ere
gera biguntzen asiyak.

5/ On Inazio Etxeberria
gure Parroko maitia,
merezi luke graziyak edo
alabantzak ematia;
artzai ona ta umilla degu,
leialtasunez betia,
puntiyo ederrak zelebratzeko
bazuan borondatia.

6/ Eskerrik asko, gure Parroko
edo Bikario jauna,
len esan bezela degu
artzai leiala eta ona,
bere ardiak guardatzeko
asko enpeñatzen dana;
argatikantxen ekarri ditu
jaun oiek biyak gugana.

7/ Biba Kabildo prestuba eta
Biba Aiuntamentuba,
jaun oientzako elizarako
zer akonpañamentuba!
Guziz ederki serbitu dute
bakoitzak bere puntuan,
onra aundi bat zelebratzeko
gure misio santuan.

8/ Graziya asko merezi dute
Ayuntamentuko jaunak,
erratu gabe egiñ dituzte
tokatzen zaizten lanak;
bederatziurren ortan ez dira
ejemplo txarrak emanak,
miñuturikan faltatu gabe
asistitu dute danak.

- 9/ Ditxa aundiko misiyuba da
erri ontan zelebratu,
etsai gaiztoen eskuetatik
guziok gera libratu;
predikadore txarrak ez ditu
Parroko jaunak logratu,
oiek merezi duten moduban
eziñ nitzazke onratu.
- 10/ Onetarako ez da aundiya
nere abilidadia,
jakinduriya txikikua naiz,
estudiyorik gabia;
jaun oietako baten mingaña
baldiñ baneuka neria,
lanbide ontan egingo nuke
esplikaziyo obia.
- 11/ Konbertitzeko egiñ digute
asko ots eta enpeño,
kasi isildu ere ez dira
satisfatu arteraño;
gerogokuak lenagokua
aztu izan du baño,
orlako misiyorik etzan izango
erri ontan oraiñdaño.

12/ Erriko eta erbesteko
jende askok du segitu,
gure eliza bitarte onek
leku dezenteak ditu;
baña alare barrunen danak
gustora eziñ kabitu,
berandu samar juaten giñanak
atzetik biar aditu.

13/ Iñun izango danikan ere
iñork apenas deritzan,
jaun oiek biyak bezelakorik
predikatutzen elizan;
boza altu eta klariña
kanpai aundiaren gisan,
urrutixora adierazteko
txarrak ez ditugu izan.

14/ Jendia pranko asistitu du
albo-errietatikan:
Azpeiti'tikan, Goiaz, Bidani,
baita ere Albiztur'tikan;
pausuak pozez bota dituzte
urruti egon argatikan,
sermoi ederrak adituzteko
jaun oien biyen aotikan.

15/ Misioaren bukaerako
atzenengo jai orretan,
bidanitarrak etorri zaizku
preparatuta benetan;
goiaztarrek ere izango ziran
bada prozesiyo ortan,
kantu ederrak kantatuaz
sartu zaizku elizan.

16/ Onra eder bat merezi luke
bada Urrustill'ko erriak,
orko semiak izan ditugu
txit gizon arrigarriak;
fede santuan fuerte daude,
espirituan argiak,
erakutsitzen saiatu dira
gure zeruko bidiak.

17/ Misiolari jaun oiek guri
eman digute sententziya:
geron neke eta naigabietan
artzeko pazientziya;
gero ez dala damu izango
pekatuari utziya,
geron animak salbatutzeko
egiteko alegiñ guziya.

- 18/ Ebakitzeko esan digute
gorrotoaren zaiñ ori,
gerori egitea nai ez degunik
ez egiteko iñori;
zeruan ez gerala sartuko
egiten ez badegu ori,
sententzi ori eman ziguten
aditzen giñan danori.
- 19/ Esan digute pekatu danak
ondo konfesatutzeko,
asko ta aundiyak izanagatik
batere ez lotsatzeko;
milloika baldin badira ere
danak akusatutzeko,
Jesus maitia pozez daguala
guziyak barkatutzeko.
- 20/ Orretarako erakutsi digute
zer modutan preparatu,
bost kondiziyo zuzen da ederki
dizkigute deklaratu;
trabaju ori artzeak emen¹
iñor ez du ikaratu,
oraiñ Jesusek sari ederrez
orra guziok pagatu.

¹ Bertso-paperak: *artzea*.

- 21/ Jaun oiek izanarekin
jendiak ez du kalterik,
dana guziok para gaituzte
grazi ederrez beterik;
iñork etzuan desiatutzen
orren aguro juaterik,
erri onetan ez dute galdu
berrizko borondaterik.
- 22/ Etsaietatik Jesusengana
orra egiñ erretira,
errezilltarrak izandu degu
orlako egokiera;
engañatuta jua ez gaitezen
atzera lengo tokira,
jaun oiek emen konbeni dira
noizik beiñ sikiera.
- 23/ Deboziyuban pasa ditugu
emen bederatzi egun,
oien prediku asko jendiak
apenas uts egin degun;
konfesatu ta komulgatutzen
eziñ konta ala lagun,
nere kristauak, aurrera ere
ortan segitu dezagun.

- 24/ Dudarik gabe esan genzake
gizon abillak daudela,
biotz gogorra egonagatik
biguntzen dute bereala;
erri askotan predikatutzen
baldiñ badute orrela,
uste det gure fediak indar
obia laster duela.
- 25/ Adios, gure misionero
Aita relijiosuak,
sendaturikan para dituzte
gure anima gaixuak;
orretarako biziro daude
mediku baliosuak,
osasun ona eman deiela arren
gure Jaun amorusuak.
- 26/ Ogei eta sei bertso berritan
eman nai det despedida,
gero geiago jarriko ditut
bear aña ez badira;
relijioan eraman zangun
arturik gauden segira,
Jose Gregorio Astigarraga'k
nai lukiena ori da.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.
Damurik, ez nuan idatzi noren eskutik jaso
nuan.

Azken bertsoak bertso-jartzallearen izendeiturak eman dizkigu: Jose Antonio Astigarraga.

Galdetu eta onela erantzun ziguten:

– Errezil'ko Mugarrita baserrikoa zan. Aspaldi illa. Erriko pestetan-ta kuadrillan jardungo zan bertsoan. Baña bestela ez.

«1909»

BERTSO BERRIAK
ARSUBAGA ZARRAK JARRIAK

1/ Milla pasata bederatzireun
bederatzigarren urtian,
misionistak izan ditugu
Urrestill'go erri noblian;
guzti-guztiak jarri gaituzte
txit borondate onian,
Jaun Zerukua amatuzeko
gauza guztien gaiñian.

2/ Zorioneko illa izen da
Urrestillian agorra,
grazi ederrez apaindutzeko
gure anima legorra;
oinperaturik jarri digute
deabru portiz gogorra,
egun aubetan zabaldu dute
zeruko usai ederra.

3/ Misiyo oiek izan ditugu
bi karmelita prailliak,
jente guztia ikaratu du
oien abillidadiak;
kaburik ez du jaun oiek guri
diguten borondatiak,
oien bitartez irikiko'ia
zeru altuko atiak.

4/ Agor illaren ogetairuban
ziran lenengo sermoiak,
jente guztia bildurtzen zuten
bota dituzten egiak;
Mariagandik graziaz eta
birtutez daure jantziak,
esan digute nola garbitu
nork bere konzienziak.

5/ Kontzientzia esamiñatu,
ondo damutu aurrena,
konpesatu ta propositua
betiko artu urrena,
penitentzia egiazkua,
au degu bide zuzena;
zeruban maite artuko dute
ori egiten duena.

6/ Aita on oiek asko bidarrez
luzatu dute mingaiña,
apenas diran ari gezurrez,
ori da gauza jakiña:
«Pekatu loiak eduki arren
zeruban izarrik aiña,
betor gugana, garbituko da
oien beneno zikiña».

7/ Gizonarentzat lanik onena
anima salbatutzia,
gauza tristia izango dala
betiko kondenatzia;¹
gurutze baten Jesus onari
nola dan asko kostia,
lastima aundia izango dala
bat alperrikan galtzia.

8/ Misio oiek kurpitotikan
astian predikatutzen,
eleizan jarri begira eta
etzan besterik ikusten:
negar-malkuak begietan da
damutasuna barrenen,
Aita on oiek grazi ederrez
biotza biuntzen zuen.

¹ Esku-idatzian: *kondenatuba*.

- 9/ Barkazioko sermoi ederra
ostegunian genduban,
durarik gabe mogimentubak
biotzak egin zituban;
gorrotorikan iñork badauka
gordeta bere barruban,
ura andikan atera gabe
ez da sartuko zeruban.²
- 10/ Esan digute gaizkilliari
barkatu biar zaiola,
gure anima salbatutzeko
au gauza biarra dala;
gorrotorikan artzen bazaio
errez galduko gerala,
projimo danak amatutzeko
geren buruba bezela.
- 11/ Lapurretaren gaiñian ere
itzegin dute onela:
Errestituziyo egin biar da,
ezin salbatu bestela;
nai izan arren bueltatutzea
beti erreza eztala,
etsaiak gero arrapatzen du³
tranpak saguba bezela.

² Esku-idatzian: *artuko*.

³ Esku-idatzian: *atzen du*.

- 12/ Mundu onetan gure biritza
nunbait da guztiz argala,
projimuari pama kentzia
pekatu aundia dala;
guraso zarrak paradisuan
serpientiak bezela,⁴
murmuratzallen mingaiñ gaiztuak
engañatutzen duela.
- 13/ Ostiralian egiñ ziguten
juizioko sermoia,
ondo pentsatzen jarri ezkerro
gauza gogoragarria;
amillduko da mendi altuba,
ondatuko da erria,
desterratuba geldituko da
munduko arrokeria.
- 14/ Penitentzia egiazkua
egin dezagun munduan,
Salbadoria ukatu eta
Luzipargana ez jua.
Tormentu-pian nork egon nai du
eternidare osuan?⁵
Durarik gabe aspertuko da
betiko kalabozuan.

Esku-idatzian: *guraso paradisuan eta serpientia.*

Esku-idatzian: *eternidare guztian.*

- 15/ Amaika egun pasa dituzte
gu salbatutziagatik,
obra on asko, zenbait errezo,
predikatutzen gogotik;
durarik gabe Jesus maitiak
laguntzen die zerutik,
gure animak ateratzeko
pekatubaren, mendetik.
- 16/ Bataiatzian soñoko zuri
ederra genduben artu,
pekatubaren bidez geienak
egingo genduban loitu;
egun aubetan garbitu degu
berriz ez dediñ mantxatu,
saia gaitezen Jesus onari
sarri emanaz ostatu.
- 17/ Aita on oiek enkargu eder bat
izan goguan artuba:
gauza tristia izaten dala
anima kondenatuba;
guztiz portitza illtzen danian
eman biarra kontuba,
sarri gogora ekarritzeko
eriotzako orduba.

- 18/ Misio oien azken ederra
ikustekua izen da,
jente guztia arriturika
pozak zorutzen egon da;
erri guzia bedeinkatuta
bendiziuak emanda,
ejenplo onak erakutsita
gure artetik juan da.
- 19/ Astelenian egiñ dituzte
punzio danen azkenak,
sokorritzia pentsatu zuten
asko sufritzen zeudenak;
pranko badira asestitubak
emakume ta gizonak,
anima asko izango dira
glorietara juanak.
- 20/ Alkate jaunak asestitu du
txit morestia onian,
parruko jaunak zer esanik ez
misiuakiñ batian;
mundu onetan bizi gaitian
osasuna ta pakian,
gero San Pedrok sartu gaitzala
danak zeruko atian.

- 21/ Zeruko usaia zabaldu dute
Urrestillako errian,
Jaun Zerukua akordatu da
gu nola geunden premian;
nik biotzetik desio diet
eternidare guztian
Ama Berjiñak gorde ditzala
bere mantuben azpian.
- 22/ Jaun aundi oiek gure errira
egin zaizkigu etorri,
zeru altuko grazi ederra
berekiañ dute ekarri;
oraiñ aurrera segi deiogun
oien ejemplo onari,
ordu on baten entregatzeko
anima Jaungoikuari.
- 23/ Agindu dute gaizki egiñen
damutasuna artzeko,
egin ditugun pekatu danak
garbi konpesatutzeko:
«Milloiak baldin badira ere
ez gera ikaratuko,
Jesus maitia prest arkitzen da
guztiak barkatutzeko».

Bertso auk, Urrestil'ko Otalastegi base-
rrian jaso genituan, bertako Jose Inazio Etxe-

berria bertsolaria zanaren eskutik, beraren *Mendi-gañetik* liburua prestatzen ari giñala, eskuz idatzita.

Beste kopia bat ere eman zigun Jose Inazio Etxeberria orrek berak, bere eskuz idatzia eta aldaketa auekin:

1/3: misio santuak izan ditugu; 1/4: Urrestill'ko erri maitian; 1/5:jente guztia jarri gaituzte; 1/7: gure Jainkua maitatuzeko; 2/1: Zori oneko illa izan da; 3/1: Misiolariak izan ditugu; 3/7: oien bitartez idiki dituzte; 4/3: jente guztia bildurtzekuak; 6/3: apenas ari diran gezurrez; 7/4: batek kondentazia; 8/7: Aita on oien grazi ederra; 10/7: projimo danak alkar maitatu; 11/7: etsaiak preso arrapatzen du; 12/7: murmularien min gaiztuak; 14/4: Luziperrena ez juan; 14/8: betiko suprimentuan; 16/1: Bataiatzian soñeko zuri; 16/3: pekatuaren bidez geienok; 17/1: Aita on oien enkargu eder bat; 17/3: gauza tristia izango dala; 17/5: iltzen danian gauza tristia; 18/2: guztiontzako izan da; 18/3: jente guztia arriturikan; 19/3: sosegatzia pensatu zuten; 20/6: osasun eta pakian; 21/5: biotzetikan deseoa diet; 22/7: egunen baten entregatzeko; 23/8: danak barkatutzeko.

Jose Inazio Etxeberria'k esan zigunez, Urrestil'ko Arsuaga baserriko bertsolari orrek Inazio Maria Garagarza zituen izen-deiturak.

Asko kantatua omen zan aotik aora; bannan bertso-sallik apenas jarria, au izan ezik.

Bein batez, beste bertsolariren batekin bertsotan ari omen zan. Beste ori panparroi samarra ta Arsuaga'ko orrek onela kantatu omen zion:

Eztarri ederra du,
txit altua boza,
orrek badaduka
zenbat grandeza.
Iñori pegatzeko
orrek daukan poza!
Atzaparren dantza
aruntz eta onuntza,
badirudi komerietan
dabilen artza.

Bearbada, bederatzi puntukoa izango zan bertso au bertsolariaren aotik sortu zanean, orain zenbait puntu ta lerro falta baditu ere.

«1912»

BERTSO BERRIYAK
ORIO'KO MISIYUARI JARRIYAK

- 1/ Milla ta bederatzi eunekin
amabigarren urtian,
bi aita prestu izan ditugu
bederatziurren batian;
bizitza txarrak loturik geunden
etsai gaiztuen katian,
oien premiya zuzendutzeko
bazegon gure artian.

- 2/ Zenbait gizonen buruban ezta
entero gutxi kabitzen,
eleizan gogoz egoten giñan
oriyen itzak aritzen;
nik ere berriz saiatu nai det
egiya zuzen jarritzen,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
espirituba argitzen.

3/ Erri ontara etorri ziran
apirillen amabiyen,
S. Franziskoren semiak zeude
guzaz erruki aundiyan;
gu berriz pozez oien sermoiak
aditzeko aspaldiyan,
zer zoriona jarri diguten
aurten gure alderdiyan.

4/ Aita Maiz ta bere laguna
Aita Ugarte bestia,
gure biyotzak bigundutzeko
saiatu gabe eztia;
oiek nai dute griña gaiztuak
alde batera uztia,
ori da nola bizi biegun
ederki erakustia.

5/ Lendabiziko asi ziraden
esamiñaren gañian,
itzegiteko erraztasuna
badaukate mingañian;
gure Jainkuak jarri dizkigu
jakintasun bikañian,
egiñalian saiatu dira
gure animen onian.

6/ Jaun oiek ondo esan digute
nola egin esamiña,
utsegiteak gogora ekartzen
saiatzeko alegiña;
damutasuna biyotzetikan
eta propositu fiña,
konfesatuta satisfaziyo
gelditzia da jakiña.

7/ Egiyaz egin konfesiya,
geren biyotzak garbitu,
Jaun aundiya artutzerako
kezkarik gabe gelditu;
berriz oitura gaiztoetara
ez degu biar abitu,
bestela leiza zulo batian
erretzen jarriko gaitu.

8/ Oien deadar arrigarriyak
asko gaituzte zuzendu,
sinismen otzak beroturikan
ez gaitezela atzendu;
artzai oriya esanak beti
iñor esna-azitzen du,
gogoz aditu ezkeroztandik
biyotza sutan jartzen du.

- 9/ Utsegiteak aitorturikan
egiyaz konfesiya,
iritxitzeko gure pekatu
guziyen barkaziya;
bat bakarrikan utzitzen bada
gero kondenaziya,
au guri ondo adierazten
saiatu da Misiya.
- 10/ Ikasi degu zer diran gure
munduko arrokeriyak,
ikaragarriyak diradela
zenbaiten biraukeriyak,
baita gaztien batzarretako
dantza ta zorakeriyak;
oiek utzitzen ez baditugu
guretzat egun gorriyak.
- 11/ Mundu ontara jaiotakuak
eriyotza du berekin,
azken orduan anima neurtzen
Jainkua zuzen gurekin;
diabrua zai egongo da
txinparta eta garrakin,
mantxarik badu elduko diyo
bere atzapar zarrekin.

- 12/ Illun zeguan anima asko
Oriyo'n zaigu argitu,
tortika aundiyak iduki arren
saiatu eta garbitu:
konfesiyo onak gure barrenak
aguro zuzentzen ditu,
ori egiaz egin duena
orain pozez da gelditu.
- 13/ Guraso ona izan nai badu
egin obligaziyuak,
seme-alabai gaztetatikan
erakutsi leziyuak;
garbiyak izan gaitezen beti
utzirikan biziyuak,
indar dezala gure artian
Jaunaren bendiziyuak.
- 14/ Oiengandikan egun oietan
ondo gaude aditubak:
bizi geraden arte atera
biar ditugu kontubak,
gorde ditzagun Jaungoikoaren
Legeko Mandamentubak,
bestela gera infernuetan
betiko kondenatubak.

15/ Gure animak gauza oberik
ezin lezake arkitu,¹
konzienziya garbitutzian
Jaun aundiya errezibitu;
Jesus maiteak bere maiera
danak konbiatzen ditu,
gero bakoitzai zeru ederra
ondo egiten baditu.

16/ Misiyo Santu ortara gogo
onez genduben segitzen,
gure biyotzak biundurikan
laiste dituzte mugitzen;
oien sermoiak diradelako
egondu gera arritzen,
bertako eta auzo-erritar
asko giñaden aditzen.

17/ Anima garbi juaten danak
izango ditu graziyak,
ari birera irtengo diye
Jesus ta aingeru guziyak;
ongi etorri au izango du
munduban ondo biziya,
pena dutela erretiratu
biarko dute etsayak.

¹ Bertso-paperak: *argitu*.

18/ Guretzat zenbat on egin duben
Jaun oriyek etorriyak,
len lotan zeuden anima askori
zabaldu zaizka begiyak;
gusto dubenak ikasitzeko
euskeraz bertso berriyak,
Oriyo'n orain izandu degun
Misiyuari jarriyak.

Bertso-papera, *Imp. Quintanilla*.— *Zarautz* moldiztegian argitara emana, eta noren eskutik jaso nuan idatzi gabea.

Emengo lau bertso, 2, 11, 17 eta 12'garrena, eta 1895 urtean Zarautz'en eman zan mixioaren lau bertso, 3, 17, 19 eta 21'garrena, oso berdintsuak dira. Beste bertso oiek aurreko liburuan arkituko ditu irakurleak, 122-128 orri-aldeetan.

«1912»

JESUSEN KONPAÑIAKO
AITA AIZPURU ETA BASABE
MISIONERUEI JARRIAK

1/ Milla gañera bederatzireun da
amabigarren urtian,
misionistak izan ditugu
Plazenzia'ko errian;
umil da leial saiatu zaigu
txit borondate onian,
erakutsiaz bizi izateko
alkar serbitzen pakian,
gero ez degula kalte izango
Jaungoikuaren aurrian

2/ Lezio on bat explikatzeko
intenzioz naiz asia,
onetarako Zeruko Aitari
eskatzen diot grazia;
mundu guzian jakin dedilla
jaun orren erakutsia,
zartzarorako ez dute utzi nai
anima konbertitzia,
relijiora deseitze'ute
gaizki dabillen guztia.

- 3/ Martxo illaren bigarrenean
ziran predikatzen asi,
Jesukristoren dotrina ederra
nai digutela erakutsi:
Jaunaren amar mandamentuei
nai baldin badegu eutsi,
pekaturako griña gaizto ta
bizio txar danei utzi,
zeruetako gloria ona
nai degunak irabazi.
- 4/ Lendabiziko mandamentua
diote nola serbitu:
Jesus onaren biotz santua
bear degula maitatu;
Jesukristorik juramentuan
ez deigula iñork ukatu,
bakoitzak bere konzienzian
bear du erreparatu,
gezurrarekin Jaungoikorikan
ezin lezake engañatu.
- 5/ Irugarrenak esaten digu
jaia santifikatzeko,
premia gabe legiaz kontra
lanikan ez egiteko,
zortzian beiñ gutxienaz beintzat
meza santua entzuteko;
laugarren orrek kargu aundiaz
gurasoak onratzeko,
injuria ta gorroto gabe
denok alkar maitatzeko.

- 6/ Bostgarren ortan esan digute
projimorik ez iltzea,
ez egiteko gaitzik iñori
enda ez deseatzea;
seigarrenean ona litzake
garbitasuna zaintzea,
pensamentu ta itz eta obra
deseo txarrai utzitzea,
Jaungoikoaren beldur santuan
gorputza sujetatzea.
- 7/ Ederki asko esan digute
zazpigarrengo onetan:
kontuak garbi erabiltzeko
geure artu-emonetan;
pisuak eta neurriak ere
zaintzeko beren regletan,
zortzigarrenez ez esateko
falso testimoniorikan,
lagun urkorik ez engañatu
tranpa edo gezurretan.
- 8/ Bederatzigarren esan digute
ongi erreparatzeko,
familiako garbitasuna
ta errespetua zaintzeko;
projimuaren emazterikan
ere ez deseatzeko,
amargarrenak ere esaten du
bere reglak zaintzeko,
nor berana eztan besten interes
ondasunei utzitzeko.

- 9/ Aita on orrek ekarritzeko
pentsatu zuan gizona,
erri ontako parrokoa zan
jaun Martin du bere izena;
txit degu gizon prestua berez,
jakintsua ta zuzena,
mundu guziak aitortutzen du
egin duela gauz ona,
bide onera ipini gaitu
len okerrian geundena.
- 10/ Eskerrik asko, misio jaunak,
bisita orregatikan,
biziro asko saiatu dira
gure animegatikan,
jende guziak ezagutzen du
zein onak diran platikan,
ez dira erraz aspertzekuak
zerbait esanagatikan,
zer esan duten goguan izan
pulpitu orretatikan.
- 11/ Zar eta gazte, aberats pobre,
emakume ta gizonak,
gusto aundiaz entzun diztegu
egin diguten itz onak;
konbertiduak geratu dira
lenago dudan zeudenak,
sermoi ederrak franko egiten
pasa digute egunak,
espabilatu gaituzte ederki
lenago lotan geundenak.

12/ Amaika bertso esan dira ta
au da amabigarrena,
gauza guziak duen bezela
eman nai diot aizkena;
nere kristauak, kunpli dezagun
ministro oien ordena,
gero guziok goza dezagun
eternidade on bana,
auxen da Lete Osintxuarrak
deseatutzen duana.

Bertso-papera, *Imp. de Orúe.-Eibar* moldiztegian argitaratua, eta Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman azaldua.

Izenburua, bertso-paperean dagoan bezelaxe jarri degu guk ere; bañan bearbada aurretik *Bertso-Berriak* falta du.

Azken bertsoan egillearen deitura esaten zaigu: Lete. Baita nungotarra dan ere: osintxuarra. Plazentzi eta Bergara tartean dagoan ballarakoa alegia. Bañan bertsolari edo bertso-jartzalle orren izenik ezin emango degu; ezta bestelako argibiderik ere.

Naiko izkera gipuzkoeratua erabiltzen du. Ala ere, *orren* eta *orrek* pluralean erabiltzen ditu 2/6 eta 9/1 bertso-lerroetan. Aditza, berri, singularrean erabiltzen du, pluralean bear bazuan ere, 1/5, 11/4 eta 11/8 lerroetan. Oiek ez dira gipuzkoera jatorrez ola esaten, Beterri aldean beintzat.

Bañan Goierriko alde askotan orrela erabili oi dute aditza.

Bederatzigarren bertsoan, *jaun Martin* esaten da Plazentziako erretore jaunaren izena. Barbada *Juan Martin* bearko luke.

Izenburuan aitatzen zaigun Aita Basabe, Kandido izango zan izenez, 1867'an jaioa eta 1928'an illa, eta euskerazko zenbait eliz-liburutxoen egillea.

«1916»

BERTSO BERRIAK
ZUMAIA'KO MISIYUARI JARRIAK

- 1/ Milla ta bederatzi eunekin
amaseigarren urtian,
misiyo santuak izan ditugu
zumaiatarren artian;
saiatu dira gure animak
konbertitu bitartian,
kristau maitiak, bizitza onak
egiñaz izan gaitian.

- 2/ Zeruko Aita, laguntza-eske
Zugana biar det asi,
misiyo santu au nola izan dan
nai nuke adierazi;
pekatua zeñ itxusiya dan
ederki degu ikasi,
gaiztakeriyak utzita obe
genduke munduban bizi.

3/ Gure Jainkuak erakustera
oiek dizkigu bialdu,
zabarkeriyaz mundu onetan
kontu ez gaitezen galdu.
Gure animak begiratzia
zerbait merezi ez al du?
Orregatikan misionistak
gugana dira azaldu.

4/ Aita Laskibar eta laguna
Aita Iriarte bestia,
gure biyotzak bigundu arte
biyak aspertu ezia;
oiek nai dute pekaratuko
bide guziyak uzta,
ori da nola izan biegun
ederki erakustia.

5/ San Inaziyon seme leialak
badaukate birtutia,
esan digute: «Pekataria,
arren oroitu zaitia».
Nai ez badegu gure animak
infernura juatia,
obe degula penintenziya
bertatikan egitia.

6/ Jaun Oiek ondo esan digute
nola egin esamiña,
gogora ekartzen saiatzeko
egindako utsegiña;
damutasuna egiazkua
asko pekatu egiña,
aurrera onak izan gaitezen
artu propositu fiña.

7/ Konfesiyo'na nola egiten dan
daude adieraziyak:
aitorturikan egin ditugun
geren pekatu guziyak;
ondorenian Jauna artuta
berari eman graziyak,
gure animak mesedeko'itu
orlako irabaziyak.

8/ Gure erriko parroko jaunak
au zan desio zuana:
San Inazion bi seme oiek
etorritzia gugana;
ondo zekiyan premiazkuak
asko egongo giñana,
gu pekatutik libratu arte
gogor egin dute lana.

- 9/ Pulpitutikan egin digute
jaun oriyek alegiña,
esanaz utzi obe degula
degun gaitzerako griña;
lenbailen sendatu dezagula
gure animako miña,
obe genduke pake santuan
danok biziko bagiña.
- 10/ Eliz guziya betetzen giñan
bertako eta erbeste,
oien sermoiak arriturikan
guziyok para gaituzte;
alkarrekin gu onla jarriko
giñanik ez nuen uste,
beren izkuntza ederrarekin
pakiak egin dituzte.
- 11/ Guretzat nola liteke bada
gauza oberik arkitu?
Konfesiyo bat ona eginda
biyotzak ondo garbitu;
pekatu asko iduki arren
ez gaitezela arritu,
Jesus maitiak aitortutzian
guziyak barkatzen ditu.

12/ Amaika bider esan digute
pekatuari uzteko,
maisú leialak daude zer egin
biar dan erakusteko;
oien bearra bada munduban
relijiyuari eusteko,
esandakuak egin ditzagun
zeruba irabazteko.

13/ Kristau maitiak, egun oietan
ederki degu ikasi,
zenbat ofensa gau eta egun
eiten diyogun Jesusi;
gure pekatu izugarriyak
zuten gurutzian josi,
Berari ondo erantzutia
oraiñ ez al du merezi?

14/ Egun oietan misionistak
saiatu dira benetan,
gu pekatutik ateratzeko
biar diraden lanetan;
konbertituta jarri ez danak
emen oraingo onetan,
lanikan asko izango dute
oiek beren animetan.

15/ Konzienziyan ez degu jarri
biar al bada zakarrik,
aurrera gure biyotz garbiya
berriz zulatzeko arrik;
etsaia utzita amatu biar
degu Jainkua bakarrik,
bestela gure oraingo lanak
izango dira alperrik.

16/ Zenbat baliyo du zerurako
bidia erakustiak,
orain kontentu arkitzen gera,
lenago geunden tristiak;
zer poza guri ematen zigun
jaun oriyek ikustiak,
aurrera ondo bizi gaitezen
emengo zar da gaztiak.

17/ Etsai gaiztua ibilliko da
luzaturik atzaparrak,
gure animai eman nayian
betiko su eta garrak;
pulpitutikan esan digute
ez izateko zabarrak,
saia gaitian ondo egiten
oien konseju ederrak.

18/ Zumaia ontan izandu dira
misiyo gustagarriyak,
utzi ditzagun alde batera
oitura negargarriyak;
orra papera onetan jarri
gure arteko berriyak,
ejenplo ona zabaldu dedin
oek dirade jarriyak.

Bertso-papera, *Imp. Quintanilla* – *Zarauz*
moldiztegian argitaratua, Errenderia'n,
Erdiko-etxeko'ko Jose Antonio Berrondo'ren
eskutik jaso.

Txapel batekin bi buru ezin estali
ditezkelan esan oi da. Egia ote dan duda
egiten degu, ordea, bertso-sail onek bi
misiotarako balio izan zuan eta.

Manuel Lekuona apaiz jaunaren
bilduman, beste bertso-paper bat arkitu
baitegu, Zarautz'ko *Quintanilla* moldiztegi
ortan egiña eta aurreko paperarekin
berdin-berdiña.

Aldakuntza bakarra: aurrekoak *Zumaia*
dionean, onek *Motriku*; eta misiolarien
izenak ere desberdin.

Alegia: izenburua: Bertso Berriak
Motrikuko misiyuari jarriak. Eta 1/4:
motrikoarren artian; 4/1: Aita Lapeira eta
laguna; 4/2: Aita Jauregi bestia; 18/1:
Motriku ontan izandu dira.

Ez dakigu nork nori kopiatu dion. Izkuntza, Zumai'koa errexago izango da, Motriku'koa baño. Bañan bertsolaria etzan askotan bertakoa izaten, kanpoko jartzalle batengana joaten ziran-eta, bertsoak enkargatzera.

Arrazoi bakarra izan degu bertso auek Zumaia'ren izenean jartzeko: Zumai'ko papera oso-osorik dagoala eta Mutriku'koak, berriz, puska falta duala: amaikagarren bertsoa osorik eta amabigarrenaren zati bat, alegia.

«1920»

BERTSO BERRIYAK
ORIYO'KO MISIYO SANTUARI
JARRIYAK

- 1/ Gaude milla beatzireun
ogeigarren go urtian,
bi Aita prestu emen dauzkagu
oriotarren artian;
esan digute nola gabiltzan
geren animen kaltian,
bizitza onak egiten beti
guziyok saia gaitian.
- 2/ Jesus onari laguntza eske
asi bear det aurrena,
misiyo santu au nola izan dan
adierazi urrena;
animak garbituta jartzia
degu gauzik bearrena,
orretatikan dator guretzat
sosegurik ederrena.

- 3/ Aita Laskibar eta laguna
Aita Laspiur bestia,
gure animak sendatu arte
biyak ixildu eztia;
oiek nai dute pekaturako
bide guztiyak uztia,
aurrera nola izan biegun
ori da erakustia.
- 4/ Nola gabiltzan arriskueta
geren animak galtzeko,
esan digute kontzientziyak
danok ondo garbitzeko;
pekatu asko izanagatik
iñor ez ikaratzeko,
eskubidia badaukatela
oiek danak barkatzeko.
- 5/ Gau eta egun gu biguntzeko
jaun oriyen esatia,
kristau maitia, galdu baño len
arren gogora zaitia;
obe zenduke penitentziya
bertatikan egitia,
nai baldin badezu zeru eder
artara gero joatia.

6/ Esan digute guziyok ondo
egiteko esamiña,
pekatu danak gôra ekartzen
saiatzeko alegiña;
damutasuna egiazkua
lenago gaizki egiña,
ta aurrera zuzen ibiltzeko
artu propositu fiña.

7/ Nola konfesatu bear degun
gaude oraiñ ikasiyak,
aitorturikan gogora etortzen
diran pekatu guziyak;
bildurrik gabe esan ditzagun
izan arren itxusiyak,
gero gureztat nai baditugu
zeruko irabaziyak.

8/ Inazioren bi seme oiek
egin dute alegiña,
esaten zuten: Lenbailen utzi
zuen gaitzerako griña;
orain da denbora ta sendatu
animetan dagon miña,
edo bestela beti-betiko
gero infernu samiña.

- 9/ Egin dituben utsegiteak
ondo aitortzen baditu,
orduban bere konzienziya
egingo zaio garbitu;
konfesiyo ona izango bada
danak esan bear ditu,
nai baldin badu beti-betiko
satisfaziyo gelditu.
- 10/ Oiek diyote bildurrik gabe
konfesatzera juateko,
gogora etortzen diran pekatu
danak zuzen esateko;
damutasuna biyotzetikan
ez artu egun bateko,
baizikan gure Jaungoikúaren
aurrera juan arteko.
- 11/ Zori onian dira guretzat
misiyo oiek asiyak,
zar da gaztiak nola izan bear
degun gaude ikasiyak;
pulgitorikan ez dizkigute
egin sermoi itxusiyak,
oiei begira pozaz zorutzen
egonak gera guziyak.

- 12/ Egun oetan Jauna artutzen
izan geran jende-pilla,
biyotz garbira etortzeko zai
daukagu Jesus umilla;
saiatu gera geren animen
salbaziyuaren billa,
ditxa eder au urte askuan
goguan izan dedilla.
- 13/ Eskerrak eman bear dizkagu
misionero jaunari,
gure erriko artzai ona ta
bere apaiz lagunari,
gañerontzeko eleiza ortan
egon diraden danari,
zergatik zintzo jarraitu diyen
salbaziyoiko lanari.
- 14/ Aita oieri begira pozez
egonak orain badaude,
beren erakustiaren bidez
danok arrituta gaude;
barkaziyoiko semoiarekin
asko bigundu gerade,
len gorrotuan zeudenak zenbat
pakian jarri dirade.

15/ Misiyo santu au nola izan dan
orra nik adierazi,
pakian emendikan aurrera
askoz obe degu bizi;
bi Aita oieri eman biar
dizkagu esker milla grazi,
nai ditubenak bertso berriyak
papera ontatik ikasi.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.
Damurik, noren eskutik jaso genduan idaztea
aztu egin zitzaigun.

BERTSO BERRIAK

ERREZILL'KO MIXIO SANTUARI BAUTISTA URKIZU'K JARRIAK

1/ Bertso bi jartzeko nik
al deran moduan,
zerbait sartu nairik
gizonen buruan;
ibiltzen bagerade
pakean munduan,
mesede izango degu
eriyotzako orduan.

2/ Jesus maitagarriya
daukagu nagusi,
bere odolarekin
ginduen erosi;
amar mandamentuak
bear ditugu ikasi,
bestela infernuan
bearko degu bizi.

- 3/ Errezill'en izan ditugu
bi misionero,
oien esana ein zagun
bero eta bero;
ez pentsatu ta utzi
egiteko gero,
alperrik damua
infernura ezkeru.
- 4/ Jaun oiekin pasa degu
geren mixiyoa,
badakite oiek
zeruko ejerzizioa;
gizonak konbertitzen
daukate afiziyua,
ikasi al duanak
oien leziyua.
- 5/ Erriko apaiz guziak
dauzkagu guk onak,
milla esker merezi ditu
bikario jaunak;
aitu deiozute
zuek, nere lagunak:
sermoi gabe asko daude
infernura juanak.

6/ Bezpera ta sermoi
meza nausitara,
segitu al duanak
bada oietara;
beti konbertitzen da
piskat onetara,
bestela juan biarko du
infernuetara.

7/ Arnegu ta blasfemi
mingaiñ gaiztuakin,
iskidatu diteke
olakoarekin;
parte arturik daude
infernuaekin,
konfesatu zaitezte
mixoneroakin.

8/ Egiyazko konfesiya
beti konbeni da,
txaparro asko ortan
pasatu oi dira:
pensatu gabe juan
gabian oiera,
goizian infernuan
asko esnatu oi da.

9/ Orain esango det nik
egiya klaruan,
zer euki degun
guk pensamentuan:
ez dala atsegin izango
seguru infernuan,
emen arro ibilli arren
nork naiko du juan?

10/ Pulpitotik aitzen dira
egiya guziyak,
zeruan eta infernuan
dauden diferenziyak;
ala ere konbertitzen
ez dira guziyak,
ez aspertu beñere
sermoi luziak.

11/ Erregutu bear diyogu
guk Jaungoikoari,
konberti dezala
jendia ugari;
iya betian dago
purgatorio ori,
errezatu bear diyogu
guk orain aieri.

12/ Ai gure erlijioko
familia maitia,
San Pedrok irikiko digu
zeruko atia;
espero bear degu
ara juatia,
asko du esamiña ta
konfesio ona egitia.

13/ Maria Santisima,
zeruan zaude zu,
pekatari guzion
kargua zuk dezu;
zure billa dabillenik
utzitzen ez dezu,
bertso aben egillea
Juan Bautista Urkizu.

14/ Ona emen amalau bertso
Jaunak lagunduak,
igual gaizki esango du
neretzat munduak;
barkatzen diyet guztieri
oraindañokoak,
danok zerura gaitzela
gure Jaungoikoak.

Bertso-papera, *Azpeitiyan Martinez-tarren
moldiztegian* argitara emana, Errezil'ko
Iraola-zarra baserrian jaso.

Bertso-jartzallearen izen-abizenak amairugarren bertsoak ematen dizkigu: Juan Bautista Urkizu. Baña berari buruz ezin dezakegu ezer ere esan.

BELGUNTZAREN OROIGARRI

1/ Aita Jaun Goikoaren
Seme Jesusekin
eta Goteunaren
laguntasunakin,
Belguntza izan degu
aurten Errenderi'n;
Zufiri jaunak gogoz
euskeraz du egin,
zeruratu gaitezen
egiñaz alegin.

2/ Aita Zufiria'ren
erakutsalduyak
izango dira emen
goguangarriyak;
goiz ta arratsaldean
zitun itzaldiyak
ager dizkigu garbi
sinismen-egiyak,
argituaz itxurik
zeudenen begiyak.

- 3/ Sinai'ko mendian
goiko gure Jaunak
amar agindu ziran
Moises'i emanak:
iru Jauna gurtzera
beartzen dutenak,
zazpi lagun urkoan
alde dauzkagunak,
zuzen ibili gaiten
zentsuna degunak.
- 4/ Jabe bakarra degu
goiko gure Jauna,
zeruba eta lurrak
egin zituana;
Bera agurtutzea
lenen bear dana,
baño beste aldera
okertzen gizona,
oroitu bat aurrerantz
jaun orren esana.
- 5/ Esaten zigun: Arren
sinismena agertu,
Jaungoikorikan inoiz
ez egin ukatu;
nun-nai gizon bezela
bear dala agertu,
bere alde asteko
jarririkan gertu,
nai badegu San Pedron
atetikan sartu.

- 6/ Biraurik iñolatan
ez bota Jaunari,
arren da arren zigun
eskatu danari;
kalte gogorra orrekin
gure goguari,
txerrenak baturikan
lokatzan igari,
ipurdin muñ egiñaz
diabru beltzari.
- 7/ Gurasoari digu
garbi adierazi,
beiratzeko semeak
nola diran bizi;
sinismena sendotu
bearra lenbizi,
birau zakarrikan ez
dezaten ikasi,
Luzifer jarririkan
buru ta nagusi.
- 8/ Gaurko egun onetan
zenbat dira azaltzen,
Satanas'ek diyela
mingaña dantzatzen,
inpernu-leizeko
izkuntzaz mintzatzen;
oitura likitx ori
ari da zabaltzen,
orla etsaian mende
diradela jartzen.

- 9/ Lizunkeriya berriz
gaurko egunetan
sarturikan daukagu
guztion kaltetan;
arrokeriya jabe
dago biotzetan,
jantzian nabarmenak,
erdoia itzetan,
era orretan ezin
sartu zeruetan.
- 10/ Ikusirik Jesusek
gure aultasuna,
bazekiyen askotan
salduko genduna;
jarri zuben aitortza
sendatzen dubena,
bear dan eraz ongi
egin bear dana,
bestela zeruratzen
izango da lana.
- 11/ Aitortzeko lenbizi
bear da aztertu,
eta txiki-ustean
bat ere ez baztertu;
guzti-guztiagatik
damu on bat artu,
geio ez egiteko
gogua sendotu,
gero lasaitutzeko
guztiyak aitortu.

12/ Irudimenarekin
Luzbel'ek du saltzen,
pekatu egin arte
txiki du azaltzen;
laster itxusiturik
kezka digu jartzen,
gero aundi azalduz
lotsetan du jartzen,
aitortzeko iñora
juan ez gaitezen.

13/ Otoi arren ein digu
guzik aitortzeko,
bate kezkarik gabe
pozez bizitzeko;
lotsaturik utzitzen
badegu geroko,
gure buru guztiya
degula nastuko,
betiko gaiztokira
txirrist amiltzeko.

Bertso auek, gerra aurreko *Argia* astero-koan agertu ziran. Bañan zein egunetan ez dakigu; *recorte* batean jaso baigenituan, Andoain'go Manuel Beraza'ren eskutik.

Republika denborakoak izango dira noski; garbizalekeria indarrean zebillen garaikoak, alegia. Zenbait itzek ala erakusten digute: belguntza, Goteuna, gurtu...

Ortaz kanpora, naiko bertso jatorrak ditugu. Ez dira, iñolaz ere, liburu ontako traketsenak.

BERTSO BERRIYAK
USURBIL'KO MIXIYUAN OMENEZ
AIZARNA'K JARRIYAK

1/ Lagun batzubek esan dirate
bertso berriyak jartzeko,
neronek ere badet asmua
oien itza mantentzeko;
Misiyo batzuk izan ditugu
pekatariyak ontzeko,
asmo sendoa artu dezagun¹
Jainkua maitatutzeko.

2/ Apirillaren zazpiyan zuten
etorrera edo asera,
jende askokin egin zitzaien
berebiziko arrera;
bi Aita umill azaldu ziran
artzai onaren antzera,
Jesus onaren erakutsiyak
kristauai erakustera.

¹ *Argia'n: sendo.*

3/ Astelenian ala esan zigun:
«Kristauak anima bat du,
kontu ez dediñ bera okerrera
zuzenbidetik amildu;
mundu onetan esaterako
geienez daude bi ordu,
denpora orretan zentzuba dunak²
aprobetxatu bear du».

4/ Arreta aundiya jarri dezagun
anima salbatutzeko,
mundu (b) onetan egin ditugun
pausuai begiratzeko;
oraindañokon ibilli geran
bide txarrari uzteko,
ardi galduak izan bagera
artzaietara biltzeko.

5/ Asteartian itz egiñ zigun
mozkorkeriyen gañian,
sobra geiegi sartuba dago
gaitz ori gure artian;
eraritikan eran zagun baiña
beti biar dan neurrian,
gizona abere biurtzen baita
buruba galtzen dunian.³

² *Argia* 'n: *duna*.

³ *Argia* 'n onela ditu bertso onek puntuak: *gañean*, *artian*, *neurriyan*, *dunian*.

- 6/ Asteazkenez azaldu digu
eriyotzaren itzala,
mundu (b) ontako egintza guzik
Jesusi esan biarra;
azkenerako gauza orregatik
degu orrelako ikara,
kristauarentzat ezta izango
oso momentu ederra.
- 7/ Eriyotzako gauza aiekiñ
eztu askorik utsegiñ,
arrokeriyak zer dakarkigun
garbiro zigun itzegiñ;
sasoï oneko indar guziyak
golpe-golpera desegiñ,
gaitz orretatik iñortxok ere
ezin gentzake aldegiñ.
- 8/ Ostegunako saiua berriz
juiziyo jeneralari,
kristauak badu zintzotutzeko
zerk bildurtuba ugari;
munduban bistan geren kontuba
eman bear Juez Jaunari,
orduban ezta aitzakirikan
izango emateik iñori.

- 9/ Egun orixe izango degu
osoro bildurgarriya,
Juez justubak egingo digu
merezi dan justiziya;
lurralde ontan gabiltzan arte
bakoitzak irabaziya,
gaiztuentzako zigorra da ta
onarentzako sariya.
- 10/ Ostiralean azaldu zigun
inpernutarren larriya,
leku artantxe sartutzen danak
dauka ixtillu gorriya;
suzko leize txar izugarri bat
Jaunak propiyo jarriya,
aintxe sartzen du bide txarrari
segi nai diyon guziya.
- 11/ Eziñ deskantsau iñolaz eta
alare eziñ aldegiñ,
lagunak etsai biurtuko'ida
gutzizko gorrotuakiñ;
subak berriz dana ingurau
berotasun aundiyakiñ,
leku artantxe, ene kristauak,
ezta izango atsegiñ.

12/ Larunbatean agindu zigun
barkatutzeko alkarri,
bata bestien zima oietzaz
mintzatu zan izugarri;
lagun urkuai egiten zaizka
makiñatxo bat txarkeri,
Jaunak zerurik eztiyo emango
orrela bizi danari.

13/ Askok libre dala pentsatutzen du
malko batzuk ixurita,
lagunai barka zaiogun danok
errietari utzita;
Jesus gugatik arrenka dago
gurutziari josita,
ez ote gera akordatuko
oi orrela ikusita?

14/ Itzaldi oiek aditu eta
ondoren konpesatzera,
gure bizitzan egin ditugun
pekatuk aitortutzera;
Jesus errukiz jetxiya degu
usurbildarren tartera,
aste santuba igarotzeko
ederki prestatu gera.

15/ Igande goizen meza santura
pekatubak aitortuta,
gure orduko barrengo poza
eztet utziko aztuta;
gure animak gelditu dira
oraiñ oso indartuta,
grazi ugariz apaindurikan
Jesus gurekiñ artuta.

16/ Arratsalde ortan itz egin zuten
gizon on aiek azkenez,
agurra danoi egiñ ziguten
oso izketa legunez;
borondatia badute oiek
ondo azaldu dutenez,
gurutza bat e utzi digute
mixiyuaren omenez.

17/ Agur gozo bat egiteko onei
agindutzen dit barruak,
orretarako almen aundirik
eztauka nere buruak;
zuek zerate kistar gaizoen
erakustalle sutsuak,
uri onetan iraun dezala
erain dezuten frutuak.

18/ Kristau guziak libratu gera
etsai txarraren katetik,
anima elbarrik sendatu're bai
pekatubaren gaitzetik;
oroipen ori ezta juango
sekula gure artetik,
agur gozo bat, Aita maitiak,
usurbildarren partetik.

Gerra aurreko *Argia* euskal astekaria,
1935-VI-9'an.

Izenburuak dionez, bertso auen egillea Aizarna bertsolaria degu.

Beraren argazkia, Eibar'ko Ojanguren zanak egiña, gure *Bosquejo de Historia del bersolarismo* liburuan ikus dezake irakurleak.

Bañan beste argiderik ezin gentzake ari buruz eman.

Ala ere, duda egiten degu ura usurbildarra ote zan. Amaikagarren bertsoan *deskantsau* eta *ingurau* esaten baita; eta irugarrenean *denpora*. Edozeñek dakianez, berriz, Usurbil'ko euskeraz *deskansatu*, *inguratu* eta *denbora* bear du.

Amazazpigarren bertsoan, *kistar* eta *uri* irakurtzen da. Itz oiek ez datoz ongi erriko

bertsolari jator baten izkerarekin; ezta ere gañontzeko bertsoetan erabiltzen dan euskera-
rekin.

Bearbada, *Argia*'ren redazioan—edo, baten-
batek eskua sartuko zuan eta itz oiek aldatu.

«1935»

BERTSO BERRIYAK
MARZIAL URTXEGIAK JARRIYAK

- 1/ Milla bederatzireun da ogei ta
amabostgarren urtian,
misiolariak bi izan dirade
gure erriko partian;
premiya ere bazala uste det
jende askoren tartian,
misiyo oiek ez dira izan
gure animen kaltian.

- 2/ Illbeltzaren amalauian
asi da misiyo santua,
bertso berriyak ateratzeko
artu det pentsamentua;
oiek guztiak ongi jartzeko
erren daukat talentua,
Jesus maitia, argi nazazu
neri entendimentua.

- 3/ Aita oriyek ots egin dute
pulpituatik aurrena:
kontzientziko kezka degula
munduko gauzik txarrena;
lendabizitik esamiñatu
egin biar deu barrena,
pekatariyak, au da preziso
guri konbeni zaiguna.
- 4/ Zenbait alditan edozein moduz
egiten degu pekatu,
kontzientziya esamiñatzen
egin bear deu nekatu;
diranak diran bezela esan,
bat bakarrik ez ukatu,
etsaiakiko aiskire-antzak
nai baldin baiteu bukatu.
- 5/ Kukurrukuba jo egiten digu
kontzientziko ollarrak,
alare lasai egoten gerala
aien gerade dollorrek;
anima baño geiago maite
urriak eta zillarrak,
konpesatzera joan gaitezen
ez egoteko bildurak.

- 6/ Jesus umillak Kalbariyora
eraman zuben arbola,
ikusten degu eskuk eta oñak
josirikan or dagola,
bere oñ eta eskuetatik
odol isurtzen zaiola;
pekatariyak bizi bear degu
ori goguan degula.
- 7/ Gizon guztiyak salbatzeagatik
Jesus nola ibilli zan,
nik sinisten det mundu onetan
gustorik etzubela izan;
bere anima eta gorputza
utzi zituban kalizan,
bisitatzera sarritan goazen,
ortxen daukagu elizan.
- 8/ Gure errira etorri dira
jesuita ta prailia,
jendia pranko oiei begira
gustora egonak dia;
badaukate oik talentu eta
buruko abillidadia,
nola dan ongi esplikat'ute
mundu ontako legia.

9/ Edozer gauza esaten degu
tentaziyuak artzian,
gure lenengo guraso zarrak
ola oitubak etzian;
gorputzarentzat bentajarik ez,
animarentzat kaltian,
kontu itxusik izango dira
Josapatara joatian.

10/ Jesus maitia mendian gora
eraman zuten iltzera,
kulparik gabe saldu zuten da
bere biziya kentzera;
munduban nola etorri zan
berak eman zun aitzera,
gaizto artian ortatik dator
relijiyua galtzera.

11/ Egun oietan jetxi zitzaigun
Jesus zerutik lurrera,
bere odolez egiñ giñuzun
katolikuak gu gera;
Beran esanak zintzo egiten
baldin saiatzen bagera,
Jesus arekin beti-betiko
zeruban sartuko gera.

12/ Jesus maitiak egiñak dauzka
beti izketa prestubak,
oker birerik eztu izaten
beñere gizon justubak;
guri eman da mundutik joan zan
bere oñ eta eskubak,
bere nekiaz paratu zitun,
ez dira iñori ostubak.

13/ Jesukristorek guregaitan
egin zituben nekiak,
oker birerik beñe ez dauka
gauza ongi erakustiak;
ordu segururik ez degu
nola zar eta gaztiak,
eriyotz on bat emango digu
gure Jainko maitiak.

14/ Jesukristok odola nola
ixuri zuan munduan,
nere laguna, artu dezagun
al baldin bada goguan
negar-malkuak ixuriyaz
guri begira zeguan
beren laguntza biarko degu
eriotzako orduan.

Bertso-papera, *Imp. Macazaga – Rentería*
moldiztegian argitara emana eta bertan jaso.

An eta emen bertso-lerro batzuk aldatu egin ditugu, moldiztegiaren erruz-edo oker idatzita zeudela iritzita. Onako auek dira, bertso-paperean zeuden bezelaxe:

2/6: errez daukat talentua; 3/1: Aita oriyek otsa gindute; 4/7: etsayaiko aisgire antzak; 4/8: nai baldin baiten bukatu; 5/4: ayen gerade yollorrak; 6/5: beren oñ eta eskuetatik; 8/5: badaukate oik talentu ta.

Bertsolariaren izen-deiturak izenburuak ematen dizkigu: Marzial Urtxegia. Irakurlea oartuko zanez, nungo mixioak diran ez da iñun esaten.

Marzial Urtxegia orrek bost bertso lenago-ko best sail batetik artuak ditu; Pello Errotaren seme Miel Antonek Asteasu'ko 1918'ko mixioari jarri zion sailletik, alegia. Bertso oiek *Auspoa*'ren 45-50'garrenean arkituko ditu irakurleak. Miel Antonen 1, 2, 4, 5, 32 eta 33'garrena eta Urtxegia'ren 1, 2, 5, 4, 6 eta 7'garrena berdintsuak dira.

«1950»

MIXIO SANTUAREN OROIMENEAN
NEKAZABAL'EK ZARAUTZ'EN,
1950'GARREN URTEAN

1/ Milla bederatziregun
berrogei ta amarrian,
ditxa eder bat sortu da
Zarautz'ko errian;
nago bertso batzuek
jarri biarrian.
Jaungoikoan laguntza
nai nuke urrian,
jarraitu're Jesusen
grazi ederrian.

2/ Gure parroko jaun da
aiuntamentuak
ekarri dizkigute
mixiyo santuak;
ez du gutxi baliyo
oien talentuak,
persona asko geunden
emen zabartuak,
ondo zuzendu ditu
nork bere kontuak.

3/ Martxuen ogei ta bostian
egin ziran asi,
euskaldun ederragorik
ez degu ikusi;
esplikatu digute
nola ondo bizi,
zerurako bidea
dute erakutsi,
animak ez duela
galtzerik merezi.

4/ Aita Agirretxe da bat,
bestia Garmendia,
oiei entzuten pozez
egon da jendia;
erakutsi digute
zeruko bidia,
berari jarraitzeko
artu det idia,
lan ederrak eginda
Zarautz'tik joan dia.

5/ Aita Apraiz jaun ori
da irugarrena,
erdaldunen artian
izlari ederrena;
oien esanak sartu
zaizkigu barrena,
maitasuna izateko
danok alkarrena,
ia sendatzen degun
anima errena.

6/ Esplikatu diguzte
fedeko egiak,
ez dute errurikan
oien memoriak;
San Frantziskoren seme
estimagarriak,
zorianian dira
Zarautz'a etorriak,
irabazi dituzte
esker ugariak.

7/ Jendia joan gera
eleiza betian,
asi diranetikan
bukatu artian,
oien itzak aitzera
maitasun fuertian;
Jesusei erregutu
guztiok batian,
sartu gaitzala arren
zeruko atian.

8/ Aitortza eder bana
digute eragin,
gauza orren gañian
dute asko itzegin;
zuzen ibiltzeko
lagun urkoakin,
aixkire izateko
danok alkarrekin,
Jesusen asarria
aplakatu dedin.

- 9/ Barkazioa eskatu
diogu alkarri,
geroko okerrikan
ez dedin etorri;
berriz aitortutzero
joateko sarri,
Jesusek badakila
kristau danon berri;
anima garbituta
trankil gera jarri.
- 10/ Askotan enkargatu
gera gurasuak,
guk ondo zaitzeko
umien pausuak;
gure eginkizunak
dira nekosuak,
salbatuko bagera
gauza prezisuak,
lagunduko al digu
Jaun amorosuak.
- 11/ Ordena asko artu
dituzte gaztiak,
garbi eman dizkete
beren albistiak;
kristau danok gerala
Jesusi kostiak,
ez emateko penik
lagun tzarrak uztiak,
etorri ez ditezen
ondoren tristiak.

12/ Barrengo griña txarrak
in ditugu kendu,
lengo oker guztiak
ditugu zuzendu;
premiya degunian
alkarri lagundu,
ai zer gauza ederra
egingo bagendu,
Jesukriston dotriñak
au erakusten du.

13/ Gaixo dauden guztiai
eman diote Jauna,
gogongarria izan da
Erramu-eguna;
gizon leialak etorri
dirade gugana,
Jesusek ordainduko die
egindako lana,
eramaten ditunen
iñoiz Beregana.

14/ Gustagarria izan da
oien despedira,
erriari abestuz
eman diogu jira;
bêtzi egun pasata
aspertu ezin dira,
beti Jesusi deika
zerura begira,
danok jaso gaitzala
bere konpañira.

15/ Len gaiztoak giñanak
egin gera ondu,
ortarako ditugu
mixiuak izandu;
pekatu bidetik
al bada aldendu,
berriz biziyo txarrik
ez dedin gallendu;
infernura joatiak
bildurra ematen du.

16/ Oso bide labañak
nola dauden emen,
izan zagun kargua
gure animaren;
tentaziyo gaiztuak
sarri izan arren,
guztiok nai degu sartu
zeruan barrenen,
ala gerta dedilla,
gora Jesus, amen.

Bertso-papera, *Martiarena - Zarauz* moldiztegian argitara emana, Orio'ko Gregoria Ibarгойen zanaren eskutik jaso.

Idazten oitura gutxi zuan esku batek lapitzez erantsita, zuzenketa batzuk ikusten dira an eta emen bertso-paper ontan. Bañan zuzenketa jatorrak.

Gure iritzirako, argitara eman baño len, nor edo nor ibilli zan bertso auek aldatzen; eta gero, argitara eman ondoren, beste bat jardun zan bertsoak lengo beren jatortasunera ekartzen.

Lapitzazko zuzenketa oiek ontzat artu ditugu, bertsoak idazterakoan. Bañan inprentaz beste onela dago: 1/9: jarriera Jesusen; 2/9: ondo zuzendu ditugu; 4/9: lan ederra einda; 5/1: Aita Apraiz; 7/6: maitasun aundian; 7/7: Jesusei erregutu diogu; 11/5: kristauak danok generala; 14/2: oien bukaera; 14/9: danok eraman gaitzala; 16/8: guk zeru ederren.

* * *

Nekazabal bertsolari au Aia'koa zan berez; bañan Zarautz'en bizi zana.

Joxe Kruz Larrañaga zituan bere izen-abizenak.

Oker ez bagaude, 1974 urteko Azaroaren 17'an il zan, 82 urterekin.

* * *

Nekazabal bertsolari onek anai bertsolaria ere izan zuan. Oni ere *Nekazabal* edo *Nekezabal* esaten zioten. Lenengo Bertsolari-egunean, 1935'eko Ilbeltzaren 20'an, parte artu zuan.

Ondoren argitaratu zan *Bertsolari-guduak* 1935-1936 liburuan, aren bertso bakarra azaltzen da. Batean puntua onela jarri zioten:

Bertsoak botatzeko
au da jende-pilla...

Ta berak erantzun:

Danak pozik uztetan
bear oso abilla.
Oraindik solteru naiz,
gaiñera mutilla,
lurrak tapatuzeko
a zer ezur-pilla!

Beste bertso bat, Zarautz'ko Iñurritza'n, Etxetxiki'ko Santos Leunda'ren aotik, jaso genduan. Onela esan zigun:

«Beste bat gogoan dakat bertsoa. Basarriri, gerra aurrean lenbiziko txapela Donostia'n atera zuanean, omenajea egin zioten emen, Zarautz'en, batzokian. Puntu jartzen, Aitzol; eta azkeneko puntua au jarri:

Oraintxe azkena zuk
bukatu biazu...

Ta berak:

Baita kantatu ere
asten banaiz prestu;
ez nazu pariente
ain gutxi lengusu,
bazkaia artuko det
ematen baidazu».

Nekazabal ori gerra-denboran il zan.
Eriotza nola izan zuan, Santos Leunda orrek
berak kontatu digu:

«Ementxe, Orio ta Zarautz bitarteko Suin
gañeko kamio ortan, kamineroen etxean,
batzuek alde egin eta besteak sartzerako,
nonbait ere dinamita jarri zuten atean; eta
Nekazabal ori ikusmiran joan eta atea
idekitzean, lertu eta bota...».

* * *

Basarrik ere bertsoak jarri zizkion mixio
oni. Bertso-paperetan zabaldu ziran, Za-
rautz'ko *Tip. Elustondo* moldiztegian argita-
ra emanda. Bai *Aranzazu* aldizkarian ere,
1950 urteko bosgarren zenbakian, eta bai *Ba-
sarri'ren bertso sorta* izeneko liburuan ere.

«1956»

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berri batzuek
jartzera nijua,
errian zabaltzeko
daukagun asmua:
Martxuaren lauean
astera dijua
igeldotarrentzako
mixiyo santua.

2/ Kristo badatorkigu
-ez denbora pasa-,
entzun dezagun bere
nekien arnasa...
Mixiyuen jarduna
ez baita jolasa.
Ongi etorri, Aita
Garate ta Lasa.

3/ Gizona nundik dator
ta nora dijua?...
Munduko izaera
ez da betikua;
eriotza, epaia
eta Jaungoikua...
danen berri emanaz
dator mixiyua.

4/ Jesus Onaren ardi
maiteak zerate;
oraintxe zuen billa
dator atez-ate...
Aurretik autsi bear
pekatuen kate...
Ortara datoz Aita
Lasa ta Garate.

5/ Gure kalte bakarra
degu pekatua;
barkapena eskeintzen
berriz Jaungoikua.
Zenbateraño zeran
esker txarrekua,
agertzen datorkizu
mixiyo santua.

6/ Aurten luzatu zaigu
jelakin elurra,
zigor baten antzera
gorrituaz lurra;
landarea utzi du
txit buru-makurra,
Jainkuak ez al digu
ematen bildurra?

7/ Artzai Ona badator
makillik gabea,
txistu ta irrintzika
bilduz artaldea.
Zabaldu elizaren
bordako atea,
goazen, entzun dezagun
bere itz maitea.

8/ Gizonak zoriona
du amets urdiña;
beti kezketan dauka
biotzeko miña...
Artzen badegu zintzo
zerurako griña,
an iritxiko degu
lurrean eziña.

* * *

- 1/ Mixiyo santu onek
utzi gaitu alai,
azpiratuaz iru
animaren etsai.
Pake santu onetan,
alkarren ongina,
artzaiak ardiakin
egin dezagun jai.

- 2/ Eriotza badator...
eta ni kezketan,
kontu eman bearra
Kristoren oñetan.
Sententzi ura ez da
izango txantxetan:
betiko poza edo
betiko penetan.

- 3/ Jesus guri galdezka
dabil atez-ate:
Emandako itzaren
jabe al zerate?
Agur, eskarrikasko,
Lasa ta Garate;
gure oroipenean
biziko zerate.

Mixio aurreko zortzi bertsoak, orritxo batetik; mixio ondoko iru bertsoak, *estampa* batetik. Biak ere Igeldoko erretore Fabian Loidi'k bialduak. Bertsoak ere, berak jarriak, seguru aski. Mixio ori 1956'an eman zan.

«1965»

BERTSO BERRI-BERRIAK
GURE MIXIOARI JARRIAK
DONAMARIA'N
1965, ILBELTZAREN 16 - 25

- 1/ Milla bederatzi eun gañera
irurogei ta bostian,
mixio eder bat izandu degu
Donamari'ko errian;
zeru-egunak izan ditugu
lenengo illabetian,
bere oroipena gordeko degu
bizi geraden artian.

- 2/ Bost auzo ditu Donamariak:
bostak Jaungoiko zaliak:
Ola, Uxarre, Artze, Igurin
t'Azkarraga'ko jendiak;
mixiolariak danoi dizkigu
eman itzaldi argiak,
benetan zintzo gorde ditzagun
Jaungoikoaren Legiak.

- 3/ Su ta garretan mixiolari bat
etorri zaigu txit ona,
Zubiaga'tar Mikel Mari du
jaun maite orrek izena.
Nik nola esan gure artean
berak egin duen lana?
Zeruko Aitak emango dio
sari irabazi duena.
- 4/ Argitasunaz burua eta
goi-maitasunaz biotza,
bete gaitzazu Gogo Deun orrek,
dizugu egiten otoitza;
Zu gabe gugan besterik ez da
illunpe eta izotza,
zu zera gure pake-iturri,
barkapen, indar, bizitza.
- 5/ Ederki asko zabaldu digu
Jaungoikoaren dotriña,
bere esanak betetzearren
egin zagusun alegiña;
orretarako lagun zaiguzu,
Zeruko Ama Birjiña,
ill ondorean ikus dezagusun
zeru eder ta bikaña.

6/ Amar egunez eman dizkigu
amaika itzaldi eder,
oiek buruan artzen dituna
ez liteke bizi oker;
danen aldetik, Aita Zubiaga,
dizkitzut ematen esker,
zure laguntzaz garaitu degu
gure etsai dan Luziper.

7/ Bere itzaldi gozo, egoki,
ederrak eta eztiak,
pena aundia izango gendun
entzunik gabe uztiak;
orretarako entzun diogu
nola xar ala gaztiak,
«Ondo gaude emen» Pedrok bezela
esaten genduan guztiak.

8/ Argi ta garbi esan dizkigu
gure sinismen-egiak,
nola eriotz ala epaia
ta ondorengo guztiak;
gure barruan ongi *ausnartuz*
betiko miñ-oñaziak,
malko samiñez bete zaizkigu
biotz, gogo ta begiak.

9/ Mixiolariak esaten zigun
itzaldi eder batian:
Egi au ere sartu dezagun
ondo biotz-barrenian!
Kristau zintzoak zeruan beti,
gaixtoak an su-leizian,
egongo dira, bañan ez berdiñ,
betikotasun guzian.

10/ Beso-zabalik gure zai dago
betikotasun aundia,
ez da berdiña zerura igo
edo inpernura jextia;
beti gurekiñ eraman zangun
donetzalle dan grazia,
Zeruko Aitak idikitzeke
pozez zeruko atia.

11/ Pekatua da animarentzat
etsai amorratuena,
zeruko bide eder ortatik
atera nai gaituena;
erne egon ta otoitz beroa
beti egiten duena,
burruka ontan aterako da
nagusi ta txapelduna.

12/ Zer giñaden gu Jesus zerutik
lurrera jetxi ez balitz?
Egongo giñan, ez mixiolari,
ez apez eta ez eliz;¹
mundu ontako illunpe beltzak
berak bete digu argiz,
Bera guretzat aiñ ona izan-ta
gu Berarentzat aiñ murriz!

13/ Jesukristogan fede bizi bat
izan bear du gizonak,
Bera ikusi, Berari entzun
ta jarraitzeko asmoak;
Berak bezela barkatu eta
maitatu lagun urkoak,
orrela danak dute esango
kristau generala osoak.²

14/ Mundu onetan egiten dira
egun samiñak agertu,
ordu oietan batak besteai
bear diogu lagundu;
gure artean anaitasunak
egin bear du agindu,
orrela biziz kristau generala
egingo degu aitortu.

¹ Bertso-paperak: *ez apez ez eliz. Eta ori guk erantsia, beraz.*

² Bertso-papera: *guztiak. Bañan osoak bear duala dudarik ez da.*

15/ Animen aldeez egin duena
bertsoz ez dago neurtzerik,
izlari onak izan litezke,
bañan nun dago oberik?
Guraso, ume, neska, mutillak
banazka goxo arturik,
zeruratzeko egin bearrak
ez dauzkagu aztutzerik.

16/ Illen aldeko itzaldia ta
meza ederra kantuan,
alaxen degu mixio santua
bukatu azken orduan;
alkar lagunduz gaur eta beti
bizi gaitezen munduan,
zorion betez egon gaitezen
ill ondorean zeruan.

(Aita Zubiaga'ri)

17/ Nekeak ez du zugan sarrerik,
lanerako beti prestu;
zenbateraño saiatu zeran
eziñ liteke sinistu!
Maite-damuak gure barruan
zuk dizkigutzu, bai, sortu,
beti-betiko pekatu ori
oinpean dezagun artu!

18/ Aurtxo guzien maixu jatorra
zu dotriñ eta kantuan,
konpesioko lanetan berriz
ordu txarrik etzeguan;
amaika otoitz egin dituzu
gure Jaunaren aurrean,
gaur eta beti Donamaria'k
izango zaitu goguan.

19/ Bazoaz oraiñ gure artetik
lan asko egiñ ondoan,
millaka esker t'ematen dizut
musu bero bat eskuan;
baldiñ geiago ez bazaitugu
emen ikusten munduan,
Jaungoiko onak artu gaitzala
danok betiko zeruan.

20/ Artu gaitzatzu, Zeruko Ama,
eman zaiguzu eskua,
biotz-biotzez eskatzen dizut
guziontzako zerua,
zeru goietan bildu gaitezen
beko pamili osua;
otoitz onekiñ bukatzen det
nere azkeneko bertsua.

Artzaia.

Bertso-papera, *Gráf. Izarra – San Sebastián* moldiztegia argitara emana.

Paper au noren eskutik jaso genduan idaztea aztu egin zitzaigun.

Ez degu uste bertso auk bertsolariren batek jarriak diranik. Apaizaren batek egindako lana izango dira, gure iritzirako beintzat.

Ain zuzen, *Artzaia* ageri da firmatzen paperaren beeko muturrean. Animen Artzairen bat alegia, seguru asko.

Izenburuan esaten danez, bertso auk 1965 urtekoak ditugu. Geroztik jarritako beste mixio-bertsorik, guk beintzat ez degu eskuratu. Orregatik, baditeke, gauza segurua ez bada ere, azken jarriak ere auk izatea.

ZENBAIT BERTSO TA DOÑU


Beste mixio-sail batzuk etzaizkigu osorik agertu; bertso bakarra edo bina baizik.

Azkue zanaren ezku-idazkietan, argitara atera gabe utzi zituan bertso ta doñu auek arkitu ditugu, Berriz'ko Juan Narbaiza'ren aotik jasoak eta ondoren argibide au daukatela:

«Parece que originariamente fueron canciones de misiones de Aya (G).»

Misionistak daude
Berrizko errian,
aurkituten gareala
deritxat premian;
animen kontu gabe
beti pikardian,
bizi ete garean nago
libertade andian,
asko edo geienok
joan dan aspaldian.

The image displays a page of musical notation consisting of eight staves. The first staff is in 2/3 time and has a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat). The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, and rests. The subsequent staves continue the musical piece with different rhythmic patterns and melodic lines, all within the same key signature.



* * *

Beste bertso ta doñu auek Naparroa'n jaso
zitian Azkue'k, Bakaikoa'n, Juana Bazterri-
ka'ren aotik, eta bere esku-idatzietan argitara
gabe utzi:

Atozte bada misionera
nor nai dezuten itzegin,
bear dezuna salbatzeko
jakin ezazu zer egin.

Emango dan sententziak
eztu apelaziorik,
infernura edo zerura
joanen gera zuzenik.





* * *

Beste bertso ta doñu auek ere Naparroa'n bildu zituan Azkuek'k, Imotz'en, Eraso errian, Maria Antonia Etxeberria'ren aotik, eta bere *Cancionero popular vasco* kanta-bilduman argitara eman ere bai, 750'garren zenbakian:

Espiritu Santuaren egunak dira
Pazkua Maiatzekoak,
misioaren Santo Kristori
paratzen dazkiot bertsoak,
eztitut damu nik arengana
egin ditudan pausoak.

Misio oiek Santo Kristoa
badarabilte elizen,
ezta persona au ikusita
ezpazerate (*sic*) arritzen
pentsa dezagun gurutze artan
ea zergatik jarri zen.





* * *

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, berriz, Jokin Dorronsoro'k Ataun'en Maria Josefa Barandiaran'i jasoak eta 1935 urtean bialduak, bertso auek arkitu ditugu:

Aita Xabier Prantzisko
Ataungo semea,
Maria Santisimaren
enbajadore aundia.

Sermoia egin digu
kalaberarekin,
Maria Santisima
zuan berarekin.

Bear zaio eska jendeak
alkarri bai umil,
ez giñan betiko jaio,
laister bear degu il.

* * *

Sail ori osorik bildu bearrez, Baiona'ra joan eta *Herria* aldizkariaren urte ori bein da bitan pasa degu; bañan ez ditugu bertso auk arkitu.

Beste bi bertso auk, berriz, Hazparne'koak dira. Gerok idatzitako orri batean arkitu ditugu, *Kanta zaharrak* dirala esanez, *Uholde baten pare* airearekin kantatzekoak eta *Herria* aldizkarian 1963 urtean agertuak.

Bertso auk nunbait ere egongo dira, beraz; bañan gure orri ortan uste gabeko okerren bat izango da eta ezin orain bertsoak arkitu.

Ona bertso oiek:

Misionestak Hazparren
oihu dolamenez,
nehor gure artean
eririk badenetz;
hurbil gaiten guziak
laster bihotz onez,
sendaturen gaituzte
absoluzionez.

Deiheralde misionest
beharren hazlea,
hunen parabolari
ez daite enea;
bera ere baitugu
herriko semea,
makur liteke horren
hemendik uztea.



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*)

27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsularia. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsularia. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).

76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagun bertsok. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-emeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitia*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapiain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).

132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Ekoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J.K. Zapiain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).



AUSPOA
LIBURUTEGIA